

Zaldiak, terapiarako

Arrasateko Gesalibar auzoan dagoen Zabolaingo zalditegi estalia Euskal Herriko bakarrenetakoa da; zaldi-terapia saioak eskaintzen dituzte behar bereziak dituztenendako / 12

Zabolaingo zalditegi estalian zaldi-terapia saioa egiten, oraingo eguaztenean. XABIER URZELAI

SINADURAK



GARIKOITZ
ITURBE / 8



AINHOA
PARDINA / 26



IBON
ARRUPE / 14



MARIA
AGIRRE / 48

+



Harrian aritzea dagoeneko ez da ezinbesteko

Andoni Egaña bertsolariari elkarrizketa

MERKEALDIA

+ 2. BETAURREKOAK OPARI

www.multiopicas.com



Kontsultatu optikan kuztariaren ezaguerak.

Otalora Lizentziaduna, 18
Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16
Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

MULTIÓPTICAS
50 urte zuen ikusmena zaintzen

Pandemiako gastuei aurre egiteko laguntza jasoko dute udalek

Biztanleekiko proportzionala den dirulaguntza jaso dute herriek, pandemian sortutako gastuak leuntzeko. Bailarako udalek oraindik ez dakite zertara bideratuko duten funtsetik eratorritako diru hori, baina "ondoetorria" izan dela adierazi dute

Uxue Igarza Loiola DEBAGOIENA

Espainiako Estatuak 188 milioi euro bideratu ditu Euskal Autonomia Erkidegora (EAE), pandemiaren ondorioz sortutako "ezohiko gastuei" aurre egiteko. COVID funts horretatik 69,2 milioi euro dagozkie Gipuzkoari, eta Aldundiak erabaki du %40 udalen artean banatzea: 25.146.622 euro.

Hala, Debagoieneko udal gipuzkoarrek 2.130.635 euro jasoko dituzte. Taulan ikus daitekeen moduan, banaketa biztanle kopuruaren arabera egin da; hots, Finantzaketarako Foru Funtsak ezarritako irizpideak jarraituz. Udal ordezkari guztiek adierazi dute diru hori "ondoetorria" izango dela, eta pandemiari aurre egiteko egindako gastua "leuntzeko" balioko duela.

"Laguntza ez, konpentsazioa"

Oñatiko Izaro Elorza alkateak adierazi du momentuz ez dutela zehaztu zertara bideratuko den ekarpena: "Hainbat aukera daude, eta beharren arabera erabakiko dugu". Bestetik, azaldu du kopuruak ez duela estaltzen izurriteak udalei eragindako gastu gehigarria: "Hainbat ekimen jarri genituen martxan, batez ere, zaurgarrienei –baina, oro har, herritar guztiei– egoera zail hura leuntzeko asmotan (...). Behar beste neurri eta erabaki hartu ditugu eta erantzunarekin gustura gaude; jakitun izanda, dirulaguntza ongiatorria den arren, guztizko konpentsazioa ez dela emango".

Arrasateko Udalak ere bide beretik azaldu du funtsetik jasotakoa ez dela gastua estaltzeko adinakoa: "Pandemiari aurre egiteko hainbat partida bidera-

Banaketa, herriz herri

Herria	Biztanleak	Jasotako dirua
ANTZUOLA	2.081	70.787€
ARETXABALETA	7.108	240.164€
ARRASATE	21.867	746.775€
BERGARA	14.584	495.003€
ELGETA	1.141	38.341€
ESKORIATZA	4.131	139.287€
LEITZ GATZAGA	211	10.462€
OÑATI	11.428	389.812€
GUZTIRA	62.551	2.130.635€

ITURRIA: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

tu dira; besteak beste, ongizate zerbitzua indartzeko, ostalariei nahiz egoera zaurgarrian dauden herritarrei laguntzeko edota 930.000 euroko laguntzak tokiko merkataritza sustatzeko. Gastu hori derrigorrezkoa izan zen, eta berriz ere egoera horretan egongo bagina, berdin jokatuko genuke". Jasotako dirua aurrekontuari gehituko zaiola aurreratu du Anuska Ezkurra zinegotziak, eta oraindik zehazteko dagoela zein helburutarako erabiliko den.

Bergarako Udalak adierazi du "aurrekontuetan sartu ezin izan diren beharrei" erantzuteko bideratuko duela dirua eta "modu arduratsuan" kudeatuko dela.

Nolanahi ere, argitu nahi izan du dirua "ez dela udalei egin zaien oparia": "Zenbateko hauek oso urrun daude gastuak estaltzeko behar diren kopuruetatik. Bergarako Udalak bi milioi baino gehiagoko inbertsioa egin zuen COVID-19ak eragindako egoerari ekonomikoki aurre egiteko". Adibide gisa jarri du terrazetako tasetatik jaso ez zena –2020ko martxotik 2021eko abendura bitartean– 125.000 euro inguru izan zirela eta ostalari eta merkatariei dirulaguntza zuzenetan 160.000 euro eman dizkietela, besteak beste. Krisiaren beharrei erantzuteko Udala "zorpetu" egin dela gehitu dute, eta laguntza hauek

"inbertsioa mantentzeko" balio dezaketela: "Oreka ekonomikoari eusten lagundu dezake".

Aurrekontuetara batzeko asmoa
Aretxabaletan, Unai Elkoro alkateak esan du COVID funtsetik eratorritakoa aurrekontura gehituko dutela. "Azken finean, gure aurrekonturako diru-sarrerara bat izango da; aurrekontu osoaren %2, hain zuzen ere. Zorpetze maila handia zegoela kontuan hartuta, baliteke hor eragitea", esan du Elkoro. Bestalde, gehitu du pandemia hasieran "zuhurtziagatik" gelditu egin zituztela inbertsioak. "Konfinamendua iritsi zenean guk ez genekien honek guztiak zenbaterainoko eragina izango zuen, eta zenbait proiektu atzeratu egin genituen. Orain hasi diren Santakurtz kaleko obrak duela urtebete hastekoak ziren". Gastuak "pandemiari erantzuteko" bideratu zirela azaldu du alkateak, baina era berean, adierazi du kultura bezalako alor batzuetan, ekitaldirik egin ez denez, aurreztea lortu dutela. "Diru aldetik ez dugu arazo handirik eduki", onartu du alkateak.

Elgetan ere, Iraitz Lazkano alkateak azaldu du aurrekontuan sartuko dutela jasotakoa eta

"OSASUNGINTZA PUBLIKOAK UDALEK BAINO DIRU PREMIA HANDIAGOA DU"

IRAITZ LAZKANO, ELGETA

"PANDEMIAN EGIN DUGUN INBERTSIOA LEUNDU EGINGO DU JASOTAKO DIRUAK"

ANUSKA EZKURRA, ARRASATE

"LAGUNTZA HAU AURREKONTU OSOAREN %2 IZANGO DA"

UNAI ELKORO, ARETXABALETA

"BEHARRIN ARABERA ERABAKIKO DUGU FUNTSEKO DIRUA NORA BIDERATU"

IZARO ELORZA, OÑATI

"lehenetsunak" markatu behar dituztela. "Laguntza da guretzat, eskertzen da, jakina, baina osasun protokoloak betetzeko egin ditugun gastuak jasotakoa baino gehiago dira. Materiala erosi behar izan da, garbiketa lanak egin, aire neurgailuak jarri, langile gehiago kontratatu...", dio. Baina horrekin batera, azaldu du udaletan baino "premia handiagoa" egon daitekeela beste eremu batzuetan: "Udalok beti dugu diru premia, baina egia da aurrera egiteko moduan gaudela. Agian, momentu honetan, diru publiko hori osasungintzan eta hezkuntzan inbertitzea aproposagoa eta onuragarriagoa izan daiteke gizarte osoarentzat".


Banaketa, UFFren irizpideekin

Bestalde, Joxerra Zubizarreta Eskoriatzako alkateak azaldu du laguntza "oso aproposa" izan dela eta ados dagoela banaketa irizpideekin. Oraindik, baina, erabakitzeke dute nola baliatu. "2020an eta 2021ean murrizketa handiak egin ditugu, eta horrek proiektuak geratzea eta dirulaguntzak doitzea ekarri digu. Nolanahi ere, garbi izan dugu –eta ez pandemia sasoiaren baka- rrik– ez dugula gastatuko ez dugun dirurik", esan du Zubizarretak.

Beñardo Kortabarria Antzuolako alkateak ere egokitzen jo du banaketa, eta, erabakirik hartu ez duten arren, dirua "herritarrentzat ona izango den zerbaitetarako" erabiliko dutela azpimarratu du. "Kultur etxea birmoldatzeko geneuzkan 90.000 euroak pandemiari erantzuteko gorde genituen: musukoak erosi, desinfektatze lanak egin, dirulaguntzak atera... 15.000 daude oraindik, baina pandemia ez dugu menperatu", zehaztu du, azken urteetako kudeaketaren inguruan galdetuta.

Euriaren kalteentzat ere bai

Eugenio Osoa Leintz Gatzagako alkateak adierazi du pandemiak baino gehiago ur handiek ekarri dituztela moldaketa handienak aurrekontuetan: "Kalte ugari eragin ditu urak eta sei bidezidor konpondu behar izan dira. Nonbaitetik atera behar da hori egiteko dirua ere". Hala, azaldu du momentu honetan mahai gainean dituzten proiektuak egiteko erabiliko dutela COVID funtsetik eratorritakoa dirua.



Neurriei eustearen alde agertu da Urkullu

Labi instituzionala gaur arratsaldean batuko da, neurri murriztaileek indarrean jarraituko duten edo ez erabakitzeko. Bestetik, Jaurlaritzak 'COVID ziurtagiria'-ren erabilera otsailaren 13ra arte luzatzea eskatuko dio EAEko Auzitegi Nagusiari

Uxue Igarza Loiola DEBAGOIENA

Abenduaren 28an hartutako neurri murriztaileek gaur dute iraungitze data. Horrek ez du esan nahi, baina, desagertu egingo direnik; izan ere, Labi gaur da berriz biltzekoa. Batzorde zientifiko teknikoak gomendatuta, lehendakariak dagoeneko aurreratu du "neurriak mantentzearen alde" egingo duela arratsaldeko bileran. Bestetik, ziurtagiriaren erabilera eremu gehiagotara zabaldu nahi du Jaurlaritzak -hoteletara eta joko aretoetara, besteak beste- eta eskaera egin

dio EAEko Auzitegi Nagusiari neurria otsailaren 13ra arte luzatzeko.

Pandemiaren egoera, "zaila"

Protokolo berria ezartzearekin batera, azken bi asteetan behera egin dute Osakidetzak atzemandako kasuek, baina, nolahi ere, momentuko egoera "zaila" dela adierazi du Urkullu.

Ospitaleei dagokienez, presioak behera egin du bi astetan, baina duela hilabete baino ia 200 lagun gehiago daude plantan, EAEn. Azken datuaren

arabera, 103 lagun daude ZIUUn -duela hamabost egun baino 33 gutxiago- eta 649 plantan -158 gutxiago-. Debagoieneko Ospitalean ere joera bera izan da: duela bi aste, hamabost lagun zeuden ingresatuta; aurreko astean, hamaika; eta atzo, berriz, sei.

Bukatzeko, heriotzei erreparatuta, nabarmen egin dute gora hilabete honetan: azken astean 94 erregistratu dira erkidegoan, eta aurrekoan 101. Abenduko asteetan, aldiz, 26 eta 27 heriotza artean erregistratu ziren asteko, batez beste.

Positibo kasuak eta intzidentzia

	Positiboak aste honetan	Positiboak aurreko astean	Positibo metatuak	Positiboak biztanleekiko	Intzidentzia tasa 14 egunekoak, 100.000 biztanleko
Arrasate	340	387	7.998	%36,58	3.292
Bergara	241	292	5.028	%34,48	3.544
Aretxabaleta	166	183	2.415	%33,98	4.929
Oñati	160	187	4.221	%36,94	3.025
Eskoriatza	84	121	1.397	%33,82	4.996
Antzuola	27	30	777	%37,34	2.615
Aramaio	23	26	505	%34,68	3.310
Elgeta	18	19	272	%23,84	3.271
Gatzaga	10	5	65	%30,81	6.410
DEBAGOIENA	1.069	1.250	22.678	%35,43	3.623

OHARRA: EGUAZTENERA ARTEKO DATUAK

ITURRIA: OSASUN SAILA

Aurreko astean baino 181 positibo gutxiago baieztatu ditu Osakidetzak Debagoiengan; halere, beste behin, 1.000 kasutik gora erregistratu dira aste bakarrean. Herri guztietan egin dute behera zenbatekoek, Leintz Gatzagan izan ezik; kasu horretan, bikoiztu egin dira positiboak aurreko astearekiko.

Fase berria salgai. Infoma zaitetz!

Terrazadun 2 logelako etxebizitzak **140.000 €-tik aurrera** (BEZ gabe)



BERGARA · www.lorentxoko.com

lorentxoko
P25 · bizigune berria

Jarraitu

GEK Bergarako etxebizitza-multzo honetan duela 15 urtetik gora duen esperientziari

Bergaran dagoeneko finkatuta dagoen bizitegi-espazio bati, kalitatezko etxebizitzekin eta eremu ireki eta arnagarri batean.

Ondo egindako etxeei, betiko kalitate bikainekin eta zure etxebizitza bakarria egiteko pertsonalizazio-aukerekin.

Jarraitu proiektu BIZI bati, ENTZUTEN dakien erreferentziako sustatzaile baten eskutik.

Zuk bakarrik jarraitu. Ni arduratuko naiz zu zoriontsu egiteaz. "Lorentxoko"

comercial@grupoeibar.com

GE grupo eibar
inmobiliario
www.grupoeibar.com

GRUPO EIBAR-EN BULEGOA: **943 31 66 11**
Ernal ,1 · 20570 BERGARA. **650 44 21 59**

Uribarri auzoko orubeari buruz ezer ez dio Elizak

Erakundeak immatrikulatu, baina beste inorenak izan daitezkeen 35.000 ondasunekin txostena egin zuen Moncloak; horietako bat zen Uribarrikoa. Elizak onartu du orain ondasun haietatik mila inguru ez direla bereak, baina Arrasatekoa ez dago tartean

Julen Iriondo M. de Zuazo ARRASATE 35.000 ondasun immatrikulatu zituen Elizak 1998 eta 2015 artean, PPren Gobernuaren lege bat aprobetxatuta. Orain, Espainiako Gobernuak eta Apezpikuen Batzarrak akordioa egin dute, ondasun haietako mila inguru euren jabeen itzultzeko tramiteak hasteko; lursailak, etxebizitzak eta eskolak daude, esaterako, tartean, eta baita elizak eta kanposantuak ere.

Hain justu ere, Arrasateko Uribarri auzoko orube bat dago aipatutako 35.000 ondasuneko zerrenda hartan, Debagoieneko bakarra, baina haren aipamenik ez da egiten Elizak orain onartutako milako zerrendan.

Hogei urte inguruan Uribarriko auzo alkate izandako Jone Bergaretxek dio baietz, makina bat borroka egin zutela eurek Elizak bere izenean jarritako hainbat ondasun berreskuratze-ko: "Zenbat ez ote nuen nik abadearekin eztabaidatu! Kanposantuan lurperatuta zeudenak

denak auzokoak ziren, auzokoek garbitzen zuten hura, eta terreneo haiek auzoarenak ziren. Eta aldamenen zeudenak ere bai. Baina abadeak zer egin zuen? Saldu. Saldu eta etxe bat eman zioten. Halako gauzak, pila bat".

Bergaretxek gogoan du auzotarrek hainbat bilera ere egin zituztela, baina Elizak berea egin zuela, azkenean: "Aznarrek emandako aukera hori zuten, eta aurrera eraman zuten".

Espainiako Gobernuak bere txostenean aipatzen duen orubetik harago, auzoko elizak berak ere bizilagunena behar duela dio Bergaretxek: "Auzoak egindakoa da, hiru edo lau etapatan. Liburuetan dator zenbat ordaindu zituzten santuak, eta

1981 ETA 2007 ARTEAN BAILARAKO 132 ONDASUN IMMATRIKULATU ZITUEN ELIZAK

auzotarrek ordaindu zituztela. Horiek, organoa... eta dena geratu zen euren esku". Eta Bergaretxek dio ez dela Uribarriko kasua bakarrik, beste auzo batzuetakoa ere bai: "Auzoen beharretarako sortu ziren elizak. Elizak [erakundeak] zerbitzu bat ematen duela? Bai; baina hori ordaindu ere egiten zen".

Eskoriatzako kasua

Oraingo berriek 1998 eta 2015 urte arteko immatrikulazioei erreferentzia egin arren, praktika hori historikoa izan da. Jaurlaritzak ere eskatu zuen antzerako zerrenda bat, eta 1981 eta 2007 artean Elizak Debagoienean 132 ondasun immatrikulatu zituela dio -388, Gipuzkoan; eta 525, EAEn-. Eskoriatzakoak ziren horietatik 43. Oraingo akordioaren berri izanda, Joserra Zubizarreta alkateak adierazi du [ETBri] milako zerrenda motz geratu dela, eta bereak ez diren ondasunak itzuli egin behar dituela Elizak.



Ikastetxeetako ordezkariekin egindako saioa. MIREIA BIKUÑA

Zientzia eta teknologia ditu helburu Mondragon ZTIM HUBek

Zientzia, teknologia, ingeniari-tza eta matematikarako grina sustatu nahi dute hainbat eragilek elkarlanean

Julen Iriondo M. de Zuazo ARRASATE Zientzia, teknologia, ingeniari-tza eta matematika sustatzeko, ikastetxe, enpresa, gizarte eragile eta udalen artean sare egonkor bat sortzeko egitasmoa da Mondragon ZTIM HUB delakoa. Sare erreferente izan nahi luke Euskadin MUREn eta Mondragon taldearen ekimenez sortutako egitasmoak.

ZTIM bokazioak gazteengan sustatzea du lanketak helburu nagusi, bereziki emakumezkoengan, eta, horretarako, ZTIM lanbideen bistaratzea, genero aurreiritzi gabeko orientazioa, ZTIM jardueretan esku hartzea eta ikastetxeetako hezkuntza proiektuetan eragitea ditu jomugan.

Asmoa errealitate bihurtzeko, gaur egun Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoak eta Huhezik ZTIMak "sustatu eta gerturatzeko" abian dituzten ekimenak izango dira abiapuntua: ZTIMULab -GEPen orientazio laborategia- eta Kolaborategia -Huheziren Gizarte Digitalerako Hezkuntza eta Komunikaziorako laborategia-; Mondragon ZTIM HUB bi ekimen horien elkargune izango da.

Lehen bi saioak, eginak

"Hainbat eragile daude bailaran, gutaz gain, ZTIM bokazioak lantzeko ekintzak bultzatzen dituztenak. Proiektu honen asmoa pausu bat harago joan eta eragile horien arteko HUB egonkor eta jasangarria sortzea da. Ho-

nela, beraien arteko elkarlana bultzatu nahi da, eta gizarteari soluzio bateratu eta integrala eskaini", diote ekimenaren bultzatzaileek. Bailarako enpresetan aurreikusten den ZTIM profilen beharrari erantzun nahia dago ekimena martxan jarri izanaren atzean. Ideia bailarako hainbat enpresa, ikastetxe eta udalekin elkarbanatu eta jasotako feedbacka "oso positiboa" izan dela azaldu dute, proiektuaren "garantzia" aitortu eta "bertara atxikitzeke interesa" erakutsi dutela. "Denoi interesatzen zai-gun zerbait da: ZTIMen beharra, gizartearen beharra da", dio egitasmoan diharduen Jaione Iriondok. Mondragon ZTIM HUB egonkortzera bidean, aurreko astean egin zuten lehen saioa eskualdeko zenbait ikastetxerekin, eta enpresen txanda izan da oraingoa.

Mondragon Goi Eskola Politeknikoak ZTIM gaietarako interesa eragiteko helburuarekin ikastetxeetako haur eta nerabeei zuzendutako hainbat ekintza eta aktibitatez osatutako eskaintza du gaur egun: erakusketak, jardunaldiak, tailerrak... Bestalde, ikastetxeei zein haietako orientatzaile, zuzendari eta irakasleei bideratutako ekimenak ere baditu. Debagoieneko ZTIM HUB egonkortzen denean, asmoa da antzerakoak sortzea Euskal Herriko beste inguru batzuetan, eta, Iriondoren arabera, Goierrin ere hasi dira dagoeneko lehen urratsak egiten.



Arrasateko Uribarri auzoko eliza. ANDER MONEDERO



Jokin Arroyo sukaldeburua eta Pablo Loureiro erreferente gastronomikoa, Hotel Mondragonen sarreran. E.A.

Sukalde eraberrituarekin, eskaintza zabala daukate

lazko ekainetik, arduradun berriak ditu Hotel Mondragonek, eta norabide berria eman gura diote hotelari; horretarako lehen aldaketa sukaldean egin dute, mota guztietako bezeroei zuzendutako eskaintza lortuz, euskal sukaldaritza tradizionalan oinarrituta

Fernando Gorostidiren gidaritzapean, lau izarreko hotela izateko lanean ari da talde berria eta, norabide horretan, sukaldetik hasi dute eraldaketa. Hala, Jokin Arroyo eta Pablo Loureiro sukaldeko buru direla, askotariko eskaintzaz goza

daiteke dagoeneko: karta, eguerdi zein gauerako eguneko menua, asteburuko menua, taldeendako menua eta dastatzeko menua. Gainera, garaian garaira egokitutako aldaketak egingo dituzte, hilabetero eskaintza aldatuz. Tabernako eskaintza ere

zabala da, garaian garaiko pintxoekin eta askotariko errazioekin.

Euskal sukaldaritza tradizionalan oinarritutako eskaintza dute, baina eguneratua eta moderno, aldi berean. "Hori dela-eta, parrilla ere izango da

Pablo Loureiro eta Casa Urola

Ostalaritzan errotutako sukaldariak Donostiako Rodil jatetxe ezagunean ekin zion bere ibilbideari. Haren aitona sortu zuen jatetxea, gurasoek eman zioten jarraipena, eta txikitatik usaindu izan du euskal sukaldaritza tradizionalaren esentzia.

Gerora, Branka jatetxeko sukaldearen ardura hartu zuen eta 2012an, Begoña Arenas emaztearekin batera, gaur arte bere proiektu pertsonala izan dena martxan jarri zuen: Casa Urola jatetxea. 2019an, Gastronomiako Euskadi saria jaso zuen.

da, azken hiru urteetan Oñatiko Hotel Torre Zumeltzegi jatetxeko sukaldeburu izan dena eta, era berean, sukaldeko beste hainbat teknika berri ikasten ari dena. "Gainera, bere ortua ere badauka eta bertako produktuekiko sentsibilitate handia du", dio Loureirok.

Askotariko bezeroak jomugan

Arrasatearrez eta debagoiendarrez gain, askotariko bezeroak erakarri gura dituzte. "Arrasatera eta Debagoienara jende asko etortzen da lanagatik eta bisita kontuengatik. Beraz, gura duguna da bezero horiei kalitatezko ostatu eta sukaldaritza zerbitzua eskaintzea". Era berean, Arrasate Euskal Herriaren erdian dagoela nabarmendu dute eta turistendako aproposa dela bertan geratzea, hiriburu gehienetatik gertu dagoelako. "Turista horiek erakarri gura ditugu, era berean, Debagoieneko turismoa ere sustatuz", azpimarratu du Fernando Gorostidik, hotelaren arduradunak.

Aparkalekuetan, erraztasunak

Laubide eta Biteri aparkalekuetan aparkatzeko erraztasunak ere eskainiko ditu hotelak, egonaldia "atseginagoa eta lasaiagoa" izan dadin. "Ez dugu nahi aparkalekua arazo bat izaterik".

Halaber, apurka aldaketa gehiago egiten joango dira. "Pixkanaka eboluzio bat izango du jatetxeak, hotelaren berritze osoarekin borobilduko dena".

BERRITZE OSOA EGITEA DA ASMOA, BAINA JATETXEKO ESKAINTZA BERRIAZ GOZA DAITEKE JADA

jatetxearen nortasunaren bereizgarri nagusietako bat", nabarmendu dute sukaldariek.

Bertako produktuen garrantzia

Hotelak kokapen ona eduki arren, orain arte "herritarrengandik urrun" egon dela iruditzen zaie, eta hori aldatzea gura dute. "Hotela herritarrengana gerturatzea eta haiekin konektatzea gurako genuke. Inportantea iruditzen zaigu arrasatearrek hotelera etortzeko gogoia izatea eta haiendako ere erakargarria izatea, eta, horretarako, gertuko ekoizleekin ari gara lanean: nekazariak, gaztagileak eta abar".

Pablo Loureiro sukaldaria da eskaintza gastronomikoan kolaboratuko duen erreferente gastronomikoa, eta sukaldeburua, berriz, Jokin Arroyo oñatiarra

Gure plateriez eta menuez disfruta ezazu!



Biteri Elorbideta 16, Arrasate
943 79 84 60 / 681 91 50 82
hotelmondragon@hotelmondragon.com
www.hotelmondragon.com



Olagamo errea berakatz- eta patata-zoparekin eta lepape-erruloekin



Barazki salteatuak urdalazpikoarekin eta patata-kremarekin



Itsas zapoa panadera-patatekin eta txilien errefitoarekin



Torrada karamelizatua kallesne-izozkiarekin

Mankomunitatea zigortu du Donostiako epaitegiak

Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak jarritako errekurtsoren harira etorri da kondena, Mankomunitateak tamaina handiko hondakinen errefusa GHKri ez bidaltzeagatik; bailarako organoa ez dago ados eta epaia errekurritzea aztertuko du

Hasier Larrea DEBAGOIENA

Donostiako Administrazioarekiko Auzien 3. Epaitegiak urtarilaren 17an hartu zuen Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak (GHK) jarritako auzi-errekurtsoren inguruko erabakia. Zehazki, Debagoieneko Mankomunitateak tamaina handiko hondakinen errefusaren "frakzio bat" probintziako erakunde horrek Zubietan daukan plantara eraman beharrean Juan Jose Arregi Etxabe enpresak Arrasateko Meatzerreka auzoan duen plantara bidaltzea izan da arazoaren iturburua.

Aipatutako frakzioaren parte dira astean behin kalean jasotzen diren traste zaharretatik bereizketa konplexua eta birziklatzeko aukera gutxi duten hondakinak; adibidez, bereizketa konplexua duten sofak, edo, Mankomunitatetik zehaztu duten moduan, "momentu honetan birziklatzeko interes ekonomikorik ez duten" koltxo, alfombra edo maleta zaharrak.

Ikuspuntu ezberdinak

GHK-k jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsoren arabera, Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Integralan (GHHKPO) zehaztutako hondakinen kudeaketa-eredua hausten du Mankomunitateak. "Hondakin horiek Zubietako plantara eramatea dago hitzartuta, hondakinen aprobetxamendu material eta energetiko handiagoa lortzen delako eta Ekonomia Zirkularra bultzatzen delako", argudiatu dute GHKtik.

Bide beretik, Arrasate, Bergara eta Antzuolako PSE-EEK ohar bateratua kaleratu dute, epaia-erkin "pozik" daudela adieraziz eta bailarako organoari epai judiziala betetzeko eskatuz –Gipuzkoako hondakinen eskuduntza PSE-EErena da–.

Mankomunitatea, ordea, ez dago ados sententziarekin: "GH-

Kri tokatzen zaio traste zaharrak kudeatzea, baina orain arte guk kudeatu ditugu eta ez da arazorik egon; olio zahararekin ere berdin egiten dugu", adierazi du Garazi Larreak, Mankomunitateko presidentea.

Zaldibarko zaborteia erortzean Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Saila mankomunitate ezberdinetako ingurumen teknikariek batu izanak GHKren postura aldaketan zerikusirik izan dezakeela gaineratu du: "Orduan galdetu ziguten ea Zaldibar ixteak arazorik sortzen zigun, eta guk ezetz erantzun genien; baina guri inork ez zigun esan traste zaharrak GHKri eman behar genizkionik".

Galera ekonomikoak

Izan ere, Mankomunitateak 2019ko irailetik helarazten ditu frakzio horiek Meatzerrekan dagoen hondakin-biltegira: "Joan

MANKOMUNITATEAK ARREGI ETXABEREKIN DU KONTRATUA, EZ DIOLAKO GHK-K EZER ESAN "ORAIN ARTE"



Juan Jose Arregi Etxabe enpresan, hondakinak tratatzen. J.J.A.E.

den irailean, beste bi urtez luzatu genuen Arregi Etxabe enpresarekin hondakinak bere plantan tratatzeko akordioa, eta orain, GHK-k kontratu hori mozteko eskatzen digu, traste zaharrak eurei bideratzeko; kontratua mozteagatik indemnitazioa ordaindu beharko genioke Arregi Etxaberi".

Gainera, epaiak 2020ko irailean 25az geroztik Kontsortzioari eta hura osatzen duten gainerako mankomunitateei eragin dizkien kalteak ordaintzera ere zigortu du Mankomunitatea, "frakzioak GHKra ez eramategatik". Ondorioz, denbora tarte horretan tratatutako tona bakoitzeko 182,42 euro ordaindu beharko lituzke, 2021eko prezioen arabera –Arregi Etxaben 72,72 euro ordaintzen dituzte–.

Eta garraio zein logistikarekin lotutako kostuak ere ekarriko lituzte epaia betetzeak, Elgoibarrera eraman beharko luketelako zama guztia, GHK-k bertan egiten baitu bilketa.

Sententzia errekurritzeko epe barruan dago Mankomunitatea, eta abokatuekin aztertzen ari da nola erantzun.



Urkuluko urtegiaren inguruko belardia, joan den domeka goizaldean. MIRARI ALTUBE

Izotz askoko eta euri gutxiko hilabetea izaten ari da bailaran

Prezipitazio handienak urtarilaren 9an izan ziren; tenperaturek behera egin dute urtea hasi zenetik

H.L. DEBAGOIENA

Neguan sartu berritan euri gutxi eta tenperatura hotzegirik gabeko urtaroa izango zela aurreikusituzten meteorologoen, eta iragarpen hori bete egin zen Gabonetan. Izan ere, urtarilaren 4ra arte ez zuen euririk egin; tenperaturei dagokionez, urteko lehen eguna izan da orain arteko beroena, 22,5 graduko tenperatura maximoak erregistratu baitziren bailaran; Arrasateko estazioan, zehazki.

Esan bezala, urte hasierako egunetan prezipitazioaren bat izan bazen ere, urtarilaren 9ra arte ez zuen euria gogotik egin. Egun hartan, orduko euri kopuru maximoek metro karratuko 66,4 litro markatu zuten Aretxabaletan, 78,9 Oñatin, 92,1 Arrasaten eta 98,7 Elorregin. Geroztik, euri gutxi egin du bailaran, hilaren 10ean, 11n eta 20an bakarrik.

Azken egunetan, izotza

Urteko lehen egunak tenperatura aldetik suabeak izan baziren ere, urtarilaren 13an erregistratu ziren zero azpiko lehen datuak Debagoienean. Bost egun jarraian egon ziren halako minimoak, gero epeldu egin zen giroa, joan den asteburura arte. Domeka, hilak 23, izan zen, oraingoan, urteko egunik hotzena, -3,9 gradu markatu baitzituen Arrasateko estazioak. Giro horrek izotza eragin du aste osoan zehar gaua eta goizaldea artean, tenperaturak ez baitira leundu.

Asteburura begira, domekara arte antzera jarraituko du eguraldiak, Euskalmeten iragarpenen arabera. Domekan lainoak agertuko dira zeruan eta tenperaturak igo egingo dira, eta minimoak zero gradu gainetik kokatu dira. Astelehen eta asteartean euria egin dezake, lehen aldiz azken hamar egunetan.

Bi debagoiendar Sortuk onartu berri duen zuzendaritzan

Joan den zapatuan itxi zuen Sortu alderdi subiranistak hirugarren kongresua Bilboko Bizkaia pilotalekuan, *Independentziarako indarra* leloa lagun.

Militanteen %89k babestu zuten Arkaitz Rodriguez buru izango duen zuzendaritza berria. 30 lagunek osatuko dute, eta tartean egongo dira Amaia Etxabe Goikoetxea (Arrasate, 1988)

eta Ibai Redondo Beitia (Bergara, 1981). Etxabek herri mugimenduko hainbat eragiletan parte hartu du, Bilgune Feministako kidea da eta gaur egun hezkuntza eremuan dago murgilduta; Redondo, bestalde, Euskal Filologian dago lizentziatua, eta euskalgintzan eta hezkuntza mugimenduan aritu izan da: EHE, Ikasle Abertzaleak, Euskal Herriak Bere Eskola, AEK, Aztikar, Euskararen Topagunea, Sortzen eta LAB erakundeetan jardun du, esate baterako.

Debagoiendarrak nagusi Sabino Arana sarrietan

Sabino Arana Fundazioak gizarteari ekarpenak egiten dituztenak omenduko ditu domekan, Bilbon. Tartean dira Luis Ugalde jesuita bergarra, Izaskun Arriaran aramaioarra presidente den 'Aita Mari' ontzia eta MUren gastronomia fakultatea

Jone Olabarria ARRASATE

Sei saritu izango dira aurten, eta, zuzenean edo zeharka, hirutan bailarak presentzia izango du; zehazki, Luis Ugalde jesuita bergarra, Izaskun Arriaran aramaioarra presidente den *Aita Mari* erreskate-ontzia eta Mondragon Unibertsitatearen gastronomia fakultate den Basque Culinary Center izango dira sarituetako hiru.

65 urte Venezuelen lanean

Oraindik Caracasen, baina Bergarako bide ekitear dela, saria "pozarren" jasoko duela azaldu dio GOIENari Luis Ugaldek: "Duela 65 urte Venezuelara etorri nintzenetik, harrera ezin hobea egin eta pozik bizi naiz hemen. Herrialde honen arazoei identifikatu naiz hasieratik eta herritar guztien oinarrizko eskubideen alde lan egiten dut. Sari hau jasota, moduren batean, nire sustraietara bueltan natorrela sentitzen dut. Nire lanarekin jarraitzeko indarra ematen dit aitortza honek".

"Ekintzaile sozial eta erreferente moral zein politiko" izateagatik sarituko du Sabino Arana Fundazioak jesuita bergarra: "Erregimen venezuelarraren bidegabekeriak salatzen aritu den ahotsetako bat da".



Luis Ugalde bergarra eta Izaskun Arriaran aramaioarra. GOIENA



Boluntarioei eskertze mezua

Izaskun Arriaran aramaioarra presidente den *Aita Mari* erreskate-ontziaz, berriz, "giza eskubideen alde egiten duen borroka nekazezina" azpimarratu dute Fundazioko arduradunek. "Eredu" gisa definitu dute gobernu kanpoko erakunde euskaldunak egiten duen lana.

Libiako uretan da une honetan *Aita Mari* ontzia, eta han dago Arriaran ere. Ez da sari banaketan egongo domekan, baina boluntario guztiei egingo dako lana eskertu nahi izan

die: "Ohore izugarria da halako saria jasotzea, baina hau ez litzateke posible gurekin lan egiten duten boluntario guztien laguntzarik gabe. Beraiei eskaini nahi diegu saria".

"Nazioarteko erreferente"

Basque Culinary Centerri dagokionez, hamar urtean "nazioarteko mailan erreferente" bihurtu izana azpimarratu du Fundazioak, eta "hezkuntzan, berrikuntzan, ikerketan eta promozio gastronomikoan" egiten duen lana goraiatu.

EKINTZAILTZA GARAIA



Garaia Parke Tecnologikoak Arrasaten duen eraikinetako bat. P.T.G.

Debagoieneko talentua lantzen jarraitzea, 2022rako asmoa

Bailarako enpresek "egoerara moldatzeko duten gaitasuna eta ekintzailtzarako grina" azpimarratu dute

J.O. ARRASATE

"Helburuak ezinbestekoak dira norabidea argitzeko eta bidean aurkituko ditugun bidegurutze desberdinetan erabakiak hartzen laguntzeko". Hala uste dute Garaia Parke Tecnologikoan, eta 2022. urterako finkatutako helburu eta konpromisoak lortzeko lanean dabilta, gizarte osoaren inplikazioa bilatuz.

Ekosistema berritzailea

Debagoieneko gizarte garapen eta garapen ekonomiko jasangarria bultzatzea misio dutela azaldu dute: "Urteroko helburuen artean daude enpresa komunitatea handitzea, ezagutza partekatzeko ekintza gehiago antolatu eta erakartzea eta eragile desberdinen arteko sareak sendotzen joatea".

Bailaran dagoen ekosistema ekintzaile eta berritzailea egoerara moldatuz joan dela azpi-

marratu dute: "Enpresak sortzen eta garatzen jarraitzen dute, nahiz eta baldintza gogorak bizi; pandemia, lehengaien gabezia, txipen krisialdia...".

Inguruan dituen enpresa guztien hazkundearen ondorioz, hazten jarraituko du Garaia Parke Tecnologikoak datozen hilabeteetan zehar, eta, ekintzailtza ekosistemaren parte bezala, behar berrietara azkartasunez egokitzen jarraitu gura dute, "zerbitzu eta teknologia berritzaileak aplikatuz".

Harremanak sendotu

"Enpresa eta ekintzaile mota eta tamaina guztiek" osatzen dute Garaia ekosistema, "berritzailea eta aberasgarria guztiontzat". "Ekintzailtza kultura sendotu, erakarri, talentua landu eta erakundeen, eragileen, enpresen eta profesionalen arteko erlazioak erroto behar dira".



abiātu

A-636 Beasain-Bergara

autobian ere bai,
askoz gehiago!

AURREZ AURREKO INFORMAZIOA

BIDEGIK A-636 autobideko bidesari berriari buruz informazioa emateko eta ABIATU gailua tramitatzeko gaitu dituen informazio-puntuak:

- BERGARA
Otsailak 9-18.
Ondartzan AP-1 (Goizez)
Udaletxean (Arratsaldez)
- ANTZUOLA
Otsailak 16. Udaletxean.

Ordutegia: 9.30-13.30 / 16.00-20.00



**ERRAZTASUN
GEHIAGO**



**AURREZPEN
HANDIAGO**



**INBERTSIO
HANDIAGO**

Informazio gehiago: info@bidegi.eus / 943 105 106 / GI-20 - KP/PK 14,800 - Arizeta-Usurbil



ZABALIK

GARIKOITZ ITURBE

Gurasotasuna eta inertziak

Testu hau idatzi aurretik, hamar testu hasi eta ezabatu ditut. Ezin zentratu nenbilen. Horrelako batean, semeetako batek berak zeren inguruan idatziko zuen proposamena bota dit. "Aita, zergatik ez duzu idazten umeak izan ostein zer sentitu duzun? Jendearren interesekoa izango da gaia".

12 urte izango dira laster aita lehen aldiz izan nintzenetik eta ia 10 bigarrenetik. Agian, momentuko sentsazioa da, baina zein azkar pasa zaizkidan urteak!

Egia da fase ezberdinak izan dituela aitatasunak. Lanketa ezberdinak egin behar izan ditut guraso izatea erabaki genuenetik. Ikusten nuen gai ezberdinak landu ezean jendarte honetan txertatuta dauden hainbat jokabide erreproduzitzeko joera izan ahal nuela. Argi nuen niri eta

GELDITU ETA GAUZAK BIRPLANTEATZEA TOKATZEN ZAIT, BETIKOAN EZ JAUSTEKO

bikotekideari ez zaigula berdina eskatzen. Emakumeak zaintza papera goitik behera bete behar du hasieratik, eta nik egunerokoan jarraitu dezaket. Umeen hazkuntzak eta horren aurrean hartu beharreko

paperak ere tentsio uneak sortu ditzake, esperotako papera bete beharrean guraso bezala planteamendu ezberdinak egiten baditugu.

Aita bezala, bi semeek nire ni ezberdinak ezagutzeko tenorera eramaten naute. Jarrera eta ekintza ezberdinek barruko ni xamurra edo ni munstroa aterarazten didate.

Bidea egiten jarraitzen dut. Ez dizuet gezurrik esango, tentsio uneak ere bizi izan ditut momentu ezberdinetan. Baina honi ez diot kutsu negatiborik emango, garrantzitsuak izan baitira nire eboluziorako. Aita bezala zein gizon eta pertsona bezala. Hala ere, momentu oro, gelditu eta gauzak birplanteatzea tokatzen zait, betikoan ez jausteko. Jarraitu nahi dut gurasotasun ereduari punta ateratzeko, maskulinitatea beste modu batera bizitzen jarraitzeko.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



HANDIK ETA HEMENDIK

Gu zergatik ez?

AITZOL ATUTXA 'TTAP'-EN ARGITARATUA

Hortxe jarraitzen dugu enegarren olatuaren gainean dantzan, eta, hala ere, ezer gutxi ikasi dugu. (...)

Edozein gudu-zelaitan bezala, hemen ere ahulenak ateratzen dira galtzaile. Birusaren aurrean indartsuenak izan direnak izan dira murrizketa gehien jaso dituztenak. Ez naiz sartuko santomasak ere aire librean izanda bertan behera utzi izanaren erabakiarekin... (...) Umeen inguruan ari naiz oraingoan.

Beraiek izan dira gutxien kexatu eta neurriak hobekien

bete dituztenak, beraiek izan dira azkenak txertoa jasotzeko orduan, eta, hala ere, beraiek jasan dituzte egunerokotasunean ondoriorik larrienak.

Etxeko txikiak galdetu dit ea umeen Gabonetako parkera joango garen, eta, tamalez, bertan behera geratu dela esan behar izan diot. Ekitaldia barrualdean denez, ezin zela segurtasunez aurrera eraman; berak ez du ulertu, aurreko astean abeslari baten kontzertua ospatu baitzuten 10.000 lagunek toki berean.

Mari Domingiri eta Olentzerori ongietorria egitera joan behar dugula bururatu zaio, ea horrela urte osoko bihurrikeriak leuntzen

dituen. Bikote horrek ezin duela hutsik egin eta kale gorrian izaten denez pandemiak ez duela bertan behera utziko. Nola azaldu, ordea, aurten Arriaga antzokiaren barrualdean izango dela eta beraiek ikusteko ordaintzea egokituko zaiela zortedunei, sarrerak bi ordutan saldu baitira.

Musukoa kanpoaldean derrigortu dute berriz ere, baina tabernara sartutakoan kendu daitekeela azaldu diot. Ez du ulertu, ezta nik ere. Eta horrela bukatu dugu hizketaldia. "Aitatxo, zu zergatik joan zaitezke San Mamesera, eta umeentzat egiten diren ekintzetara gu zergatik ez?".

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria
Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak
Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano, Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza.
Publizitatea
Mireia Larrañaga,
Ziortza Martín,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

BERBAGAI

"Kargu-hartzea ohorea da niretzat, ilusioz nago"

LEIRE MUGERZA MONDRAGONEKO KONGRESUKO ETA BATZORDE IRAUNKORREKO PRESIDENTE BERRIA

Imanol Beloki Unamuno DEBAGOIENA Leire Mugerza (Mutriku, 1976) Mondragon Taldeko Kongresuko eta Batzorde Iraunkorreko presidente izendatu zuten joan den egubakoitzean. Kargu-hartzea ohorea izan dela adierazi du, eta, Batzorde Iraunkorra ezagutzen duen arren, beste eginkizun bat izango du hemendik aurrera.

Nondik zatoz, zein izan da zure ibilbide profesionala?

Ez da inon agertzen, baina hiru semetxoren ama naiz. Ingeniaritza Mekanikoko ikasketak egin nituen Arrasaten, Mondragon Unibertsitatean, eta 1998an Eika (Etxebarria, Bizkaia) hasi nuen nire ibilbide profesionala. Bertan, proiektua egin nuen eta bazkide egin ninduten; beti esaten dudana moduan, bertan egin nintzen kooperatibista. Eika Taldeko Kalitate eta Sistemetakozuzendaritza eraman nuen, eta Kontseilu Errektoreko presidentea ere



Leire Mugerza, kargua hartu berri. MONDRAGON KORPORAZIOA

izan nintzen. Gero, 2008an, Lea Artibai ikastetxea kooperatiban jarraitu nuen jardun profesionala, eta 2012an, ikastetxeko zereginekin batera, Eroski kooperatibako Kontseilu

Errektoreak bertako presidente izendatu ninduen. Urte berean, Batzorde Iraunkorrean parte hartzen hasi nintzen, eta bi funtzio horiekin aritu naiz, urtarrilaren 14an Batzorde

Iraunkorreko presidente izendatu nauten arte. **Javier Goienetxea ordezkatu duzu; nola hartu duzu kargua?** Ohore handiz, arrazoi askorengatik. Aukeratu nauten pertsonak Batzorde Iraunkorreko kideak dira, eta beraiek ordezkatzeko dutenagatik. Korporazioko dibisio guztietako ordezkariak daude, eta niretzako garrantzitsua da hori. Javier Goienetxea aipatu duzu, bera eta baita aurretik egon direnak; funtzio honetan aritutakoak eredugarriak dira niretzat.

Zeintzuk izango dira zure funtzioak kargu berrian?

Lurreratu berri egon arren, Batzorde Iraunkorrean ia hamar urte daramatzat, eta badakit zein lan egiten diren, nola lantzen diren, baina orain hartuko dudana papera ezberdina izango da. Bakoitzari entzun, gaiak taldean landu, proposamenak integratu... Saiatuko naiz batzorde horretatik eta kongresutik denontzat hobeagoa dena egiten; jarrera hori lantzen.

Etorkizunera begira zein erronka izango dituzu?

Politika sozioenpresariala finkatzean, 2021-2024rako ditugun erronkei erantzuna emateko zazpi ardatz ezarri

genituen. Konpromisoa eta identitate kooperatiba, hau da, kooperatiba balioak lantzea, jasangarritasuna lantzea mundu hobeagoa egiteko, etorkizuneko negozioez hitz egitea legatu hobeagoa uzteko gure ondorengoei, malgutasunaz eta egokitzeaz erantzun azkarragoak emateko, transformazio digitala mundu mailan lankidetzan jarraitzeko, batzuek biderkatzea nahi duelako esan, eta talentuak erakarri eta barruan duguna garatzea. Gure helburua oinarri hauen jarraipena egitea izango da. **Kargu honetan, organoa eratu zenetik lehen emakumea zara. Azpimarragarria datu hori, ezta?** Pertsonalki emozio izugarria ematen dit, eta nik bizi izan dudana errealitate bati ikusgarritasuna ematen dio. Enpresa ezberdinetan aritu naiz, arlo ezberdinetan, industrian, banaketan, ezagutzan, eta guztietan berdintasuna bizi izan dut. **Kooperatibismoa gaur egun nola dago?**

Pandemia honetan eredugarria izan da kooperatibek egoerari eman dioten erantzuna. Balio horiek behar ditu gizarteak, legatu hobeagoa uzteko, eta horiek landu behar ditugu.

ITURRI ONETIK

Arrasate Musikal eta Donostiako Orfeoia, batera

Arrasate Musikalek 50 urte beteko ditu aurten eta modu berezian ospatu nahi ditu urrezko ezteiak. Uztailaren 2an emango dio hasiera 2023ko udara arte iraungo duen ospakizun ikasturteari. Eta, hain justu ere, uztaileko lehen zapatu horretarako kontzertu berezia antolatu dute Uarkape pilotalekuan: Donostiako Orfeoia gonbidatu berezi moduan –izendun beste hainbat bakarlarirekin– eta Arrasate Musikaleko Banda izango dira agertokian. *Carmina Burana* izango da errepertorioko izarra.

ALBISTE IZAN ZEN



2010-01-22

Des-kontrol taldeari eraso Barakaldon

Arrasateko Des-kontrol taldeko kideei eraso egin zieten Barakaldon, San Vicente auzoko jailetan. Txosnetan eman behar zuten kontzertuaren aurretik, 50 bat ezezagunek burdinazko barra, botila eta ukabil amerikarrekin bortizki eraso zieten talde arrasatearreko bost kideei. Zauri eta kolpe handiekin ospitalean amaitu zuten, erasoaren ondorioz sortutako puntuak, ubeldurak eta zauriak sendatzeko.

HAU BE BADOGU!

Osasungintza publikoa defendatzeko aldarria

Osasungintza publikoa defendatzeko traolak izan dira erabilienak Twitterren:

@OihanaLlorente: "Gaur ezin izan dugu kalean osasungintza publikoa defendatu gure alabak haren premia izan duelako egunotan. Mila esker profesionaltasunez eta goxotasunez artatu gaituzuen guztioi! #zaintza #osasuna".

@Joanesgartzia: "Donostian osasun publikoaren defentsan, manifestazio jendetsuan parte hartu dugun herritarrok argi dugu. Ez! Ez! Ez! Murrizketarik ez!".

@goizaldelibre: "Osasuna ezin da merkantilizatu".

D2030: ELKARRIZKETA

Miren Arregi ARRASATE

Juan Jose Ibarretxe lehendakariak euskal gizartearekiko duen konpromisoa ez zen bukatu Jaurilaritzako Lehendakari izateari utzi zionean. Gaur egun, giza garapen iraunkorraren lanean dihardu, ALC Fundazioaren baitan dituen egitekoetatik.

Agirre Lehendakaria Centerrek eraldaketa sozioekonomikoaren euskal esperientzian jarri du begia sorreratik. Zergatik eta zertarako?

Agirre Lehendakaria Centerrek euskal eraldaketaren zergatia ikertzen du, nola gertatu ziren alde zurreratik horren desberdinak diruditen eraldaketak: kooperatibagintza, euskararen berreskuratzea, euskal gastronomiaren eraldaketa, diru-sarrerak bermatzeko errenta... Erabaki horien guztien atzean, gure ustez, balio-sistema bera dago, eraldaketa horien artean partekatzen den balio-sistema. Horregatik diogu kultura dela gakoa, edozein eraldaketaren oinarrian kultur osagaia dagoela, komunitate horren kultura.

Zein ekarpen egiten dio eta egin gura dio ALCK gizarteari? Nola?

Agirre Lehendakaria Centerrek euskal eraldaketaren esperientziatik ikasitakoa, hortik erazutako ezagutza egungo eraldaketa sustatzeko prozesuen zerbitzura jartzen du. Funtsean, uste dugu, eraldaketa posible izateko komunitate horren oinarrian dauden eraldaketarako jarrerak, pertzepzioak, ezagutu behar ditugula, ditugun aldaketarako balaztak eta oztipoak ezagutu eta hortik eraiki dezagun.

Zer-nolako proiektuetan diharduzue lanean, esaterako?

Gure lana Berrikuntza Irekiko Plataformen inguruan egituratzen da. Plataforma horiek, kultur oinarritik, tokiko eraldaketa bilatzen dute, eragile askoren elkarlanaren bidez maila askotako aldaketa-ekimenak proposatzeko. Adibidez, Euskal Herrian eskualdeetako eraldaketa-prozesuetan gabiltza, Debagoiena 2030

"Euskal gizartearekin zor morala dut; dena eman dit, eta, hortaz, dena ematen diot"

JUAN JOSE IBARRETXE AGIRRE LEHENDAKARIA CENTER FUNDAZIOKO PRESIDENTEA
Agirre Lehendakaria Center-ek komunitate eraldaketa prozesuak sustatzen ditu; Juan Jose Ibarretxe Lehendakaria da ikasketa-zentroko presidentea.



Juan Jose Ibarretxe. AGIRRE LEHENDAKARIA CENTER

prozesuan, Goierri abiatu den eskualde-eraldaketa prozesuan eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Etorkizuna Eraikitzen barruan kokatzen den trantsizio ekologikoa sustatzeko esperimentazio-

prozesuan. Baditugu ere zaintzaren eredu berri bat sustatu nahi duten esperientziak. Nazioartean plataforma askotan gabiltza; horietako asko, Nazio Batuen Garapeneko Erakundearekin

elkarlanean: Thailandian, Pakistanen, Bangladeshen, Kolonbian...

ALC Debagoiena 2030eko kide da. Zergatik egiten duzue bat ekimenaren balioekin?

D2030ek eskualdearen eraldaketa bultzatu nahi du, Debagoiena jasangarriagorantz pausoak emateko. Ekimenaren berezitasuna egiteko moduan, prozesuan, datza: herritar eta eragileak entzun eta aintzat hartzen ditu, aldaketarako ekimenak eragileek elkarrekin sortzen dituzte, ekimen horien osotasuna eta beraien arteko konexioak bilatzen saiatzen da inpaktua areagotzeko, gobernantza partekatua proposatzen du... Gure ustez, egungo errealitate konplexuaren aurrean hori da bidea, eta bide horretan esperientzatzen eta ikasten joan beharra dugu. Laburbilduz, D2030en zer eta nola partekatzen ditugu.

Debagoiena klimatikoki neutro, adimentsu eta aukera berdintasunean oinarritua lortzeko helburuan ekarpena egitea hartu du bere gain D2030 ekimenak. Nola baloratzen duzu norabide hori hartu izana?

Debagoienaren helburu edo xedeari dagokionez, guztiz bat egiten dugu; eraldaketa termino ekonomiko hutsetatik harago ulertu behar dela uste dugu, klimatikoki neutroaren xedearen atzean iraunkortasunaren erronka dugu, zalantzarik gabe atzeraezina dena, eta

adimentsu eta aukera berdintasunaren atzean pertsonak daude, eta bat egiten dugu ere pertsonak erdigunean jartzearen ideiarekin.

Zein uste duzu dela Debagoienaren balio indartsuena helburu horiek lortzeko bidean?

Komunitatea, eragile-aniztasuna. Debagoiena 2030ek Debagoieneko eragile asko biltzen ditu: udalak, enpresak, elkarrekin, komunikabideak, unibertsitatea... Debagoienak egindako ibilbidean, zailtasunak zailtasun eta erronka potoloak izanda ere, komunitate bat eratu du eta gune partekatua eraiki ditu, konfiantzak eta elkar ezagutzak eraikitzen joan da.

Uste duzu gizarte gisa norabide egokian dihardugula?

Uste dut orekatuagoak izan behar dugula. Batzuetan, onenak gabela pentsatzen dugu; eta hurrengo egunean, aldiz, txarrenak gabela. Ez da ez bata ez bestea. Gudan konfiantza handiagoa eduki behar dugu, gai gara edozer gai politiko, sozial zein ekonomikori buruz pentsatzeko, eta gauzatzeko.

Zuk zeuk lehendakari izan ondoren ere gizartegintzari zure ekarpena egiten jarraitzea erabaki duzu; zergatik?

Euskal gizartearekin zor morala daukadalako. Dena eman dit, eta, hortaz, dena ematen diot.

Zer ematen dizu zuri giza garapen iraunkorraren alde egiten duzun lanak?

Gure mundua injustua da, desberdintasunez bete. Bada, merezi al du mundu bidegabe batean bizi izatea? Zertarako, aldatzeko ez bada?

"KOMUNITATE BATEN KULTURA DAGO EDOZEIN ERALDAKETAREN OINARRIAN"

"DEBAGOIENA 2030EK KOMUNITATE BAT ERATU DU ETA GUNE PARTEKATUAK ERAIKI DITU"

Elgetan pediatria zerbitzua nahi dugu

AITOR GANTXEGI OLASOLO

ELGETA

Debagoieneko ESiren pazienteentzako arreta-zerbitzura berriki 157 elgetarrok sinatutako idatzi bat bideratu dugu, non gure haserrea eta nekea adierazten ditugun, Elgetako pediatria zerbitzua dela eta.

Alde batetik, ia urtebete da pediatria zerbitzurik ez dagoela Elgetan; beraz, gure seme-alabekin Bergarara joan behar dugu zerbitzu medikua jasotzera, horrek sortzen dizkigun kontziliazio eta familia antolakuntza arazoekin eta kotxea hartzeak dakarren arriskuarekin.

Bestalde, ia urtebete da Bergarako anbulatorioan pediatria titularrak ez dagoela, eta astero mediku ezberdin batek artatzen du. Honek zerbitzu penagarria izatea eragiten du, pediatrik ez dituzte umeak ezagutzen eta ezin da jarraipen egokirik egin.

Horregatik, Osakidetzari eskatzen diogu egoera hau lehenbailehen konpon dezala. Erantzunaren zain gelditzen gara.

Union Cerrajera eta Kulturola

AITOR ITURRIAGA BAKARTE

ARRASATE

Parte hartu dut Kulturola eraikina ezagutzeko antolatutako diren bisita gidatuetako batean. Lan ona egin da

bertan. Zoragarri gelditu da. Zorionak Arrasateko Udalari, arkitektoei eta obran aritu diren langileei. Pozgarria da jakitea Arrasateko historian hain garrantzitsua izan den etxe horrek jarraipen aberatsa izango duela etorkizunean, industria-produkzioetik kultura-produkzioara salto eginez. Merezki izan zuen eraikin hori salbatzeko urteetan burutu genuen lanak –1994tik 2004ra arte–.

Baina hankamotz gelditu da, defizit ikaragarri batekin: Memoria Historikoaren ikuspegitik injustizia handia da jatorrizko izena ez mantentzea. Normala iruditzen zaigu Donostian eta Malagan *Tabakalera* izena gordetzea, Erreterian *Niessen*, Bilbon *Euskalduna* eta *Artiach*, Eibarren *Alfa*, Madrilen *Matadero*... Guztiek jarduera ekonomikoa izan zuten eta guztiak kulturara bideratu dira. Zein bekatu du gure Union Cerrajerak bere izena gorde ez dezagun? Gainera, tokia dago eraikinaren fatxadaren hori burutzeko: *Kulturola* izenaren

gainean, erlojuaren ezkerrean *Union* ipini daiteke eta eskuman *Cerrajera*. Mesedez, borobildu ezazue egindako lana, eraikinak eta gure herriaren historiak merezi duten bezala, eta ofizialdu ezazue izen osoa.

Landareen inteligentzia

JOSU GARITONANDIA

'OPARITU ZUHAITZ BAT' EGITASMOAREN ARDURADUNA BERGARA

Stefano Mancuso botanikari italiarraren iritziz, landareek inteligentzia dute, ulertuta inteligentzia dela arazoak gainditzeko duten ahalmena.

Landareen erreinua Lurra planetan dagoen bizitzaren %81,80 da; meritu handiko izakiak dira. Kontuan izanda ezin direla mugitu, oso ondo egokitu dira ingurura, eta garrantzitsuena da euren ingurua hobetzen dutela bizitza mota guztiak garatu daitezen.

Hortxe guretzako ikasgaia; gure ustez, oso argiak gara,

baina, Glasgown ikusi den moduan, ez gara gauza gizaki bezala ganorazko pausorik emateko.

Sar ezazu landare bat zure bizitzan, lan gutxi eta etekin asko ematen dute bizitza mota guztiendako.

"Haurrak, ikas zazute euskaraz mintzatzen"

ERNESTO LEITZA URRESTARAZU

BAKAIKU (NAFARROA)

Haurrak eta gazteak zarete euskararen etorkizuna –helduok, ez–. Euskaraz mintza zaitezten bidali zaituztegu D eredura –gogoz batzuek, badaezpada beste batzuek–. Ikastetxean, haur euskaldunak sakabanatuko zaituztete erdaldunen artean, "euskararen erabilera hedatzeko". Frakaso. Konturatuko zarete hobe dela euskara ezkatatu, ikaskide erdaltzaleen isekak ekiditeko. Hala, euskara baztertuko duzue, eta ezin ikaskide erdaldunei hizkuntza ikasten lagundu. Askok kolpe latza hartuko duzue euskaraz soilik irakasleak egiten duela ikustean. Lasai, denborak osatzen du dena –orbainak orbain–.

Haur euskaldunak sakabanatzea ohitura bihurtu da eta ohiturak sakratuak dira, heldu euskaradun askok ere beste helduekin erdaraz jardutea bezala. Hori bai, zakurrari/haurrei euskaraz!

Euskarazko ETBn ez dago zuentzat ezer, baina

espainolezkoan bai! Netflixen-eta euskaraz zero, baina erdaraz ziento. Mugikorrean berdin. Euskarazko musika entzuteko Belexera jo beharko, EiTBN gutxitxo. Kiosko eta liburu-denda gehienetan euskarazko komiki edo libururik gutxi, erdarazko itsasoan galdurik. Saltoki ia guztietan dena erdaraz, euskaldunok bigarren mailako baikara gure etxean.

Zaila dago euskaraz elikatzea, baina heldu askok eta euskalgintzak berak euskaraz egiteko eskatuko dizuegu, eta urtean hiruzpalau ekitaldi handi antolatuko "euskararen alde". Txapa polit askoak dauzkagu euskaraz egitera edo entzuteran animatuz. Ez zarete kexatuko gero!

Baina euskaraz bizitza ezinezkoa bada, jardun lasai "aniztasunaren" alde espainolez edo frantsesez, Euskal Herrian "aniztasuna" eta "kulturartekotasuna" esaten baitzaio sahararrek, portugaldarrek, txinatarrek edota euskaldunek espainolez hemen eta frantsesez Iparraldean egiteari.

Badira "erradikal" batzuk "aniztasunari" akulturazioa, asimilazioa, edo menpekotasuna esaten diotenak itsusi, baina lasai, gehienok "kulturartezaleak" gara –espainolez–! Eta erdaraz bada ere, beti egin dezakezue "ongi pilotan eta oneski dantzatzen".

Salaketa-gutuna
Eskertza-gutuna
Eskari-gutuna

Idatzi zure gutuna eta bidali gutunak@goiena.eus helbidera!

Erantzun-gutuna
Aldarrikapen-gutuna
Kexa-gutuna

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefona eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otolara Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

HAUXE BAI JENEROA!

GARBIÑE UBEDA



Zaldiak, terapia gisa Zabolainen

lazko irailtik martxan den Zabolaingo zalditegian, zaldian ibiltzeko ikastaroez gain, hainbat terapia mota eskaintzen dituzte, arlo emozionala zein fisikoa lantzea helburu

Eneko Azurmendi ARRASATE

Zaldiekin egiten den terapia gaur egun dauden bestelako terapien osagarria da. Arlo horretan, 2012az geroztik Oñatiko Pottokaleku egiten ari den moduan, iazko irailaren 4a ezker martxan den Gesalibar auzoko Zabolain zalditegiak ere badu erronka hori. "Zaldia elementu terapeutiko gisa erabilia, askotariko gaitasunak dituzten pertsonen bizitza kalitatea hobetzeko asmoz lan egiten dugu", adierazi du Zabolaingo zaldi-terapiako irakasle Goizane Arcek.

Inguru naturalean lan egitearen garrantzia nabarmendu du irakasleak, naturarekin eta zaldiekin harreman estua izatearena. "Horrek ahalbidetzen du naturarekin edo animaliekin inolako kontakturik ez duten pertsonak esperientzia berriak bizitzea". Hori dela-eta, bereziki aniztasun funtzionala duten pertsonekin lan egiten duten arren, zaldiekin eta naturarekin "kontaktu berezia" izan nahi duen edozein pertsonarentzat zuzenduta dagoela gaineratu du.


Hipoterapia eta ekinoterapia

Zaldiekin egiten diren terapiak edota ekintzak bi alorretan bereizten dituzte: hipoterapia eta zaldiketa terapeutikoa, ekinoterapia izenez ere ezaguna dena. Zabolaingo zalditegian biak erabiltzen dituzte.

Hipoterapia ahalmen fisiko eta kognitiboan urritasuna duten pertsonen zuzenduta dago. Izan ere, zaldiaren mugimenduz eta bere gorputzarekin igortzen duen beroaz baliatzen den terapia mota da. "Zaldiak, mugitzean, pelbisaren bitartez, inpultso erritmikoak transmititzen dizkio gainean doanaren gorputz enborrari -90-110 inpultso minutuko-. Mugimendu tridimentsio-

nala da, hainbat zentzutan: aurrera eta atzera, gora eta behera, eta ezkerreko eta eskuinera. Halaber, alboranzko desplazamendu eta errotazioak ere gertatzen dira, eta gizakiaren lokomozio patroia imitatzen du", dio Arcek. Horrek dakar arlo fisikoan, psikomotorrean, sensorialean eta fisiologikoan onurak izatea.

Zaldiketa terapeutikoa, bestalde, zaldiez lagunduriko ekintzak erabiltzen ditu, erabiltzaileen arlo sozialean, emozionalean, fisikoan eta kognitiboan onurak eta aurrerapenak izateko. "Zaldiek gaitasun handia dute gizakion emozioak irakurtzeko eta oso animalia sentiberak dira. Beraz, asko laguntzen dute emozioak mugitzen. Hala, pertsona batek zaldiarekin konexioa lortzen duenean, pertsona horri ere sekulako boterea ematean



Uliazpiko paziente bat, zaldiarekin.

BAKARKAKO SAIOEZ GAIN, ERAKUNDEEKIN ERE EGITEN DUTE LAN; ESATERAKO, ULIAZPI ZENTROAREKIN

dio, autoestimua, konfiantza eta abar". Terapia mota hau aproposa da garun paralisia, TDAH, TEA, garapen motorren atzerapena, askotariko sindromeak -West, Williams, Down...-, autoestimua arazoak eta abar dituzten pertsonentzat.

Saioak, banaka zein taldeka

Saioak banakakoak zein taldekakoak izan ohi dira. Antton Unanue aretxabaletarra da bakarkako erabiltzaileetako bat, eta aitortu du lasaitu egiten dela zaldiekin egotean. "Serena zaldia da bereziena niretzako. Ez dakit nola, baina harreman berezi bat sortu zen bera eta nire artean. Izan ere, bera lasai egoten da nirekin eta ni asko lasaitzen nau berarekin egoteak. Hala, terapia egiten dut berarekin. Iraila ezkerreko etortzen naiz Zabolainera, baina betidanik izan dut zaldiekiko lotura estua, 12 urterekin hasi nintzen-eta zaldi gainean ibiltzen".

Uliazpitik Zabolainera

Aniztasun funtzionala duten pertsonen zuzenduta dagoen erakundeekin elkarlanean aritzea ere bada helburuetako bat, Judy Biallostowski zalditegiko arduradunaren esanetan, eta dagoeneko ari dira horietako batzuekin lanean. Bergarako Uliazpi erakundea da adibideetako bat. Erakunde horretan desgaitasun intelektualak dutenekin egiten dute lan eta bi asteetan behin joaten dira Zabolainera, bospasei pertsona taldeetan. "Beste zalditegi batzuetan ibili izan gara, baina azkenaldikoak urrun geratzen zitzaizkigun. Iaz, ordea, Zabolaingo zalditegiaren berri izan genuen, eta, ezagutzera joan ginenean, izugarri gustatu zitzaizkigun. Gainera, oso adeitsu



Barruko pista estalia. Herbehereetan, esaterako, oso ohikoak dira halakoak.



Gaur-gaurkoz, hamalau zaldi dituzte Zabolaingo zalditegian.

Hipoterapiaren onurak

Goizane Arce zaldi-terapiako irakasleak nabarmendu du Zabolainen hipoterapia eta zaldiketa terapeutikoa lantzen dituztela, ahalmen fisiko eta kognitiboan urritasuna duten pertsonen zuzenduta, eta bataren zein bestearen onurak asko direla gaineratu du. Hipoterapiaren onurak hainbat arlotan nabari daitezke:

Arlo fisikoa

Muskulatura indartzea, tonu muskularraren kontrola, espasizitatea gutxitzea, lokomozio patroia mugimendua grabatzea eta automatizatzea, lateralitatea hobetzea, arnas aparatua estimulatzea, integrazio sensoriala garatzea eta abar.

Arlo psikomotorra

Gorputz enborra eta buruaren egonkortzea, gorputzeko oreka osotasunean garatzea, gorputz simetriaren garatzea, elastikotasuna hobekuntza eta abar.

Arlo soziala

Komunikazioaren garapena, arreta hobetzea, autoestimuan eta norbere buruarekiko konfiantza onurak, jarrera arduratsuaren garapena, harreman kooperatiboak lantzea...

Arlo fisiologikoa

Arnas aparatuen estimulazioa eta zirkulazio sistemaren estimulazioa.



Barruko pistaren ondoan egongela bat ere badaukate Zabolaingo zalditegian. ARGAZKIAK: XABI URZELAI



Judy Biallosterski eta Goizane Arce, zaldi gainean doan bezeroarekin, kanpoan.

Zaldiketa terapeutikoaren onurak

Arlo emozionala eta psikologikoa

Norbere buruarekiko konfiantza indartzea, inguruan dagoenarekiko interesa piztea edota interesa handitzea, norberaren bizitzarekiko maitasuna handitzea, arrisku egoeren aurrean erreakzionatzeko duten gaitasunaren garapena, pazientziaren garapena, kontrol emozionala eta autodisiplina moduko jarreraren barneratzea, inpulsiuaren kontrola handitzea...

Arlo fisikoa

Giharrak indartzea, oreka ontzea, koordinazioa eta erreakzio abiadura hobetzea...

Arlo soziala

Lagunak egitea, animaliekiko eta naturarekiko errespetua garatzea, esperientzia desberdinak bizi eta haiekin aberastea...

Arlo kognitiboa

Oinarritzko trebetasun kognitiboak garatzea –memoria, arreta, plangintza...–, kontzeptu matematikoen barneratzea, begi-esku koordinazioaren hobekuntza, espazioan kokatzeko trebetasunak garatzea...

Arlo komunikatiboa

Komunikazioa eta hitzen artikulazioa hobetzea –giharren erlaxazioari esker espasmitate gutxitzen da ahoko giharrak ere erlaxatzen direlarik–, hiztegia aberastea...

hartu gintuzten, eta haiekin lanean hasi ginen. Gure pazientek zaldiekin harreman bereziak egin dituzte, garbitu egiten dituzte eta zaldi gainean ere aritzen dira batzuk. Oso gustura ari dira, aurpegian nabaritzen zaie hori, eta gu ere oso pozik gaude, alde horretatik", azaldu du Alejandra Farak, Bergarako Uliazpi zentroko arduradunak.

Aita Mennikoak, hasteko zain

Bestalde, Aita Menni ospitalearekin ere hastekoak dira lanean, baina, pandemia dela-eta, ezin izan dituzte saioak abiatu. "Etena ditugu halako ekintza guztiak", dio Amaia Bolunburuk, Aita Menniko psikologo eta errehabilitazio zerbitzuko arduradunak. Gaineratu du desgaitasun intelektuala dutenez gain buru osasuneko arazoak dituztenendako aproposa izan daitekeela zaldiekin egindako terapia: "Frogatuta dago animalien bitartez gehiago estimulatu direla pazienteak hitz eginez baino". Bestalde, aisialdirako ere egokia izango dela dio. "Paziente askok denbora luzea daramate ospitalean sartuta, eta halako irteerak egitea onuragarria izan daiteke

haientzat". Hala, zain daude osasun egoera hobetu eta Zabolainera joaten hasteko. "Gogotsu gaude, bai gu eta baita pazientek ere. Haiek ere galdetzen digute noiz hasiko garen".

Azkenik, Gipuzkoan adimen eta ahalmen desgaitasuna dutenei lan-aukerak sortzeko helburua duen Gureak enpresa ere aztertzen ari da Zabolaingo zalditegiarekin elkarlanerako aukerarik dagoen.

Umeentzako saioak ere bai

6 eta 12 urte arteko haurrentzako heziketa emozionala ere lantzen dute Zabolainen, hilean behin, zapatuetan. "Trebetasun emozionalak lantzeko jolasen eta zaldien maneiuaren bitartez, zaldien izaera hobeto ulertzeaz gain, hainbat balio lantzen ditugu: konfiantza, errespetua, talde-lana, autoestimua, emozioak eta abar".

BARRUKO PISTA ESTALIA DAUKAN ZALDITEGI BAKARRETKO DA EUSKAL HERRIAN

Istripu baten harira sortua

Esan moduan, Judy Biallosterski da zalditegiko arduraduna, eta bere ekimenez sortu du proiektua: "1993an, nire senarrak auto istripu bat izan zuen eta garuna kaltetuta gelditu zitzaion. Hori dela-eta, Madrildik Arrasatera etorri ginen, Aita Menni ospitalean artatu zezaten. Medikuek aholkatu ziguten elkarre bat sortzea, eta hainbat lagunek Euskadiko kalte zerebralaren elkarre bat sortu genuen, baita EAEko probintzia bakoitzean ere. Kongresu batean, zalditegiari buruzko proiektu bat ezagutu nuen eta asko gustatu zitzaidan. Beraz, pentsatu nuen, zaldiekin daukadan esperientzia eta haiekiko dudaren zalesuna uztertuta, terapia hori eskaini eta jende askori lagun niezaiokeela", dio. Hasiera batean, elkartetik sustatzea gura izan zuen, baina, zaila zela ikusita, bere kabuz egin zuen aurrera.

Instalazioak ere aproposak ditu horretarako, barruko pista estalia delako. "Ni Herbehereetako naiz, eta han bai, baina Euskal Herrian ez dut halako zalditegirik ezagutzen. Hemen go klimarekin, funtsezkoa da".

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

arbolapeta

arrasate

beinke

Ahalduntzea sakon lantzeko egitaraua, prest

Arrasateko Emakume Txokoaren urteko lehen sei hilekoa martxan dago jada. Guztira, hamar ikastaro eta zazpi tailer egingo dituzte. Era berean, bi gune iraunkor egongo dira: irakurketa feministen txokoa eta emakume migratuendako topalekua

Hasier Larrea ARRASATE

Nik sinisketan dotzut irakurraldi kolektiboarekin amaitu zuten ikasturtea iaz Emakume Txokoko erabiltzaileek, eta, aitzakia hori hartuta, lelo bera jarri diote aurtengo lehen sei hilekoaren hasiera ekitaldiari. Otsailaren 18an izango da hori: "Helburua gugana jende piloia etortzea izango da; ekitaldian, iazko irakurraldi kolektiboaren bideoa aurkezteaz gain, elkarrizketak eta musika-poesia emanaldia egingo ditugu", adierazi du Udaleko Berdintasun Saileko Joana Sanchezek.

2022an zehar bi plangintza nagusi lantzen jarraituko dute Uarkapeko eraikinean, "emakumeen ahalduntzerako, berdintasunean eragiteko eta eraldaketa feminista sustatzeko" ahaleginean. Beraz, emakumei zuzendutako Jabetze Eskola egongo da, alde batetik, eta egitarau orokorra, bestetik, "herritarrek berdintasunean sentsibilizatzeko". Jabetza Eskolaren garrantziari buruz horrela mintzatu da Esther Lizarralde, Emakume Txokoko dinamizatzailea: "Espazio horrekin parte hartze soziopolitiko ahalbideratu, feminismora hurbildu eta sareak sortu nahi ditugu, arteari eta sormenari tartea eskainita".

Martxoaren 8aren bueltan egitarau mardula antolatuko dute la ere aurreratu dute. Horren harira, gogoratu dute M8ko kartel lehiaketa zabalik dagoela, Bell Hooks-en *Feminismoa denon kontua da* leloarekin. Lanak aurkezteko epea otsailaren 14ra arte dago zabalik.

URTARRILAREN 31TIK OTSAILAREN 4RA ARTE EGONGO DA ZABALIK IZEN-EMATEA



Esther Lizarralde eta Johanna Sanchez, aurtengo egitaraua erakusten. MIREIA BIKUÑA

Udaberri partean pare bat mendi irteera ere egingo dituzte, Arranoaitzera eta Enaitzera.

Iaz, "balorazio ona"

Guztira, 30 ikastaro eta tailer eskaini zituzten 2021ean, 320

emakumeren parte-hartzearekin. Azpimarratzekoak dira, Lizarralderen iritziz, "formakuntza kalitatea eta taldeetan sortutako giro ona eta konfiantzazkoa; gainera, ikastaro gehiengotan osatu ziren taldeak".

Jabetza Eskolako egitaraua

Osasuna, ongizatea eta gorputza:

- Zoru pelbikoa indartu.
- Sexualitatea eta gorputz esperientzia propioa.
- Chi kunga.
- Autoestimua.
- Mindfulnessa eta pintura.

Autonomia:

- Norbere lemazain: lidergoa lanean eta bizitzan –berria–.
- Hurbildu finantzetara.

Sormena, adierazmena eta kultura:

- Zapalduen antzerkia.
- Xilografia.

- Boterea, ahizpatasuna, perreoa.
- Rurru Mipanochian.
- Arrasateko noka.
- Egin barre! Umore feminista hausnartuz eta jolastuz.

Feminismoa

- Ekonomia feminista.
- Trans eta LGTBI estatuko lege proiektuaren inguruko hausnarketa.
- Emakumeak borrokan tailerra.

Kulturartekotasuna eta emakume migratuen esperientzia

- Tela afrikarren ikastaroa –berria–.



NIRE USTEZ

IBON ARRUPU

Oinezkoen aldeko iraultza

Arrasateko hirigintzan izugarritzko eraldaketa gertatzen ari dela begi-bistakoa da. Genero ikuspegiarekin lotuta dagoen oinezkoen mugikortasunaren aldeko horrelako apustu garbirik ez da inoiz izan hemen. Onartu beharra dago oso zaila dela gizonekook ibilgailu propioarekin mugitzeko diseinatutako herri bat emakume, ume, adineko eta guztiok oro har oinez modu seguru, eroso eta errazean mugitzeko herri bihurtzea. Zailtasunak zailtasun, hainbat neurri hartu dira: radarrak, auzoetako igogailuak, ekobulebarra, ur-parkeak, errepideak oinezkoentzat izatea, bidegorri sarea zabaltzea, 3. autobus linea, zebra-bide adimentsuak edo Trafiko eta Aparkamenduaren Ordenamendua (TAO). Hala ere, herritar askok nahiko lukete dagoeneko bidegorria Musakolako polikiroldegiraino heltzea edo Zarugaldeko errebala oinezkoena izatea. Bi neurri horiek ere laster helduko dira, umeak berritako eskolara bakarrik joaten ikusteko edo aparkaleku bila bueltaka dabilen trafiko kutsatzaile-kopurua murrizteko, ausartak izaten jarraituko baitugu oinezkoen aldeko iraultzan.




ARRASATEKO UDALA

30 urtetik gorako lanari aitortza

2019 eta 2021 artean erretiratutako bederatzita udaltzain omendu ditu asteen Udalak, eta agenteen "lana eta konpromisoa" nabarmendu. Bi udaltzainburu, bi kabo eta bost udaltzain izan dira omenduak. Udaleko ordezkariak plaka profesionala banatu diete, hasi berri duten etapa berrian "zortea eta zorientasuna" opatzearekin batera.

Kulturola berriz bisitagai otsailaren 3tik 6ra bitartean

Joan den astean, 350 lagunek ezagutu zuten eraikin berritua. "Kopuru arrakastatsua", Udala Gobernuaren esanetan, eta bisitaldi gehiago antolatzea erabaki dute. Hala, datorren ostegun zein ostiral arratsaldeetan eta zapatu zein domeka goizetan emango ditu Arantza Otadui azalpenak. Izena arrasate.eus webgunean eta BAZen eman daiteke.



Otadui azalpenak ematen. H.L.

Obenerrekako frontoia, itxuraldatzeko bidean

Parkourra praktikatzeko azpiegitura jarriko dute kantxan, aparkalekua birgaitu eta iturri bat jarri. Lanak "esleitzear" ditu Udaleko Obra, Zerbitzu, Mantentze eta Auzoen Sailak, eta martxotik udara bitartean gauzatuko dute proiektua, 240.000 eurogatik

Hasier Larrea ARRASATE

Herriko haur eta nerabeen ordezkaritza batek osatutako Haurren Kontseiluaren proposametik atera zen, 2019an, Aldai parkearen alboko frontoia parkourra egiteko moldatzea. Obenerreka aisialdirako eta kirolerako toki gisa biziberritu eta Santa Marina auzoa txukunago jarriko zutela iritzita, Udalak ontzat eman zuen eskaera.

Ondorioz, hiru diseinuren artean aukeratzeko prozesu parte-hartzailea sustatu zuen joan den urteko apirilean. Behin gehiengoak nahi zuen modeloa zein zen jakinda –aldeko 71 boto jaso zituen–, herriko gazteek



Gehiengoak aukeratutako diseinuaren maketa. ARRASATEKO UDALA

"uda partean" izango dute euren zerbitzura korrika, saltoka eta zabuka ibiltzeko propio diseinatutako gunea.

Udalak martxoan espero du hasiko direla frontoiko eraberritze lanak. Elkarren artean gertu egongo diren zutabe itxurako oztopoak jarriko dituzte, kantxari labirinto itxura emanaz eta barretatik zintzilik alde batetik bestera joatea ahalbidetuz. Eremuko paretak ere eskalatu ahalko dira, eta izkinetan egongo diren piezek lagunduko dute horretan.

Dani Sampaio parkour irakaslearen esanetan, parke berria parkourrarekin lotutako "teknika guztiak" praktikatzeko moduko izango da, eta "norberaren trebetasuna" izango da azpiegiturari ahalik eta joko handien ateratzeko faktore bakarra.

Irisgarritasun hobea

Frontoiaren ingurua berrurbanizatzeko ere aprobetxatuko dute esku-hartzea. Hala, gaur egun dauden aparkalekuak hobetu egingo dituzte, iturri bat jartzearekin batera. Lanek hiru hilabete inguru iraungo dute.

Santa Agedako korua modu murriztuan irtengo da kantuan

Usadio zaharrari erantzunez, Santa Ageda egunaren bezperan, datorren egunean, irtengo dira koruko partaideak kantuan oles egitera. Iaz bezala, aurtan ere, "zoritzarrez, modu ezberdinean" egingo dute, osasun arauak errespetatzeko; horregatik, Santa Ageda Koruen Komisioak modu murriztuan irtetea erabaki du. Hori horrela, bi kantaldi egingo dituzte: bata 14:00etan udaletxean eta bestea 20:00etan Herriko Plazan.

Azken saio horretan batutako dirua Caritas erakundeari igorriko diote, "pandemiagatik gero eta jende gehiagok behar duelako laguntza". Iaz, 1.900 euro eskuratu zituzten modu horretan, ikasle gazte behartsuek ikasteko materialean eta garraioan gasta zezaten. Nahi izanez gero, Komisioak ondoko kontu korronteak jarri ditu eskura, dohaintza egin nahi duenarendako: Kutxabank 2095 5055 55 1075081967 eta Laboral Kutxa 3035 0001 55 0010103614.



DEBAGOIENEN GREMIOAK



AROTEGIAK

AZKARATE AROTEGIA
BERGARA / Telleria 19 B02-B03
Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
blogak.goiena.net/azkarate

HONDEAKETAK

EXCAVACIONES Y CONTRATAS ARRASATE SL
ARRASATE / Meazterreka 30
Tel.: 943 77 12 26/ 646 29 59 87
e.arrasate@gmail.com

ITURGINTZA

EGIA ITURGINTZA
ARRASATE / Gipuzkoa etorbidea 39, behea
Tel.: 943 77 01 85

OYANGUREN ITURGINTZA

ESKORIATZA / Aranburuzabala 15
Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69
f.oyanguren@ctv.es

URKO MANTENIMIENTO SL

ARETXABALETA / Basabe industrialdea B-3
Tel.: 943 77 19 88
Faxa: 943 79 59 97

LOREZAINZA

MAKAI KOOP. ELKARTEA

ARETXABALETA / Basabe poligonoa D-2-1
Tel.: 943 79 78 45 - 616 96 57 98
Faxa: 943 79 78 45

Nobedadeen behar barik, lehengora bueltatzea

Bi urteko etenaren ondoren, Mondraitz Kirol Klubeko lagunek apirilaren 10erako antolatu dute Arrasate-Udalatx lasterketa. Ez dute berritasunen aldeko apusturik egin, oraingoz ez dute behar, 2019ko edizioa errepikatzearekin konformatzen dira

Xabier Urzelai ARRASATE

2022ko apirilaren 10eko lasterketak duela bi urtekoaren antza badu, Mondraitzekoak pozik geratuko dira. Irteera eta helmuga Arrasateko plazan egin ahal izatea, korrikalariek kaleetan ikusleen berotasuna sumatzea, Udalatxen eta Besaiden animo oihuak entzutea... Zertarako gehiago. Izan ere, oraindik ez dago aurreikusterik hiru hilabete barru zein izango den pandemiaren egoera, eta antolatzaileek garbi daukate momentuko egoerara egokitutako lasterketa antolatuko dutela.

2020koek lehentasuna dute

Hartu duten lehen erabakietako bat izan da izen-emateak zabalteko orduan 2020an izena eman zutenek lehentasuna izango dutela. Hala, atzo, eguna, ireki zuten izen-emate epe hori, eta ikusteko dago bi urteko tartearen ondoren zenbat diren ostera ere lasterketa egitera animatzen



2018ko podiuma, artxiboko irudi batean. GOIENA

direnak. Korrikalari horiek domekara arte –hilak 30– izango dute izena emateko aukera *kronoak.eus* atarian (25 euro), eta, 350 dortsaleko kopurura iristen ez badira, alegia, dortsalak hutsik geratzen badira, otsailaren

3an ostera ere zabalduko dute izen-emate prozesua –prezio berberarekin–, baina, orduan, denendako zabalik. Eta hor, izena ematen duten guztien artean zozketa bidez banatuko dituzte dortsalak.

Mondra talde indartsuen buruko min bilakatu da

Ligan aurreko postuetan dauden Touringek eta Elgoibarrek galdu egin dute zuri-moreen kontra

X.U. ARRASATE

Talde baten gaitasuna sailkapenean aurrean dabilzanen kontra jokatuak partiduetan neurzen bada, arrasatearren gaur egungo laugarren postua motz geratzen da. Izan ere, orain arte ligako onenak izan diren Touringek (39 puntu) eta Elgoibarrek (35) galdu egin dute Cristian Levisen mutilen kontra. Lider dagoen Touringek hiru partidu baino ez ditu galdu denboraldi honetan, eta horietako bat arrasatearren kontra izan da. Eta azken porrota Elgoibarkoena



Xabi, Añorgaren kontrakoan. I.SORIANO

izan da; izan ere, domekan Mojategin bisitari izan zen taldeak denboraldiko lehen partidua galdu zuen arrasatearren aurka (1-0, Iker Sanchez). Datu esanguratsuak dira Mondrarendako (31), nahiz eta egia den horren indartsuak ez diren kontra barkatu izanagatik ez dagoela Arrasateko taldea sailkapenean gorago.

Amaikak Baten kontra

Hain zuzen, barkatu behar ez den partidu horietako bat izango dute arrasatearrek zapatuan Deban. Amaikak Bat hamargarren postuan dago, baina etxean jokatu dituzten partidu guztien artean debarrek bi baino ez dituzte irabazi –hiru galdu dituzte, eta hiru berdindu–. Kategoria honetan, baina, indarrak oso berdinduta daude.

"Lasterketa ez da inongo momentuan zalantzan egon"

GANIX LASA MONDRAITZ KLUBEKO KIDEA

Iaz, lasterketa birtualaren aldeko apustua egin zenuten; eta aurten, ohiko lasterketa antolatzea animatu zarete.

Halaxe da. Iaz, pozik geratu ginen proba birtualak eman zuenarekin, 90 lagun inguru animatu ziren eman genuen denbora tartean lasterketako ibilbidea osatzeko. Babesleek ere begi onez hartu zuten ekimena, eta, bueno, haria ez eteteko ondo egon zen. Baina bai, normaltasunera itzuli nahi dugu.

Ez da behar aparteko nobedaderik...

Ez, hori da. 2019ko ediziora gerturatzen bagara, pozik geratuko gara. Azken urteotako moduko lasterketa antolatu nahi dugu, baina egia da ez dakigula apirilean ze egoeratan egongo garen.

Horretara egokituko gara. **Bi urte asko da. Lasterketa batzuk desagertu ere egingo dira.**

Bai, seguru. Gure kasuan, antolaketa taldeko kideak denbora tarte honetan etengabe egon gara hartu-emanetan. Egia da batzuetan ezin izan garela

fisikoki elkartu, baina harremana mantendu dugu eta inongo momentutan ez zaigu pasa burutik lasterketa bere horretan uztea. 2020ko lasterketarako dena geneukan gertu; pentsa, lasterketa apirilaren 5ean egin behar genuen eta martxoaren 13an etxeratu ginen denok. Eta izen-emateen dirua gorde beharrean erabaki genuen lehenbailehen itzultzea; horrek askatasuna ematen zigun etorkizunean edozein erabaki hartzeko. Baina lasterketarekin aurrera egitea erabaki dugu.

Antza, taldekako kiroletatik bakarkakoetara pasa da jende asko. Igarri duzue igogarik mendiko lasterketetan?

Ez dakit erantzuten lehen baino jende gehiago edo gutxiago dabilen. Baina jendea lasterketa gosez dago, hori badakit. Eta baita normaltasun gogoz ere.



GOIENA



OINTXEI

Euskal Ligan jarraituko dute

Joan den asteburuan, Euskal Ligan jarraitzeko hil ala biziko partidua izan zuten MUko junior mailako mutilek. Kategoriako liderrari, Zarautzi, euren etxean irabazteko kapaz izan ziren moreak (74-86), eta garaipen horrek A1 taldean jarraitzea ziurtatu die. Orain, bigarren itzulia hasiko dute, jakinda etxeko lan garrantzitsuenak eginda dituztela.

"Orain da hiru urteko lana erakusteko unea"

RAUL URIARTE KORDA ROTA TALDEKO GITARRA-JOLEA

The Convicts taldearen errautsetatik sortutako Korda Rotak herrikideen aurrean joko du bihar lehen aldiz. Gaztetxean izango da, 22:30ean, Oñatiko Letaginekin batera

Hasier Larrea ARRASATE

Musika barru-barrutik bizi dute Aitor Alegrek, Unai Okinak, Francesco Basilek eta Raul Uriartek. Antzeko gustuak izanda, laster batean adostu zuten Korda Rota sortzea, pandemia bat zer zen jakin aurretik.

Izena bera hizkuntzen arteko nahasketatik atera duzue. Zer dela-eta? Italiarrez *corda rota*-k soka apurtzea esan nahi du. Niri gitarrako sokak askotan puskatzen zaizkit; grazia egiten zigun, eta hortik dator gure izena. *K* hizkia erantsi diogu, euskarazko ukitua ematearren.

Hiru arrasatear eta italiar bat. Ze istorio dago horren atzean?

Unai bateria-joleak eta biok The Convicts punk-rock taldetik gatzoz, eta Aitor kuadrillakoa da, baxua jotzen ikasi du berriki eta abesten ere ondo moldatzen da; musikazale amorratuak gara hirurok. Unai Francesco ezagutu zuen Antzuolan, bertan bizi baitira biak. Gitarra akustikoa jo zuen behin Francescok Unairen aurrean, eta honek entsegu lokalera etortzera gonbidatu zuen. Gustu rockerrak zeuzkanez eta elkar ulertzen genuenez, laurok jarri ginen proiektua osatzen.

Urte batzuk eman dituzue proiektu musikal sendorik gabe. Nola mantendu duzue txinparta?

Pertsonalki lanketa egiten duzu. Taldeetan jo izan duenak badauki lokalean entseatzeko eta kontzertuak jotzea xarmenta dela; beti mantendu dugu zerbait egiteko ilusioa. Bitartean, ahal dugun bakoitzean joaten gara kontzertuak ikustera, inguruko talde berriak ezagutzera... Gure bizitzak uzten digun heinean ere etxean ahalik eta gehien jo izan dugu. Ba, orain prest gaudere berriz oholtzara igotzeko.

Eta ez nolana hiko oholtzara.

Etxean joko dugu, lagunuen aurrean, lehen ere hainbeste aldiz aritu garen eszenatokian, eta



Korda Rotakoak, Bergarako kartzela zaharrean, abenduaren 28an. KORDA ROTA

"ORAIN ARTE EMAN DITUGUN BI ZUZENKOAK OSO ONDO ATERA DIRA, MOTIBATUTA GAUDE"

Letagin moduko talde on batekin. Hasierako nerbioak lasaituta joango garelakoan gaude.

Pare bat aldiz azaldu baitzarete jendaurrean.

Antzuolan kontzertu bat antolatu zuten iazko udako iluntze baterako. Lehen aldiz jo genuen orduan, bost kantu, izotzaldia urtzeko. Han Bergarako pare bat lagun azaldu ziren, eta euren Gabonetarako kartzela zaharrean jotzea hitzartu genuen. Lehengo sentsazioetara itzuli ginen Bergaran. Oso motibatuta gaude.

Zerekin egingo du topo publikoak?

Eskandinaviako rocka erreferente duen estiloarekin. Hella-copters, Backyard Babies, The Hives, Gluecifer... Horien bertsoak joko ditugu, baita Guns And Roses eta The Clash modukoak ere. Eta, noski, gure abestiak ere aurkeztuko ditugu.

Ze gai lantzen duzue?

Gau bateko mozkorraldiaren ondorioa, kritika soziala, sare sozialen erabilera... Gero, txantxa-tonuko kantuak ere badauzkagu, mezu zehatzik gabekoak. Ideia da hiru hizkuntzatan egitea, euskara lehenetsiz. Ingeleseztan eta gazteleraz ere kantatzen dugu.

Diskoa grabatzeko intentziorik?

Hasi gara ideia horri buelta batzuk ematen. Landu daitezke abestiak gehiago, baina oinarri indartsua badute jada. Ikusiko dugu zerbait gehiago egiteko gai garen. Hurrengo hilabeteetan zerbait argitaratu nahi dugun arren, ez dugu ezer zehatzik erabaki. Ea aurten entzungarria den zerbait igo dezakegun sareetara.

Musikari buruz, ezer gehiago gehitu nahi?

Denbora-pasa bezala ulertzen dugula, gure pasioa delako. Hala ere, denbora luzea eskatzen du, eta horregatik ematen diogu balioa ondo pasatzeari. Badakigu gure estiloa ez dela publiko guztiendako, baina ilusioa egiten digu gertukoak etortzeak eta eurek ere ondo pasatzeak. Gainera, nabari dugu Arrasaten talde berri ugari sortu direla azkenaldian. Bada mugimendua!



Neska-mutilen eskoletako saio batean, aktoreak interpretatzen. DOKE

Nobedadez bete nahi dute urtea Doke antzerki taldeko kideek

Eskola hazten doan bitartean, nagusien taldea Gabonen bueltan aurkezteko obra berria prestatzen hasi da

H.L. ARRASATE

Dagoeneko 43 neska-mutil batzen dira Dokeren ikastaroetan astean zehar, eta "egunetik egunera eskaera gehiago" jasotzen dituzte, Maider Altzelai irakaslearen hitzak oinarri hartuta. Hala, 7 eta 11 urte artekoen hiru talde eta 12tik 16 urtera artekoen bi talde dauzkate antolatuta, gaur-gaurkoz.

Adinez nagusi diren taldeak, ordea, bere egitekoa aurrera ateratzeko oztupoak bizi izan ditu pandemiarekin, eta urtero atera ohi duten obra ezin egin ibili dira. 2022an ikusi dute egoera iraultzeko aukera. "Autore italiar baten obra lantzeko asmoz gabilta, komedia eta kritika soziala erdigunean jartzeko; osasun-egoera oraindik arrasata daramagunez, gogotsu gaudere mezu indartsuko antzezlan bat interpretatzeko", azaldu du Altzelaik.

Doken dabilzan ohiko partaideak izango dira aktoreak, baina bi kide berri ere batu zaizkie esku artean duten proiekturako. Izan ere, oholtzara igo nahi duen jende bila ari da kolektiboa, pixkanaka errelebo aldaketa gauzatzeko helburuarekin.

Lehen tailerra zabalik dago

Antzerki taldea helduendako ikastaro puntualak antolatzeaz ere arduratzen da. Virginia Imaz pailazo profesionala gonbidatu dute *clown* ikastaroa egiteko, otsailaren 18tik 20ra. Hamabi orduko saioan "*clown* teknika dakitenek eta lehen aldiz probatu nahi dutenek" parte hartu ahaliko dute, 665 11 85 72 telefonora deituta edo dokeikastaroak@gmail.com helbidera idatzita.

Urtean zehar tailer gehiago jorratuko dituztela-eta, interesa dutenei adi egoteko dei egin die antzerkilariak.

Otsaileko Koolturen, nazioarteko musika eta bakarrizketak

Inoren Ero Ni taldeak itxi zuen atzo urtarrileko egitaraua. Berez, Small Jackets italiarrak zeuden iragarrita ordurako, baina azken orduko arazo batengatik atzeratu egin behar izan zuten Kooltur Osteguneko antolatzaileek bandaren emanaldia; dena ondo bidean, otsailaren 24an igoko dira gaztetxeko agertokira, gaueko hamarretan, beti bezala.

Horien aurretik, baina, beste hiru hitzordu programatu dituzte. Datorren ostegunean, hilak 4, La Casa Fantom izeneko bikote norvegiararen txanda izango da. Otsaileko bigarren emanaldia ez da kontzertua izango, bakarrizketa baizik, Ane Lindanek eta Raquel Torresek *Despotorre* saioa aurkeztuko baitute. Otsailaren 17an, osteran, Aguraingo musika urbanoa, azkenaldian nagusitzen ari diren estiloen arteko nahasketa, ekaerriko du Duplak.

Objektu arkeologikoak aurkituz gero, zer egin?

Arabako Foru Aldundiak gida bat kaleratu du hainbat gomendiorekin. Gainera, gidan azaltzen da metal detektagailuak ez direla erabili behar iraganeko objektuak bilatzeko: "Ondare arkeologikoa hondatzeko eta espoliatzeko modu bat da"

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO Arabako Foru Aldundiak gida bat argitaratu du objektu arkeologikoren bat bilatzeko gero nola jokatu behar den azalduz. Modu horretan herritarrak kontzientziatu nahi dituzte baimenik gabeko praktikarik ez egitearen garrantziaz. Izan ere, 2020an, urtean salaketa bat jartzetik urtean ia hamabi salaketa jartzera pasatu ziren. Aztarnategi arkeologikoetan baimenik gabeko pertsonen metal detektagailuak erabiltzearekin lotutakoak izan ziren salaketa gehienak.

Ekintza horiek ondasuna suntsitzen laguntzen dutela diote Aldundiko arduradunek: horregatik, legea aplikatzeaz gain, pedagogia egin beharra nabarmendu dute.

Nola jokatu

Objektu arkeologikoren bat ezustean aurkituz gero, berehala jakinarazi behar da Arabako Arkeologia Museoa, ez da norberarentzat gorde behar; gaine-

ra, salmenta erabat debekatuta dago. Nabarmendu dute ondare arkeologikoa ondo dagoela dagoen lekuan. Hainbat urtez biziraun duela eta ez dagoela arriskuan, kontrolatu gabeko lur mugimendurik ez badago, behintzat.

Metal detektagailurik ez erosi

Metal detektagailuei dagokienez, Aldunditik bidalitako gomendioa zuzena da: ez erosi. "Metal detektagailuak baimenik gabe erabiltzea ondarea hondatzeko eta espoliatzeko" modu bat dela nabarmendu du Aldundiak oharraren. Izan ere, Araban milaka aztarnategi baino gehiago daude dokumentatuta; hortaz, metal detektagailua erabiltzea delitua

SOILIK ARABAN MILAKA AZTARNATEGI BAINO GEHIAGO DAUDE DOKUMENTATUTA

den lekuren batean aritzea samurra izan daiteke.

Metal detektagailua gune arkeologikoetatik kanpo erabiltzen bada, eta ezustean ondasun arkeologikoren bat topatzen bada, topatutakoa dagoen lekuan utzi behar da eta Arabako Arkeologia Museora abisatu behar da.

Izan ere, nabarmendu dute ondasun arkeologikoak jabari publikoak direla, eta ezin dela inolako konpentsaziorik eskuratu aurkikuntzagatik. Objektu arkeologikoak ez entregatzea oso arau larria dela dio Aldundiak, milioi bat eurora arteko isuna izan dezakeena.

Iragana ezagutzen

Diziplina arkeologikoa pieza politak eskuratzea baino zerbait gehiago dela nabarmendu nahi dute: "Iraganeko gizarteak nolakoak izan ziren ezagutzen laguntzen dute". Pieza bere horretan uztea garrantzitsua da inguruak eman dezakeen informazioa gordetzeko.

A-3920 errepidea hobetzeko desjabetzeak egingo dituzte

Aldundiak Udalera bidali du desjabetuak izango diren ondasunen eta eskubideen titularren zerrrenda

A.E.G. ARAMAIO

Arabako Aldundiak hainbat lan egingo ditu Untzilla eta Kataia arteko errepidea hobetzeko; hain zuzen, A-3920 errepidearen trazadura hobetzeko eta zabaltzeko lanak egingo dituzte. Lan horiek egiteko, lursail batzuk desjabetu egingo ditu Aldundiak.

Titularren zerrrenda

Desjabetuak izango diren ondasunen eta eskubideen titularren zerrrenda bidali du Aldundiak Aramaioko Udalera. Dokumentua ikusgai jarri dute udaletxe azpian, ediktuen taulan.

Desjabetze aktak

Desjabetze aktak sinatuko diren eguna ere zehaztu dute dokumentuan: otsailaren 14an sinatuko dituzte desjabetzeak.

Bestalde, abenduan izandako euri-jasen ondorioz hainbat



A-3920 errepidea. A.E.G.

lur-jausi gertatu ziren auzoetako errepideetan; ondoren, Etxaugen auzoan behera lur-mugimendu handia gertatu zen urtarril erdialdean. Udalak erabaki du Arriola-Arrikoiti errepidea zabalik mantentzea eta egoerari jarraipena egitea.

Nerabeei zuzendutako ginkana egingo dute bihar, zapatua

Tximista gazte taldeak 12 eta 16 urte bitarteko gazteei zuzendutako ekintza antolatu du bihar. Parkean elkartuko dira, ping-pong mahaiaren bueltan, 12:00etan. Hainbat proba eta ariketaz osatutako ginkana egingo dute.

Antolatzaileek aramaioar gazteak animatu nahi dituzte ginkanan parte hartzera. 12:00etatik

14:00etara bitartean egingo dute eta izena emateko azken eguna gaur, barikua, izango da. Interesatuak Whatsapp taldean sartzeko eskatu beharko dute, edo online dagoen galdetegia bete beharko dute.


Herriko nerabeei aisialdiaz gozatzeko alternatibak eman eta eskaintza aberatsa bultzatzea da Tximista taldearen asmoa. Aurrez ere egin izan dituzte gazteei zuzendutako ekintzak: azaro amaieran, esaterako, Masterchef lehiaketa egin zuten.

Eguenean egingo dute santa eske herrikoiko bigarren entsegua

Atzo egin zuten lehenengo entsegua, eta egunean, otsailaren 3an, egingo dute bigarren. Entsegua 19:00etan izango da, udaletxe arkupeetan. Aurtengo santa eske herrikoia berritasunekin etorriko da. Goizen bakarrik irtengo dira eta ez dute bazkaririk egingo. Otsailaren 5ean, zapatua, 09:30ean elkartuko dira, plazan.

Laster banatuko dituzte aurtengo orri markagailuak

Gorbeialdeko Kuadrillak antolatutako XVI. orri markagailu lehiaketako irabazleak nortzuk diren argitara eman ondoren, laster banatuko dituzte orri markagailuak herritarren artean. Aramaion, udaletxean eta liburutegian egongo dira edonoren eskura. Interesa duenak ez dezala aukera galdu orri markagailua eskuratzeko.





Jaietan, jaioberrien harreraren egindako koreografia. ARGAZKIAK: IMANOL SORIANO

Koreografiekin dantza eta jolas

Lagun Artean dantza taldeak 66 urteko ibilbide luzea du. Gaur egun, Oihane Vicente irakasleak gidatzen ditu saioak: asteen bitan etortzen da Aramaiora, eta txikitxoenetatik hasi eta nagusienetara arteko sei talde zuzentzen ditu zumarragarrrak

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO Lagun Artean dantza taldea herriko eragile aktiboa da. Aramaion egiten diren festa, ospakizun eta bestelako ekitaldietan parte hartzen du taldeak. Dantza herrikoiak eta bertakoak egiten dituzte, baina azken urteetan baita koreografia original eta ikusgarriak ere.

66 urteko historia

Urte luzeko historia du Lagun Artean dantza taldeak –aurten, 66 urte beteko ditu–. Urte horietan guztietan jendeak lan handia egin du taldea aurrera ateratzeko: izan irakasle. arduradun, guraso...

Azken bost urteetan Oihane Vicente dabil irakasle lanetan. Zumarragako Irrintzi dantza taldean hazitakoa, bestelako dantzak ere ikasi ditu: dantza garaikidea, salsa... eta baita

euskal dantzetako masterra egin ere. Hala, horrek guztiak ematen dion perspektibarekin sortzen ditu orain Lagun Artean dantza taldeko koreografiak.

Ikasturte amaierako jaialdia

Urtean zehar egiten dituzten jaialdien artean bat berezia izaten da: ikasturte amaierakoa. "Ikasturte amaieran, festei begira, koreografia bereziak prestatzen ditugu. Gustatzen zaigun musika aukeratzen dugu, eta musika horri ze pauso sartu erabakitzen dugu, zer adierazi nahi dugun... Umeeekin, aldiz,

**ARAMAIOKO JAIEI
BEGIRA,
KOREOGRAFIA
BEREZIAK
PRESTATZEN DITUZTE**

gorputz adierazpena, jolasa sartzten dut", azaldu du Vicente irakasleak. Herritarrek gustura ikusten dituzten dantza emanaldiak izaten dira: "Gure orduak pasatzen ditugu koreografiak sortzen, baina esan behar da oso ondo pasatzen dugula".

Koreografia berezietan gain, Aramaioko agurra ere dantzatzeko dute: "Aurreku berezia dute Aramaion. Gipuzkoan, esaterako, orokortu egin da agurra; antzerako pausoak egiten ditugu denok, baina Aramaion pausoak diferenteak dira".

Orain dela bi hamarkada, beherakada handia izan zuen dantza taldeak. Nabarmentzekoa da orduko hartan Adela Elejaldek eta Ainara Inuntziagak dantza herrikoiak erakusten eta gaztetxoak erakartzen egindako lana. Besteak beste, horrela egin du aurrera Aramaioko agurrak.



Gaztetxoak, holy jaia irudikatzen.



Nagusien taldea, kanpoko frontoian, dantzan.

"Erronka mutilak erakartzea da"

OIHANE VICENTE IRAKASLEA



GOIENA

Lagun Artean dantza taldeko irakaslea da zumarragarra.

Zenbat talde daude gaur egun dantza taldean?

Asteen bi egunetan etortzen naiz gaztetxoei eta ez hain gaztetxoei dantza erakustera. Sei talde ditugu: 3-4 urterekin hasten dira, eta 70 urtera bitartekoak ditugu.

Zein da taldearen erronka nagusia?

Erronka nagusia mutilak erakartzea da. Txikitzen hasten

dira, baina badago adin tarte bat taldea uzten hasten direna. Orain, esaterako, nerabeen taldea indartzen ari da; eta helduak pila bat daude, baina horiek ere ongietorriak dira.

Zaletasun handia dago Aramaion?

Kulturalki mugimendu handia dago: Musika Etxea, trikitia eta panderoa, gitarra... Mugimendu handia dago eta saiatzen gara elkarrekin gauzak egiten.

Urteko ekitaldiak

Urri amaieran Erretiratuen Egunean parte hartzen dute; ondoren, Gaba Baltzean, Euskararen Egunean, Inauterietan... Hain zuzen, Gaba Baltzerako Julen Alonso trikitilariaren Su-

tan dantzan abestiari koreografia jarri zioten orain dela urte batzuk, eta hori egiten dute urtero, sorginen ingurukoa izanda egokia delako.

Dantzan jarraitzeko gogoz daude aramaioarrak.



Julen Abasolo eta Gorka Madinabeitia, ibilaldien eta toponimoen gaineko liburua esku artean dutela. MIRARI ALTUBE

Ibilbide asko, pasarte mordoa eta milatik gora toponimo liburuan jasota

Herriko bazterrak, izenak eta istorioak ezagutzera emateko asmoarekin urteetan egindako lana batu dute Julen Abasolok eta Gorka Madinabeitiak 'Aretxabaleta. Hamaika ibilaldi eta istorio' liburuan; otsailaren 5ean aurkeztuko dute hori, Arkupen

Mirari Altube ARETXABALETA

Toponimia lan mardula egin dute Julen Abasolo Gallastegik eta Gorka Madinabeitia Perezek, eta *Aretxabaleta. Hamaika ibilaldi eta istorio* liburuan jaso. Loramendi elkartearen Toponimia taldeko kideek otsailaren 5ean aurkeztuko dute hori jendarean, Arkupen, hain zuzen ere (12:00), eta Udalak finantzatuta –eta Mondragon Assembly, Copreci, Ederlan eta Zenbakiren laguntzarekin– argitaratutako liburua –200, baina batzuk aurretik saldu dituzte– eskuragai izango dira.

Urte askotako emaitza batu dute 235 orritan. Herri inguruko auzo eta mendietako zein erdiguneko ibilbideak jaso dituzte, hamabi, guztira, argazkiekin eta argibideekin osatuta: argazki panoramikoak eta QR bidez *tracka* eta *earth* hegaldiak.

Baina bereziki toponimiari eman diote garrantzia eta milatik gora toki izen eta istorio mordoa batu dituzte; egileen esanetan, "makina bat laguni esker".

Hamar urtetik gorako proiektua

Loramendi elkartearen bueltan sortutako Toponimia taldeak jarri zuen abian proiektua, 2010ean, *Ibilbide historikoak* izenpean, eta hainbat irteera egin zituzten orduan, ibilbideak zehaztu eta osatu ahala: "Urtero bat, behintzat, bai, eta bakoitzaren gaineko informazioarekin liburuxka bana argitaratu zuten".

**AHOZ AHO
TRANSMITITUTAKO
JASO DUTE LIBURUAN,
ETA ESATEN DIREN
LEGEZ IDATZI IZENAK**

Talde haren lekukoa hartu zuten geroago Abasolok eta Madinabeitiak, eta ekimenari jarraipena eman zioten ibilbide gehiagorekin: "Liburuxka haiek liburu batean jaso beharko genituzkeela esan genuen, kontu samurra izango zelakoan. Baina egindakoa osatu eta txukundu egin gura izan dugu, istorio gehiago jasota eta argazki hobeak aterata, esaterako. Eta luzatzen joan da kontua".

Istorio bitxi asko

Izena duenak izana du, eta baserri, tontor, haitz, zelai, erreka, bidegurutze eta txoko guztienak jasotzen saiatu dira. "Ahalegin handia egin dugu, lagun askorekin egonda, adinekoekin eta paraje bakoitzeko bizilagunekin, bereziki", dio Abasolok, eta gaineratu du Madinabeitiak: "Kurtzebarriko ia haitz guztiek dute

Liburuan jasotakoak

Ibilbideak:

- Aretxabaleta herrigunea.
- Usitte, Galartza, Apotzaetxebarri.
- Arkaraso, Arientza, Korueta.
- Azatza, Larriñu, Bedoña.
- Ikazkinak, Basolanak.
- Kurtzebarriko haitzak.
- Oro auzoa.
- Errekan behera, urak pilatuz.
- Urak eramandakoak, Urkulu.
- Ugastei auzoa.
- Degurixa eta inguruak.
- Kortaburu, borobilak mendian.

Toponimo batzuk:

- Troskie: ur kareduna duen iturria.
- Estradie: lehengo bidea.
- Emaldixe: emankorra den lursaila.
- Oxiñeta: lihoa beratzeko putzua zegoen lekua.
- Zumaduxe: zumea –saskiak egiteko erabilia– landatzen zen eremua.

Toponimoak liburuan jaso dituztenean ez dute idazkera ofizialaren alde egin: "Zalantza handia izan dugu, baina ez zaigu egokia iruditu batuan jasotzea. Esaten den moduan ezagutzera eman behar dugulakoan gaude; hala, tokiak identifikatzea ere samurragoa izango da, Kabarrixa edo Karebarriaga esan askorendako ez delako iguala". Gaineratu dute Udala badabilela izenak ofizialdu nahian.

Azkena, otsailaren 19an

Ibilbideak zehaztu ahala ibilaldiak antolatu izan ditu Loramendik eta herritar asko joan izan da horiek ezagutzera. Liburuan jasotako hamaika eginda daude: "Hamabigarrena geratzen zaigu egiteko. Kortaburu aldera joango gara; Urkuluko presatik Zubillaga aldera, Gorordora igo eta Urre-xolagaraitik buelta. Otsailaren 19an izango da hori", adierazi dute, eta gaineratu: "Horrekin amaiera emango diogu etapa honi, eta ondoren, hausnartu egin beharko dugu Toponimia taldeak zein bide jarraitu behar duen".

Aurretik, zozketa

Atxabalta ezauketan dozulakoan? leloarekin herriko hamabost dendatiko erakusleihoetan hainbat argazki jarri dituzte liburua berri emateko, eta otsailaren 4a arte egongo dira ikusgai: "Denak ikustera gonbidatzen ditugu herritarrek eta gure herriko dendetatik txango bat egin". Gainera, lau liburu zozketatuko dituzte. Horretarako, denda horietako batean erosketa bat egin beharko da eta erosketa-txartelaren atzealdean hamabost denden izenak idatzi; Arkupen egongo den kaxan sartuko da gero txartel hori. Aurkezpen egunean emango dute liburuen irabazleen berri.



Aratusteak gertatzeko lanak aurrera doaz

Otsailaren 27an ospatuko den mozorro jaiarekin aurrera egitea erabaki du Udalak, "betiere, egoera epidemiologikoari begiratuta", eta, herri bazkaririk ez bada egongo ere, desfilea egingo dute; Txapel Txin etorriko da horiek iragartzera astebete lehenago

Mirari Altube ARETXABALETA

Egoera epidemiologikoaren bilakaerak izango badu ere azken hitza, Aratusteetako ospakizunak gertatzen hastea erabaki du Aretxabaleto Udalak. "Horiek aurrera ateratzeko lanean ari gara, baina beti pandemiari begira. 2021ean ospatu ezin izan genuen jai baten kolorea berreskuratu nahi dugu; hori bai, modu zuhur eta arduratsuan, une oro herritarren osasuna lehentasuna emanez", adierazi du, aste barruan, Kultura zinegotzi Ainhoa Caberok.

Hala, "osasun egoerari egokitutako" programa bati forma ematen hasi dira. Egitarau horretan mantendu egingo dituzte Aratuste-domekan tradizio den mozorrotutako kuadrillen desfilea eta lehiaketa. Herri bazkaria, ostera, bertan behera utzi dute. Era berean, adierazi dute Udaletik azken asteetan eta hurrengoetan bilerak egingo dituztela Aretxabaleto Karnabalen Lagunekin eta jai horretan parte hartzen duten beste eragile batzuekin.

Programaren xehetasunak aurrerago jakinaraziko badituzte ere, Caberok aurreratuko du, ohi legez, Txapel Txinek iragarriko dituela Aratusteak; otsailaren 19an izango da hori.



2020ko Aratusteetan egindako desfilearen une bat. IMANOL SORIANO

Lokala, laster

Kuadrillek Aratusteetarako mozorroak eta karrozak prestatu ahal izateko lokala datozen egunetan zabalduko du Udalak. Prest dagoenean, betiko legez, Arkupen eskuratu ahal izango dira hango giltzak.

Horma-irudi lehiaketa

Prestaketan artean, Aratusteetako irudia aukeratzeko kartel lehiaketa jarri du martxan Udalak. Parte hartu nahi duen edonorentzat zabalik dago lehiaketa, erabili beharreko teknika

librea da eta proposamenak aurkezteko formatua digitala izango da. Irudiak derrigorrean izango du honako testu hau: *Aratusteak. Aretxabaleta 2022*. Lanak aurkezteko epea otsailaren 7ra arte dago zabalik, posta arrunta erabilita –udaletxera edo Arkupera bidaliko da– edo elektronikoki bidez –*kultura@aretxabaleta.eus*–.

Kultura batzordeko ordezkariak eta hainbat herritarrek osatutako epaimahaiaren erabakia hilaren 8an jakinaraziko da eta irabazleak 250 euro jasoko ditu.

Hilabete batean 25 edukiontzi erre dituzte Aretxabaletan

Abenduaren 23a eta urtarrilaren 23a artean izan dira erreketak; azkena, domeka goizaldean, Nafarroa kalean

M.A. ARETXABALETA

Hilabete batean 34 edukiontzi erre dituzte bailaran, Debagoieneko Mankomunitateak adituzera eman duenez; horietatik 25, Aretxabaletan. Erretakoan artean daude Errekabarren eta Belorrieta artekoak eta Ilargi plazakoak birritan, Geltoki plazakoak, eta azkenak, joan den domeka goizaldean, Nafarroa kalekoak. Edukiontzi bakoitzaren prezioa 800 eta 1.000 euro artekoa dela adierazi dute Mankomunitateak, eta, beraz, Aretxabaleto suteen kalteak konpontzera 24.300 euro inguru bideratu dituzte.

Alkatea, "kezkatuta"

Gertaerok kezkatuta agertu da Unai Elkoro alkatea: "Badi-rudi modan jarri dela, eta batzuei grazia ematen diela etxeratzerakoan eta gau erdian su ematea. Gainera, polietilenoak direnez,

edukiontziak oso samur erretzen dira". Arazoari zein irtenbide eman aztertzen dabilta: "Bagabiltza kontuarekin, baina oso zaila da. Ertzaintzarekin harremanetan gaude, baina gune guztiak eta gau osoan ezin dira kontrolatu. Horregatik, beste bide batzuk jorratzen hasi gara". Gaineratu du herritarrak ere gogaituta daudela egoerarekin.

Ikerketa lana "areagotu"

Ertzaintzatik adituzera eman dutenez, ekintza-plan bat jarri dute abian tokiko agintariekin lan-kidetzan, eta prebentzioaren zein ikerketen lana areagotu egin dute. Poliziaren presentzia eta kontrolak handitu egin direla eremu eta ordutegi zehatzetan gaineratu dute: "Ikerketek aurrera jarraitzen dute, ustezko egilea edo egileak identifikatzen saiatzeko".

Pailazoez emandako bi intxaurrondoak landatuko dituzte

Porrotzek eta Marimototsek oparitutako bi kimuak landatuko dituzte gaur, 17:30ean, trenbide zaharraren berdegunean –bidegorriaren ondoan, Santakurtz kalearen atzealdean–. Musika eskolakoek agurra dantzatuko dute; gero, bertso eskolakoek egindako bertso bat abestuko dute eta *Amaren intxaurrak* ikusizunaren abesti bat dantzatu.

Batzar orokorra egingo du Muru-Alde elkarteak bihar

Muru-Aldek batzar orokorra egingo du urtarrilaren 29an –lehen deia 15:30ean eta bigarrena 16:00etan–, elkarteak jantokian. Gaien artean izango dituzte 2021eko kontuen egoera eta 2022ko aurrekontuak, bazkide berrien onarpena eta zuzendaritza batzordearen berritzea. Osasun egoera dela-eta ez diote isunik jarriko batzarrera ez doanari.



ORTODONTZIA IKUSEZINA

DURANA HORTZ KLINIKAN BERRIKUNTZAREN ALDEKO APUSTUA EGITEN DUGU.

ZURE IRRIBARREA HOBETU AHAL IZANGO DUZU INORK IGARRI GABE.

DURANA KALEA 22 • ARETXABALETA • TEL.: 943 79 93 55

Euskal dantzen historia, antzokia plaza bihurtuz

Korroan, borobilean hasi eta sokadantza, ingurutxo, kontradantza eta biko dantzetatik pasa ondoren, soltean bakarka edo noraezean edo pikutan bukatuko duen dantzaldi didaktikoa izango da domekan, 19:00etan, Zaldibar antzokian

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA Ikuskizun berezia antolatu du Eskoriatzako Udalak Zaldibar antzokian domekarako. 19:00etan hasiko da saioa, eta Kezka dantza taldeko kideek euskal dantzen historia kontatzeko emanaldia eskainiko dute; kasu honetan, kontatzeko modua nola ez, dantza izanik.

Oier Araolaza antropologoa eta dantzaria arituko da ikuskizunean gidari gisa, eta zuzeneko musikak lagunduta eskainiko dute *Korrotik pikutara* dantzen historia dantzan saioa. Dantzarien bidelagun, musika jartzen, berriz, honako musikari hauek arituko dira: Jose Migel Laskurain (txistua), Adolfo Jainaga (trikitia), Quico Puges (biolontxelo), Gari Otamendi (arrabita edo biolina) eta Iraide Ansorena (perkusioa).

Dantza eginez kontaktuta

Antzokia modu berezian antolatuta egongo da. Izan ere, plaza baten itxura emango diote, oholtzaren garrantzia alde batera utzi eta korroan egindako dantzak gozagarri izan ditzaten ikus-entzuleek, dantza barru-barrutik bizi dezaten. Lan horre-

tan arituko dira Eibarko Kezka dantza taldeko zortzi dantzari.

Dantzaren historia honen ideia Juan Antonio Urbeltzi zor zaio. Izan ere, sokadantzaren historia aztertzerakoan euskal dantzen bilakaera azaldu zuen. Hartan oinarrituta sortu du Oier Araolaza antropologoa eta Kezka dantza taldeko zuzendaria ere badenak *Korrotik pikutara* ikuskizuna, eta bera izango da dantzariak zuzenduko dituen eta ikusleei ikusten ari direna ulertarazten lagunduko diena. "Dantzaren historia kontatu daiteke, baina ikusi eta dantza egin behar dela uste dugu, gorpuzarekin kontaktuz. Emanaldi hau garai batean jendearen parte-hartze zuzenarekin egiten genuen, baina, pandemiarekin ezinezkoa ikusten zenez, parte hori Kezka dantza taldeko dantzariak egingo dute, koreografiak eginez. Hala, tes-

BOST MUSIKARI ESANGURATSUK ZUZENKO MUSIKA ESKAINIKO DUTE IKUSKIZUNEAN

tuinguruan jarriko dituzte ikus-entzuleak gero plazetan ikusi eta ezagutzen ditugun dantzak. Eskoriatzan Santa Ageda neska-mutilek egiten dituzten dantzek, esaterako, zein zentzu duten, nola kokatzen diren... ulertzen lagunduko digu saioak. Baina ez hori bakarrik, larrain dantza, arku dantza... dantza ezagunak ere ulertzeko aukera emango du, nondik nora sortu diren eta zergatik diren diren modukoak, eta nolako egitura duten...". Oier Araolaza antropologoaren eta Kezka dantza taldearen zuzendariaren arabera.

Labur esanda, eta gurera ekarri, "Santa Ageda eguneko dantzetan zergatik sartzen dira kintoak soka plazara? Zer da aureskua? Eta zer desafixua? Nondik datoz herriko dantzak? Baina, batez ere, nora doaz?". Hori izango du oinarri domekako emanaldiak.

Zuzeneko musikarekin

Dantzariak musikaz laguntzen boskote bat izango da Zaldibar antzokian: Gari Otamendi (arrabita), dantzaria izatez, Telmo Esnalen *Dantza* pelikulako protagonista nagusietako bat da, baina bada musikaria ere; Quico Puges (biolontxelo), maila handiko musikari profesionala, Xabier Leteren inguruan beste hainbat musikarirekin omenaldian parte hartu zuena, besteak beste; Iraide Ansorena (perkusioa), *Khami* proiektuagatik ezaguna dena; Jose Migel Laskurain (txistua), Bergarako Txistulari Bandako zuzendaria; eta Adolfo Jainaga (trikitia), Eskoriatzako trikiti irakaslea.

Sarrerak, alde aurretik

Erromerietako dantzen historia dantzatuz gozatu nahi dutenek Manuel Muñoz kiroldegiko leihtilan edo *bibe.me* helbidean lor ditzakete sarrerak, bost eurotan.

Herritarren %40k euskara dute harreman-hizkuntza Udalean

Udalaren jakinarazpenak zein hizkuntzatan jaso nahi dituzten mezua bidali diete 18 urteko eskoriatzarrei

I.B. ESKORIATZA

Herritarrek eskubidea dute udalekin dituzten harremanetan zer hizkuntza ofizialetan aritu nahi duten aukeratzeko, eta udalek herritarrek aukeratuako hizkuntzan artatu beharko dituzte. Hori horrela, Eskoriatzako Udalak hizkuntza errolda sortu zuen 2016ko udaberrian, eta herritarrei Udalarekin harremanak euskaraz ala ele bitan izan nahi dituzten galdetu zitzaizen orduan. Harrezkero, urtero, otsailean, aurreko urtean hemezortzi urte bete dituzten gazteei hizkuntza hautua egiteko eskutitza bidaltzen die Eskoriatzako Udalak.

"Hemezortzi urte bete berri dituzten gazte ia guztiek euskara hutsezko hezkuntza jaso dutela kontuan izanik, logikoena horiekin harremana euskara hutsean izatea da, eta hori da

Eskoriatzako Udaletik proposatzen dieguna". Baina hautua pertsonala denez, aukera egiteko bi bide eskaintzen zaizkie: Eskoriatzako udal webgunean online dagoen formularioa bete daiteke, edo, bestela, etxean jaso duten eskutitzarekin batera bidalitako orria udaletxean entregatzea. Formularioan, izen-abizenak, NA zenbakia eta Eskoriatzako Udalak bidaltzen dituen jakinarazpenak zein hizkuntzatan jaso nahi diren galderari erantzun beharko zaio.

Azken eguna, otsailaren 28a

Aurten, otsailaren 28a izango da erantzunak bidaltzeko azkeneko eguna. Jasotako erantzunak Udalaren datu-base guztietan txertatuko dira eta hortik aurrera hizkuntza hautu horren arabera bidaliko dizkie Udalak gutunak, jakinarazpenak...

Elkartasuna osasun arloari

Eskoriatzan Feminismoa Bizirik taldeko kideek Fernando Eskoriatza plazan pankarta jarri dute asteon. "Azken finean, gure ideia izan da sektore publikoarekin atxikimendu bat egitea, erretiratuek egiten duten moduan. Gizarte-eragile publikoei elkartasuna adierazten diegu gure taldetik, eta gaur egun bereziki osasunaren arloan lanean daudenei".



ESKORIATZAN FEMINISMOA BIZIRIK



Kezka dantza taldekoak korroan. DANTZAN.EUS

Chiapastik eskertza Eskoriatzako herriari

Urriaren 31n joan zen lurre Romaretazabala eskoriatzarra Chiapasera, hango indigena eta atzerritarrei laguntza ematera, eta martxoaren 1ean bueltatuko da. Ez da joaten den lehenengo aldia; izan ere, 27 urtean joan da bere aletxoak jartzera

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA
Ia hiru hamarkada -27 urte- daramatza Iurre Romaretazabala eskoriatzarrak Chiapasko indigena eta atzerritarrei laguntza ematen. Iaz ezin izan zen hara joan, eta aurten berriz haiekin elkartzeko oso polita izan dela adierazi du: "Aurtengo egonaldia zoragarria izaten ari da. Gainera, hemen ez dago COVID-19aren beldur paranoiko hori, eta dagoen bizi-poza izugarria da. Urte hauetan guztietan emandako laguntzarekin proiektu asko aurrera atera ahal izan dituzte, eta Eskoriatzako herria oso presente dute beraien bizitzetan. Behin eta berriz hori adierazten didate, eta beraien maitasuna herriari transmititzeko eskatu. Aurten eskaini ahal izan diegun laguntza ere bada aurrerapauso bat. Beraien egunerokoan, gutxi eman dezakeen arren, asko delako. Beti esaten dudan moduan, beste mundu bat egitea posible da, eta lan horretan guztiok lagundu ahal badugu, askoz hobeto", adierazi du Iurre Romaretazabalak Chiapastik.

Beharrezko materiala

Chiapasko herrialde indigenen bizimodua hobetzeko, beharrezkoak dituzten zenbait gauza



Romaretazabala lau haurrekin, opari eramandako baloiak eskuetan dituztela. I.R.

HAURRENTZAKO OPARIAK ERAMAN DITU, ETA PIÑATA ETA TONBOLA ANTOLATU HORIEK BANATZEKO

eraman dizkie aurten ere Romaretazabalak, eta haiei laguntzeko batutako diruarekin proiektu asko aurrera eramateko bidea zabaltzen zaie. "Aurten, kableak, fokuak, eguzki plakak eta aluminioko xaflak erosi ahal izan

dituzte oilategi kolektibo bat egiteko. Horretan ari dira, besteak beste, eta proiektuarekin ilusionatuta daude. Horrekin batera, haurren zorientasuna ere ezinbestekoa da, eta baloiak, koadernoak, gozokiak... banatu ditugu tonbola eran, piñatak eginez...".

Esker mezuak

Eskoriatzako herriari eta Esko-Zap elkarteari, bereziki, eskerrak emateko ere eskatu diotela dio Romaretazabalak, eta gutunak idatzi dituztela adierazi du.



Gatz Bidea-ren norabidea markatzen duen seinale bat. IMANOL BELOKI

Erronka berriak zehaztuta, bidea egiten jarraitzeko prest

Ibilbidearen gaineko kantua egin dute, eta laster grabatu nahi dutela adierazi dute Leintz Lotzen taldeko kideek

Imanol Beloki Unamuno GATZAGA
Leintz Lotzen herri egitasmoa kideek beraien ametsarekin jarraitzen dute, Gatzaga Leintz bailarekin lotzea. Eta amets horren ardatz Eskoriatza eta Gatzaga batzen dituen *Gatz Bidea* egoki jartzea, zaintzea, herritarrek erabiltzea eta ezagutzera ematea da asmoa, aurrera begira galduko ez den ibilbide bat izateko.

Gatz Bidea, betiko bidea bada ere, 2020an gogor hasi ziren Leintz Lotzen taldeko kideak ibilbideko zenbait zati konpontzen, bideak zeharkatzen dituen lur-jabeekin berba egiten eta auzolanean ahal izan zituzten lanak egiten. Hala ere, pandemiak inflexio puntu bat eragin die taldekideei, eta zer egin nahi duten pentsatzeko tartea izan dute, besteak beste, proiektua bera eta horren baitan dituzten ideiak berrartzeko eta hurrengo

pausoak finkatzeko. Hala, zenbait bilera egin dituzte, eta pauso batzuk ematen ari direla eta emango dituztela adierazi dute Leintz Lotzen taldeko kideek.

Kantua eta hesien konponketak

"Eskoriatzako Udalak partida bat ezarri du *Gatz Bidea* konpontzeko, eta hori pozteko albiste da. Horrekin batera, *Gatz Bidea*-ren gaineko kantua ere egin dugu Aitor Zilardegiren laguntzarekin, eta orain, grabatzea geratzen da. Ibilbidean zehar zenbait hesi konpondu nahiko genituzke... Horretarako, loreontzi pertsonalizatuaren egitasmoa jarri genuen martxan, eta, arrakastatsua izan denez, batu dugun dirua kanta grabatzera eta hesiren bat edo beste konpontzera bideratuko dugu", adierazi du Dorleta Elkorobarrutiak, Leintz Lotzen egitasmo kideak.

Herriko merkatariak, presente

Irudian bi neskatila agertzen dira Ixkur ile-apaindegiko poltsarekin. Eider Kortazarrek pozik jaso du handik bidali dioten erretratua. "Zenbait gauza batzen ditut urtero ile-apaindegian, eta jakinaren gainean nago beste norbanako, elkarte eta eragile batzuek ere batzen dituztela lurrek Chiapasera eramane dituzan; nik, ilerako gomak, diademak...".



Bi neskatila Ixkur ile-apaindegiko poltsa eskuetan dutela. IURRE ROMARETAZABALA

Arlaban mendatea itxita, bertakoentzat izan ezik

Arlabango errepidea, GI-627, oraindik ez dute zabaldu, eta lanekin jarraitzen dute. Trafiko Zuzendaritzak duela bi aste adierazi zuen errei bat irekiko zutela laster, euriteek eragin zuten hondoratutako asfalto eremua konpondu eta 15 tonatik beherrako ibilgailuak bertatik pasatzeko. Aurreikusitako baino gehiago iraungo dute behin-behinean

egingo dituzten lan horiek, baina bertako bizilaguntzat bidea zabalik dagoela adierazi dute. Hala ere, Eskoriatzan, Aingeru Guardako biribilgunean, Arlabango errepidea hartzen den bidean, ez pasatzeko hesia eta seinalea dago jarrita.

Eskoriatza eta Gatzaga batzen dituen errepideko lan hauek uneko egoerari aurre egiteko gauzatuko dituzte, baina lan guztiak lau hilabeteren epean amaituko dituztela jakinarazi du Trafiko Zuzendaritzak.



Joseba Zuzaeta, Ainhoa Agirrebeña, Nagore Jimenez eta Ives Roos, Agirretxeberri baserriko lurretan, martitzenean. J. BEREZIARTUA

Etorkizuneko basorako, bertakoa landatuko dute

Kukubaso elkarteak ia bi hektareako lur eremua jaso du lagapenean Agirretxeberri baserri inguruan, eta bertan egingo dute lehen zuhaitz landaketa bihar, Miguel Altuna berriaren elkartu ostean (10:00); 330 bat astigar eta haritz landatzea da asmoa

Jokin Bereziartua BERGARA

Bertako basoa berreskuratzea helburu duen Kukubaso elkarteak lortu du lehen lur eremua, lagapenean, Agirretxeberri baserriko lurretan. Bertako basoa berreskuratzearen helburuarekin gauzatu den Debagoieneko lehen lagapena da, Nagore Jimenez eta Ives Roos lur jabeen esker etorri dena. "Baserria erosi au-

rretik abereak ziren nagusi larre honetan. Guk garbi genuen egun batetik bestera ezin ginela abeltzain bihurtu, baina nahi genielako zelai hauei erabilera bat ematea. Asmo horrekin ari ginela sortu zen Kukubaso, eta, euren helburuek gure pentsamenduekin bat egiten dutenez, akordioa gauzatu genuen. Sas-trakaz betetzen ari zaizkigu

lurrak, eta guk geuk egiteko lan gehiegi da; horregatik, ez diogu arazoari irtenbide hoberik ikusten pixkanaka bertako basoa berreskuratzen joatea baino", azaldu du Jimenezek.

Akordioa: 25 urterako lagapena Akordioan jasotzen denez, lurren jabe izaten jarraituko dute Jimenezek eta Roosen, baina ere-

muaren kudeaketa eta zaintza Kukubaso elkartearen ardura izango da datozen 25 urteetan. Hau da, Kukubasoren ardura izango da bertako basoa garatzen ari dela bermatzea; zapatuko landaketara begira gogotsu dade lur jabeak ere. "Akordioarekin eta zapatuan landaketak egingo direla jakitearekin ilusioz eta gogotsu gaude; bide luzea izango da, eta horregatik komeni da lehenbailehen abiatzea", deritzo Jimenezek.

Duela hamahiru urte etorri zen Roos Belgikatik Bergarara, eta, bertan "oso gustura" bizi dela aitortzeaz gain, duela ia hiru urte erositako lur eremuetan bertako zuhaitzak landatuko dituztela jakitearekin "oso pozik" dago: "Pinua edo eukalipto beharrez, bertakoa landa dezagun; ideia eder baten oinarritutako proiektua da".

330 bat astigar eta haritz

Kukubasoko presidente Ainhoa Agirrebeñak esker ona hitzak ditu Agirretxeberri baserriko lur jabeendako, eta dio oso gogotsu daudela elkarteak berak sustatutako lehen landaketaren bezperan: "Azken sei hilabeteotako lanaren fruitua erakutsi ahal izango dugu. Elkarteak sortzeak lan burokratiko handia ekarri digu, eta heldu da ordua ekintzara pasatzeko ordua; izan ere, ekintza zehatzak gauzatzen gozatuko dugu gehien. 330 bat zuhaitz landatuko ditugu, astigarrak eta haritzak; eremua nahiko eroso denez eta herritik nahiko gertu dagoenez, familian egiteko ekintza moduan planteatu dugu. Elkarteak bazkideez gain [100 bat bazkide dira gaur egun], herritarrei dei egiten diegu umeekin etortzera, beste leku batzuetan ez da eta aukera hori

egongo". Izena emateko epea atzo itxi arren, posta elektronikoz harremanetan jartzeko aukera dago: kukubasoelkartea@gmail.com. Gutxieneko kopurua bermatuta dute, eta eguraldiak lagundu egingo duela dirudi. "Urduritasun puntua badugu, lehen ekintza delako eta ez dakigulako dena ondo lotuta utzi dugun", gaineratu du Agirrebeñak.

Elkartearen sei hilabete hauek ibilbidearekin pozik dago elkartearen presidentea: "Asko ikasi dugu, baita akatsetatik ere; hori dauka bidea egin ahal ikasteak... Lan honetan guk baino ibilbide luzeagoa duten Soralezuko eta Eibarko taldeekin harreman etengabe gaude. Lehen lagapen hau lortu dugu, beste bat erdi lotuta dugu, beste lursailen bat erosteko aukera baloratzen ari gara... Bestalde, Udalarekin ere harreman jarraitu dugu, guztion onerako proiektua denez eskutik joan behar dugula uste dugulako".

Kontzientziaioa, "funtsezko"

Kukubasoren lana ez da, baina, landaketetara mugatzen. "Askotariko ekintzez gain, funtsezkoa da kontzientziaioa lana. Aurten, gainera, Eskola Agenda 2030 barruan basoa aukeratu dute ikasleek gai moduan; gure asmoetako bat da inguru honetan [Agirretxeberri baserriko lurretan, biharko landaketa eremuan] mintegi txiki bat egokitzea", adierazi du elkartearen bazkide Joseba Zuzaetak.

JABETZA ALDATU EZ ARREN, KUKUBASO ARDURATUKO DA LURRAREN ZAINTZA ETA KUDEAKETAZ

Skate-parkea eraberritzen

Urtarrilaren 17an hasi zituzten Labegaraietako skate-parkea berritzeko lanak. Helburua da espazioa eraberritzea eta dinamizatzeko skateboard, roller, bmx eta scooter erabiltzaileentzat, eta egungo eskaintza hobetzea. Gaian aditua den Daniel Yabar da proiektuaren arkitektoa eta lanek 60.000 euroko aurrekontua dute. Obrek zazpi aste iraungo dute.



OIHANA ELORZA

OHARRAK

Laboratorium: hidrogeno berdearen erakusketa

Sorgina Txirulina umeentzat, bihar (11:00). Bisitak, otsailaren 3an eta 11n. Izen-ematea: 943 76 90 03 edo laboratorium@bergara.eus.

Txistulari bandaren emanaldia domekan

San Paulo jairik ez bada ere, kalejira egingo dute Uberan (10:00).

Torrada eta pella ikastaroa: izen-ematea

Otsailaren 22an izango da, Gure Ametsan, Gorka Lobatoren eskutik. Hilaren 14rako eman behar da izena: www.bergara.eus.

Euskal presoen aldeko zita: Azken Ostirala

San Martin plazan egingo dute elkarretaratzea, gaur, 19:30ean.

Arrizuriagari azal berria, kultura-gune bihur dadin

2012a ezkeroko itxita dagoen jauregia berritu, egonkoritu eta irisgarri egiteko lanak "laster" esleituko ditu Udalak, eta horretarako obrak bost hilabete iraungo luke; Vaumm estudioak idatzi du proiektua, eta adierazi dute eraikinak "aukera asko" ematen dituela

Jokin Bereziartua BERGARA

Gero eta gutxiago falta da Arrizuriaga kultura sorkuntzarako gune izan dadin. Horretarako, baina, jauregia berritu, egonkoritu eta irisgarri egiteko lanak abiatu behar dira. Udalak "laster" esleituko ditu lan horiek; kontratazio mahaiko deialdian jasotzen da obra bost hilabetekoa izango dela, eta lizitazioa 593.200 eurokoa -BEZa barne-. Oro har, fatxada konpondu eta garbitu egingo dute, eta kaltetutako egurrak eta beirak ordezkatu. Estalkia berritu eta solairu guztietako zoladura arinak kendu egingo dituzte. Gainera, erdiko sotoan ere esku-hartze bat egingo dute,



2012a ezkeroko itxita dago Arrizuriaga jauregia. JOKIN BEREZIARTUA

instalazioen sareak eta etorkizuneko igogailua egokitzeko.

2012a ezkeroko ez dela jauregia erabiltzen, eta bereziki urak eragindako higadurek eraikinaren egoera okertzen ari dira. 2021eko aurrekontuek partida bat gorde zuten egonkortze lanetarako, eta EH Bilduren Udal Gobernuak kultura arlorako erabiltzea aurreikusten du; EAJk ere kultura arloko *coworking*-erako bideratuko nahiko luke, herriko elkar-teen "kultura, sormena eta berrikuntza" landu dezaten.

Hamar urte erabilera barik

Seminarixoa aretorako ere proiektua egin zuen Vaumm arkitekтура estudioak aurreproiektu bat egin du Arrizuriagarako. Jauregiak dituen bi indargune azpimarratu ditu, bereziki, Jon Muniategiandikoetxea arkitektoak: "Batetik, kokapena oso egokia da. Alde zaharrear ez, baina erdigunetik oso gertu dago, eta halako ekipamendu bat izatea erdibide horretan oso aproposa da. Bestetik, jauregiaren ezaugarri fisikoei dagokienez, ez da tamaina oso handikoa eta 1980ko hamarkadan berritu zi-

tzaion egitura Ertzaintzaren komisaria egiteko; horrek esan nahi du egiturak ez duela antzinako patologiarik heredatu. Eta, zalantzarik gabe, eremu osoari balio erantsia ematen diona berdegunea da. Ingurune benetan ederra dela". Leku estrategikoan egonda ere, eta egitura aldetik nahiko egoera onean, erabilera barik egoteak dakarren okertzea gero eta agerikoagoa da. Hain zuzen ere, lehen fasean aurreikusten dena da jauregiaren azala berritzea: "Azken hamar urteotan ura sartzen joan da eta jario horiek eten behar dira lehenengo. Fatxadako eta barruko hainbat garbiketa lan egin ostean eraikina prest utziko genuke ia edozein erabilera emateko; betiere, ondarea zainduta".

"Ia edozertarako" izan daiteke

Etorkizunean eman ahaliko zaion erabilerrari dagokionez, Vaummen helburua izango da "ia edozein" erabilera emateko moduan uztea: "Aukera asko ematen dituen eraikina da eta Udalarari aurkeztutako proiektuan hori da agerian geratzen dela, ia edozertarako erabili daitekeela Arrizuriaga".

DEBAGOIENEN PROFESIONAL LIBERALAK



ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

BEGOÑA LASAGABASTER
ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86 / Faxes: 943 77 01 08
blasaga@conet.es

RAFAEL ARANBURU
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

AHOLKULARITZAK

ANDRA MARI AHOLKULARITZA
ARETXABALETA / Araba ibilbidea 20, behea
Tel./Faxes: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ALBERDI ASESOREAK
BERGARA / Matxiategi 36
Tel.: 943 76 90 83

ARKITEKTOAK

BIARK ARKITEKTOAK
ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

LARRAITZ VALENCIA AZKARGORTA
Arkitektoa eta tradesperson formazioa
Tel.: 636 89 92 11
larraitz.arkistudioa@gmail.com

ETXE ADMINISTRATIOAK

URIBESALGO ADMINISTRATIOAK
ARRASATE / Pablo Uranga 3, behea
Tel.: 943 79 51 25
uribesalgo@uribesalgo.es

Patioa ofizialki irekiko dute, bidelagunei begira

Aranzadi ikastolak gaur inauguratuko du atzeko patio berritua, 2017an abiatutako prozesuan modu batera edo bestera lagundu duten bidelagunei esker ona adierazteko; urtarilaren 17an hasi ziren umeak eskola orduetan jolasleku berritua erabiltzen

Jokin Bereziartua BERGARA

Aranzadi ikastolak gaur arratsaldean inauguratuko du ofizialki eraikinaren atzealdeko patio eraberritua. Zuzeneko musika eta bertako produktuekin egindako mokadutxoak ez dira faltako prozesuan parte hartu dutenei esker ona adieraztea helburu duen ekitaldian: "Eskerrak eman nahi dizkiegu parte-hartze prozesua diseinatu eta gauzatu duten guraso eta irakasleei, auzolanean buru-belarri aritu diren ikasle, guraso eta irakasleei, berrerabiltzeko materiala eskaini diguten herritar eta enpresei...".

"Inklusiboa eta hezitzailea"

2017an abiatutako proiektua da atzeko patioan jolasleku "inklusibo eta hezitzailea" sortzearena: "Parte-hartze prozesu emankorra gauzatu zen 4-5 urteko ikasleekin eta hainbat irakasle eta gurasorekin, eta bertan zehaztu zituzten patioak jaso beharreko hainbat elementu: jolas sinbolikorako bitartekoak, etxolak, material naturalak –egurrak, lurra, ura, landareak...–, harea-gunea, oreka-jolasak... Guzti-guztiak haurrek esperimentatzeko duten beharra asetzeko". Umeen behar eta nahi horietatik abiatuta, proiektua diseinatu eta 2021eko udaberrian



Patio eraberritua ezagutzeko familiekin egindako bisitetako bat. THE BADASS PROJECT

UMEEN BEHARRAK ETA NAHIAK HARTU DITUZTE AINTZAT PATIO BERRIA DISEINATZERAKOAN

ekin zioten espazioa birgaitzeari. Lehenengo fasean, udaberrian, garbiketa eta saneamendu orokorra egin zuten eta udazkenean zehar jolas-lekurako instalazio guztiak eraiki zituzten. Aranzadiko arduradunek bereziki hiru

ezaugarriengatik ematen diote "balio erantsia" patio berriari: "Inklusiboa, jasangarria eta tokikoa" dela. Inklusiboa, haur guztiei eskaintzen dielako esperimentaziorako aukera; jasangarria, erabili duten material ia guztia berrerabilia delako –adibidez, beira-edukiontzia erabili dituzte etxolak egiteko, eta ur-bidoi handiak loreontzietarako–; eta tokikoa, instalazioak egiteko erabili duten egurra Euskal Herriko basoetan hazitakoa delako eta zuhaitz guztiak bertako espezieenak direlako".

Prozesu osoa, auzolanean egina

Prozesu osoa auzolanean egin dutela diote: "Ume eta gaztetxoei elkarlanaren balioa transmititu nahi diegu, elkarlanik gabe ez dagoelako herrigintzarik. Hala, guraso andanak, hainbat irakasle eta ikasleek hartu dute parte hiru hilabete luzeko auzolanean. Ikasleek teknologiko eta marrazketa artistikoko proiektuak garatu dituzte jolaslekuari ekarpena egiteko".



Ikasle bi patio berrirako erruberekin lanean. ARANZADI



NIRE USTEZ

AINHOA PARDINA

Heriotzak sortutako hotza

Azkenaldian, sarri galdetu diot neure buruari ea zer ote den heriotza. Ez dakit hil den pertsonarentzat heriotzaren ostean zer dagoen, baina horrek ez dit loa galarazten. Beste ezjakintasun bat da loa galarazten didana: zer dago heriotzaren ostean bizirik gelditzen direnentzat?

Batzuentzat, heriotza mingarria eta hotza izan daiteke hasieran, eta min hori denborarekin lausotu egiten da. Ni, ordea, zure heriotza behin eta berriz bizitzen ari naiz. Lehenik, oraindik bizirik zeundenean, ingesatuta. Gero, zure gorpu hotza ikusi nuenean. Orain, bi hilabeteren ostean, zure usaina mantentzen duen jertsea garbitzera botatzean, jakinda posible dela zure usaina betiko galtzea. Hainbestetan bizi dut zure heriotza eta, hala ere, hain gutxi sinetsi... Baliabide literarioak gabeko eta gutun itxurako zutabe hau aprobetxatu nahi dut zu agurtzeko, amama, zauden tokian zaudela, baita faltan botatzen zaitudala esateko eta besarkada estu bat bidaltzeko ere. Zure heriotzak benetako hotza sortu dit, baina, aldi berean, beti eman didazun maitasunak berotzen jarraitzen nau.

GORA ETA BEHERA




Esker on mezua, frontoian baranda jartzeagatik

Bandaren kontzertuetara joateko ohitura duen adineko herritar batek txalotu egin du Udalak harmailetarako eskaileretan baranda jarri izana: "Eskatu genuen, eta oso ondo geratu da. Ez gara gaizki egindakoez bakarrik kexatuko; gauzak ondo egiten direnean txalotu ere egin behar da".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus

edo 688 69 00 07.



B.U.

Azken egunak irabazi asmo bako laguntzak justifikatzeko

Irabazi asmorik gabeko elkarreentzat, enpresentzat eta ekin-tzaileentzat 2021. urterako Udalak ezarritako dirulaguntza-programen deialdi irekira aurkeztutako entitateek jasotako laguntzen justifikazioa aurkeztu behar dute urtarilaren 31 baino lehen. Elkarreentzat honako arlo hauetakoak dira: gobernu kanpoko erakundeak (GKE), gizarte zerbitzuen

arloko elkarreentzat, berdintasunaren aldeko ekintzak garatzeko elkarreentzat, kultura taldeek egiten dituzten urteko jarduerak finantzatzeko laguntzak, kirol elkarreentzat ohiko eta ezohiko jarduerak finantzatzeko laguntzak eta ingurumeneko elkarreentzat urteko jarduerak finantzatzeko laguntzak. Enpresa eta ekintzaileei dago-kienez, dirulaguntzak bideratuko dira enpresa berriek lokala alokatzea eta Bergaran finkatutako enpresendako dirulaguntzak –Eragin programa–.

"Ipintza bigarren etxea izan da niretako"

IDOIA HERRAN BERGARA FUTBOL TALDEKO JOKALARIA

25 urteko erdilariak futbola uzteko erabakia hartu du belaunak okerrera egin aurretik; emakumezkoen futbolak azken hamarkadan egin duen bidearen testigu izan da

Xabier Urzelai BERGARA

Herriko futbol taldean jokatu du Idoia Herranek (Bergara, 1996) gazte-gaztetatik. Orain, 25 urterekin, futbola uztea erabaki du, belauneko desgasteak okerrera egin aurretik. Ez da erabaki erraza izan, eta bizikletan, pedalei eragiten, beteko ditu etorkizunean futbolarekin beteko ez dituen orduak. Taldeak, baina, zale bat gehiago izango du Ipintzako harmailetan.

Zer moduz zaude? Izan ere, halako erabakiak ez dira errazak.

Bai, baina belauna bizitza osorako da eta nahiago dut zaindu. Denboratxoa neraman belauneko minarekin, eta duela hiru hilabete inguru erresonantzia egin zidaten. Belaunean nire adinerako oso ohikoa ez den desgastea dudala esan zidaten, eta hobe nuela futbola uztea. Hori entzunda, ibili naiz beste espezialista batzuei galdetzen, beste iritzi batzuk batzen, eta bai, inpaktuzko kirol jarduerak alde batera uzteko gomendatu didate. Horixe da dagoena.

Denbora tarte honetan jokatzeko jarraitu duzu?

Ez. Bueno, Gabonetan taldearekin entrenatu nintzen, sekulako futbola gogoia neukalako, eta ez nuen aparteko arazorik izan, baina denboratxoa neramalako

geldirik. Badakit lesioa hor da goela, eta jokatzeko jarraitzen badut ostera ere okerrera egin duela. Jarraitzeak ez dauka zentzurik.

Partiduak harmailetatik jarraitu behar...

Hantxe izaten naiz. Etxeko partiduetara joaten naiz, eta baita kanpoko partidu batzuetara ere, baina aitortu behar dut inbidia pasatzen dudala.

Urteak egin dituzu futboleant, taldeko beteranoetako bat izango zara...

Badaude ni baino nagusiagoak, baina bai, dagoeneko ni ere taldeko beteranoetako bat naiz.



Idoia Herran. BKE

Eta zer nabarmenduko zenuke urte hauetatik guztietatik? Zer eman dizu futbolak?

Urte hauetan guztietan futbolari esker ezagutu dudak jendeaz geratzen naiz, eta taldean izan dugun giroaz. Azken batean, ia urtero izan ditugu taldean aldatetakoak, batzuk joan egiten ziren, jokalariek bertan etortzen ziren, eta horrek eman dit aukera jende asko ezagutzeko. Niretako bigarren familia modukoa da Bergarako futbol taldea, eta Ipintza bigarren etxea.

Emaitzei begira, denetarikoz izango zenituen, baina azken urteotan Bergara momentu gozoan dagoela esango nuke, Euskal Ligan jokatzeko...

Bai, baina begira, horri ez diot askorik erreparatzen. Ez dakit zer egin dudak gehiago, irabazi ala galdu, eta egia da garaipenak beste poztasun bat ematen duela, baina ez naiz horrekin itsutzen den horietakoa.

Ipintza zaharra eta berria ezagutu dituzu. Alde ona... Baita futboleant ere aurrerapausoa emateko.

Bai, aldaketa handia izan zen. Batetik espazioa bera hobeto aprobetxatzeko aukera ematen duelako, eta aldagelak ere be-

riak jarri zituzten. Baina futboleant hobeto jokatzeko ikastea ere aukera eman zigun horrek, hareazko zelaietan zaila izaten zen hori.

Pentsatu duzu entrenatzaile hastea? Oraingoan, ez; lanean ere banabil eta ez daukat denbora askorik. Baina kadete mailako taldeko entrenatzaile izan naiz lehenago ere, badakit zer den eta esperientzia polita izan zen, oroitza-pen ona daukat. Etorkizunean ez dakit zer egingo dudak.

Urte hauetan guztietan emakumezkoen futbola asko aldatu da, baita klub mailan ere. Bergaran barrutik biziko zenuen hori.

Bai, borrokan ibili gara gizonetzkoekiko genituen ezberdintasunak txikitzen joan zitezela, eta joan gara bidea egiten. Material berbera izatea, arropak eta bestelakoak... Gogoan dut gaztetan inork ez zigula kasu handirik egiten, ez ziguten futboleant jokatzeko irakasten, hor geunden, baina... Aldaketa bakarra izaten genuen guretako, ordutegi txarretan jokatu edo entrenatzen ginen... Zorionez, baina, hori badoa aldatzen; izan ere, entrenatzaile onak ditugu gaztetatik, aintzat hartzen gaituzte, nahiz eta oraindik bide luzea geratzen den egiteko.

Kirolzalea izanda, futbola alboratuta zertan emango dituzu orduak?

Inpaktuzko kirolak ez zaizkit komeni, eta bizikletan ibiltzen naiz gustura. Gimnasia eta halakoetara ere joango naiz, baina, seguruenik, bizikletak ordezkatuko du futbola.

Batek daki, akaso, futbol taldeak kide bat galdu du, baina Lokatzak irabaziko du.

Kar, kar, kar; ez, ez dut uste bizikleta halako serio hartuko dudarik.

Taldekieek omenaldia egin zioten

Amaiak Baten kontrako partiduen atarikoan sorpresaz jaso zuen Idoia Herranek taldekideek egin zioten omenaldia: "Zerbait espero nuen, txoritxo bati nahi gabe ihes egin ziolako; kar, kar, kar. Izugarritzko ilusioa egin zidan detaile horrek". *Animo Ido!* leloa zuen pankartarekin irten ziren taldekideak, eta 8 zenbakidun elastikoarekin.



Herran, beheko lerroan ezkerretik laugarrena, hunkituta. BKE

Mailari eusteko aurrerapausoa

Burdinolako senior mailako emakumezkoen pauso handia eman dute asteburuan, Galizian, Espainiako Txapelketan jarraitu ahal izateko. Hiru partidu jokatu zituzten, eta bi irabazi; asteburua ez zuten ondo hasi, Meigasekoen kontra 0-4 galdu zuten eta. Ondoren, baina, España eta CPL Madrid mendean hartu zituzten, eta puntu garrantzitsuak batu.



BURDINOLA

Domekan 'finala' dute Zumaiako Pulporen kontra

Domekan (11:30, Labegaraieta), Soralue Bergarak ligako lehenengo postuan dagoen Pulpokoek kontra finala izango du. Izan ere, igoera faserako sailkatzeko partidu erabakigarria izango da. Mahoneroek, gutxienez, berdindu egin behar dute norgehiagoka aurrera egin ahal izateko; Ormaiztegi eta Salleko puntu batera daude.



Tolosaren kontrako partiduan. GOIENA

Musika, ahalduntzerako instrumentu gisa hartuta

Jabekuntza Eskolaren barruan, Olatz Salvadorrek 'Musika eta ahalduntzea' saioa gidatuko du bihar Agorrosinen, 10:00etatik 14:00etara; eskola hartzaileen arabera egokituko badu ere, abesti bat sortzeko prozesua era praktikoan azalduko du

Jokin Bereziartua BERGARA

Emakumeen parte hartze soziala eta politikoa sustatzea helburu duen Jabekuntza Eskolaren barruan, Olatz Salvadorrek *Musika eta ahalduntzea* izeneko saioa gidatuko du bihar, urtarrilak 29, Agorrosinen, 10:00etatik 14:00etara. Biharko saioan, besteak beste, musika munduan gertatzen diren genero desorekak aztertuko dituzte, sorkuntza musikalean sakonduko dute eta jendaurrean aurkezteko tresnak landuko dituzte.

Helburuen arabera egokitu

Hori bai, saioa hartzaileen beharren eta helburuen arabera egokitzen duela azpimarratu du Salvadorrek: "Hitz egin izan dugu generoak espazio publikoan duen eraginari buruz, bereziki, arlo teorikotik, beste batzuek nahiago izaten dute harira joan eta kantu bat sortu, denboran luzeagoak diren saioetan hartzaileek herdoilduta duten instrumentu bat ekartzeko eskatu izan diet eta horri heldu izan diogu... Bergarako saioan egingo dudan lehenengo gauza izango da datozenei helburuei buruz galdetu eta horren arabera adar bati edo besteari heldu".

Ikerketak egin izan ditu Salvadorrek beste emakume musikari batzuekin batera, eta ondorio bat jarri du adibide moduan: "Agertokira heltzeko orduan, emakumeok gizonetakoak ez dituzten hainbat beldur, segurtasunik eza eta epai bizi izaten ditugu, eta ikusi genuen beharrezkoa zela zubi-lana egitea; horregatik sortu zen tailerra, hein batean. Esaterako, musika eskola baten instrumentua jotzen ikasi duen emakume batek zuzeneko bat ematera arteko prozesuan frogatuta dago hainbat emakume bide horretan erori egiten direla. Ikastaro honetan lantzen dugun gaietako bat da espazio publiko bat okupatzeko



Olatz Salvador musikaria, *Ttáp* aldizkari multimediari emandako elkarrizketan. TTAP

EMAKUMEEK ESPAZIO PUBLIKOA HARTZEKO IZAN OHI DITUZTEN ZAILTASUNEZ ARITUKO DIRA, BESTEAK BESTE

orduan emakumeok bizi izaten ditugun zailtasunak zeintzuk izaten diren, eta egoera horri buelta emateko gako batzuk ematen saiatzen gara".

"Edonork sor dezake kantu bat"

Gainera, abestia sortzeko prozesuaz ere arituko dira: letrak idatzi, doinuak sortu eta abestiak interpretatu. Salvadorrek dioenez, guztiok sortu dezakegu-eta abesti bat: "Askok uste dute abesti bat sortzea magia egitea dela edo argi berezi bat duten izakiek bakarrik egin dezaketen zerbait dela, eta ez da horrela. Gainerako saio guztietan frogatu izan dugu edonork izan daitekeela gai abesti bat sortzeko. Oso sorpresa politak hartu izan ditugu; norbaitek bat-batean deskubritu dezake ordura arte ezezaguna zitzaion mundu berri bat".

Eskola hauen "garrantzia"

Jabekuntza Eskolaren garrantzia azpimarratu du, era berean, Berdintasun zinegotzi Ainhoa Letek: "Eskola batzuk ezin izan dira antolatu asistentzia faltagatik, baina uste dugu oso garrantzitsuak direla, emakumeon parte-hartze soziala eta politikoa sustatzeko ezinbesteko erremintak direlako eta ahalduntze-prozesuen bidez gizarte justuagoa eta osoagoa lortu ahal izango dugulako. Askotariko gaiak lantzen dira eta askotariko profiletako emakumeei bideratzen zaie".


Badira lau bat urte eskola hauek antolatzen direla Udaleko Berdintasun Saitetik, eta, Letek oraindik Bergaran errotu ez direla aitortu arren, saiakerak egiten jarraituko dutela adierazi du. Biharko Olatz Salvadorren aurretik beste bi saio egin dira azken hilabeteen: lehena, Ainara Gorostizuk gidatutako *Amatasun praktika bizigarriagoak*; eta bigarrena, Maria Juncayk gidatutako *Zaintza lanak eta ekintzaitza emakume migratuentzat*. Parte-hartzea doakoa da, baina izena eman behar da: 943 77 91 00 edo berdintasuna@bergara.eus.

Zailtasunen gaineratik, bandak "ohiko" kontzertua eskainiko du

Bandaren jardunetik kanpo musikari asko kutsatu dira eta arazoak izan dituzte entseatzeko; etzi da, frontoian (12:30)

J.B. BERGARA

190 urte beteko ditu aurten musika bandak, 1832an Udaleko banda bezala sortu zenetik etetik gabeko jardueran dihardute eta. Hori bai, garai zailak bizi dituztela aitortu du Enrike Txurruka zuzendariak: "Ez dira sasoi egokienak, baina saiatuko gara aurten zerbait berezia egiten". Urteurrenak urteurren, domekan "ohiko kontzertua" emango dutela aurreratu du Txurrukak. Bost pieza joko dituzte; hilaren 30ean, 12:30ean hasita, udal pilotalekuan.



Banda, Santa Zeziliaren omenezkoan. J.B.

Positibo asko musikarien artean

Musikarien artean positibo asko izaten ari direla dio Txurrukak: "Segurtasun protokoloekin jarraitzen dugu, eta, zorionez, oraindik bandaren jardueran sortutako kutsatzeen berririk ez dugu izan. Hala ere, musika-

ri asko kutsatzen ari dira eta baja asko izaten ari gara, bai entseatzeko eta baita kontzerturako ere. Hau ikusita, errepertorio zailagirik ezin izan dugu sartu. Baina, betiko moduan, egitarau bariatua prestatu dugu, gustu guztietarako aproposa".

Alai: 50. urteurreneko kontzertua atzeratu egin dute, birusagatik

2021ean bete zituen 50 urte Alai abesbatzak. Kaleko giroa kantuz alaitzeko helburuarekin sortu zen ahots larrien abesbatza modura, 1971n. Taldeak mende erdi bete duela-eta kontzertu berezia eman behar zuten zapatu honetan Seminarixoan, baina COVID-19ak azken asteotan sortu duen egoera dela-eta emanaldi berezi hori atzeratzea erabaki

dute. Taldeko zuzendari Xabier Olabarriaren arabera, egoerak hobera egiten duenean elkartuko dira entseatu eta emanaldia prestatzeko: "Ez dakit zehazten noiz izango den; udaberri partean, akaso... Baina kontzertu hori eman behar dugu. Adinean aurrera goaz eta ez dago belaualdi aldaketarik; garai batean, hamazazpi kidek osatzen genuen taldea, eta gaur egun, zortzi izango gara. Abesbatzaren azken emanaldia izan daiteke, eta, beraz, oso berezia izango da".

'Bidea da borroka' komikia aurkeztuko dute otsailaren 4an

Unai eta Beñat Gaztelumendik *Bidea da borroka* komikia aurkeztuko dute otsailaren 4an kartzela zaharrean (20:15). Gaztelumendi anaiek egin dute komikia, Beñatek gidaria eta Unaiak marrazkiak, eta *Bertsolari* aldizkariak argitaratu du. Zuzeneko bertsoez eta marrazkiez gozatze-ko aukera egongo da ordubete inguru iraungo duen emanaldian.

Vicente Iriondoren koadroez gozatze-ko aukera Aroztegin

Vicente Iriondo (Eibar, 1953) margolariaren koadroak ikusgai izango dira Aroztegi aretoan, gaur hasi eta otsailaren 13ra bitartean. Honako ordutegi honetan bisitatu ahalgo da erakusketa: martitzenetik egubakoitzera, 18:00etatik 20:30era; zapatuetan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era; eta, domeketan, 12:00etatik 14:00etara.

Okm: *batzen gaituen distantzia*

Egin zaitez goienakide!

**goiena[“]
kide**



www.goiena.eus/kideak



Komunitatea, eskola ereduaren indargarri

40 urteko ibilbidea duen Herri Eskolako eredu pedagogikoaren gaineko hirugarren tesia aurkeztu berri du Maitane Basasorok, Antzuolako eskolako irakasle ohiak eta EHUko irakasleak. Komunitatearen indarrak eta garrantziaz jardun du

Maidar Arregi ANTZUOLA

Antzuolako Herri Eskola ikaslea ardatz duen hezkuntza eredu pedagogikoan aitzindaria da. Ikaslearen ongizatea bilatzen duen etengabeko hezkuntza-proiektua da. Ikasleak erabakiak hartzean ditu, eta ikas-kuntza prozesuan protagonismoa dauka, irakaslea bidelagun duela. Komunitatearen indarra ezinbestekoa da, ordea, ikaske-ta bidaia honetan. Eta Antzuolako ereduaren garrantziaz jakitun, Maitane Basasoro irakasle eta ikertzaileak doktore-tesia aurkeztu berri du: "Antzuolako eredu berritzaile gisa nazio eta nazioarte mailan ezaguna da, eta Hezkuntza Sailak ere hala berretsi du. Hori indartzen duten argitalpen zientifikoak badaude, eta baita aurretik egin-dako beste bi doktore-tesi ere: Xabier Arregirena eta Andoni Argiñanorena. Master amaierako lana hemen egin nuen, eta ikusi nuen bazela gune aproposa ikaslearen parte-hartzearen inguruan arakatzeko. Garrantzitsua izan da 40 urteko ibilbidea izatea ereduak, eta esanguratsua ere eskola publikotik abiatutako proiektua izatea".

Ikaslea erdigunean jartzea herritar eta pertsona bezala hazteko eta hezteko garrantzitsua



Basasoro Antzuolako Herri Eskolan. M.A.

IKASLEA ARDATZ, CURRICULUM PARTE-HARTZAILEAREN GARRANTZIA JASOTZEN DU TESIAN

dela dio ikerlari oreretarrak: "Proiektuak ikaslearen interes eta jakin-minetatik abiatzen dira. Erabakitzen dute zer jakin eta egin nahi duten eurek erabakitzen duten proiektu baten baitan. Curriculum parte-hartzaileak ere

egin daiteke ikaslearen interesetatik abiatuta. Irakaslearen begiradaren garrantzia ere azpimarratzen dut tesian, baita curriculum parte hartzailearen garrantzia ere; antolaketa eredu birpentsatzearen inguruan klabeak ere jaso ditut".

Komunitatearen indarra

28 belaunalditako ikasle ohien bizipenak jaso ditu. "Horien parte hartzea sustatzen duten gakoak identifikatzeko eztabaidak egin ditut. Komunitatea eskolaren parte ere badelako".



Herritar bat Kalebarrenen gora. M.A.

Sei biztanle gutxiagorekin hasi du 2022. urtea Antzuolak

INEren arabera, eta beheranzko joerari eutsita, 2021. urtea 2.081 biztanlerekin amaitu du Antzuolak

M.A. ANTZUOLA

2021eko eroldako datuen arabera, urtea sei biztanle gutxiagorekin amaitu du Antzuolak. Erroldako datuetan kontuan hartzen diren jaiotza, heriotza eta erresidentzia aldaketa datuen arabera, Antzuolak biztanleak galdu ditu azken urtean, beheranzko joerari eutsita.

2021eko urtarrilaren 1etik 2021ko abenduaren 31ra bitartean hamahiru haur jaio ziren Antzuolan: lau mutil eta bederatzi neska; hil, aldiz, hemeretzi herritar hil ziren, hamabi emakumezko eta zazpi gizonezko.

2020an, urtarrilaren 1etik 2021ko abenduaren 31ra bitartean bederatzi haur jaio ziren Antzuolan: hiru mutil eta sei neska; hil, aldiz, hogeita hiru herritar hil ziren, hamaika emakumezko eta hamabi gizonezko.

Datu horiek kontuan hartuta, 2021ean sei biztanle galdu zituen Antzuolak. 2020ko urtarrilaren 1ean, 2.107 biztanle zeuden erroldatuta Antzuolan; eta 2021eko urte hasieran, berriaz, 2.093 ziren erroldatuta -14 biztanle gutxiago-. 2021. urtea, ordea, INEren arabera, 2.081 herritarrekin amaitu du Antzuolak.

Otsaileko egitaraua mendizaletasunez blai dator

Otsailaren bigarren astebururako, elurraz gozatzeko irteera antolatu du Arrolak; izen-ematea zabalik dago

M.A. ANTZUOLA

Iraupen-eskiaz nahiz erraketekin txangoa egiteko asmoz antolatu du irteera Arrola Mendi taldeak. Hala, otsailaren 12an, zapatua, goizaldean abiatuko dira Belaguara. Asteburu osoko irteera izango da eta 70 euroko prezioa du -garraioa, materialaren alokairua, afaria, lo-lekua eta gosaria barne-. Izena emateko mezua bidali behar da arrolamt@gmail.com helbidera.

Otsailaren 17an, Jokin Lizeaga mendi korrikalaria etorriko da hitzaldia eskaintzera Torre-

soara, 19:00etan. Mendi lasterketen entrenamenduaz jardungo du, bereziki. Mendi korrikalari urnietarrak baina, istripu larria izan zuen 2018ko apirilaren 7an Cabralesen, Asturiasen. Mendi maratoni bat egiten ari zela, 14 metroko zulo batera erori zen. Handik ia hiru ordura, bizirik atera zuten. Bizitako esperientzia gogorra ere gogora ekarriko du Lizeagak.

Mendia eta mendizaletasuna oinarri dituen bi ekintza hauek Arrolak 50. urteurrenaren baitan antolatutakoak dira.

Ikerlari jardunaldiak

Askotariko diziplinak batzen dituzten Ikerlari jardunaldiak egin zituzten iazko ekainean. Eskolako hezkuntza proiektua izan zuen aztergai Maitane Basasoro ikertzaile eta pedagogoak.

Antzuolako ikasle ohien bizipenak jaso zituen, eta parte-hartzea sustatzeko gako pedagogikoak eman zituen jardunaldietan.



Maitane Basasoro, Ikerlari jardunaldietan. M.B.



Antzuolako udal gimnasioa makina berriekin hornituta. M.A.

80 herritarrek egin dute bazkidetza, oraingoz

Aurreko asteko udal gimnasioko ate irekien arrakasta ikusita, gaur goizean eta arratsaldean askotariko jarduerak eskainiko dituzte; bihar, aldiz, 09:30etik 12:30era bitartean izango dute herritarrek askotariko kirolak probatzeko aukera

Maidar Arregi ANTZUOLA

Martitzenean, urtarrileko ohiko osoko bilkura egin zuten Antzuolan. Gai bakarra esku artean eta adostasun osoa; izan ere, aho batez onartu zuten udal gimnasioaren arautegia eta funtzionamendua.

Hala, fitness gelaren erabilera soilik bazkideendako izango da eta bazkideek giltza elektronikoki pertsonala izango dute gimnasiora sartzeko.

Gainera, bazkide direnek soilik dute aldagela eta dutxa erabiltzeko aukera; bazkide ez direnek, ordea, komunak erabili ditzakete, eta monitorerekin egin beharko dute sartu-irtena. "Bazkideetza bidez funtzionatuko du eta bazkide bakoitzak bere giltza izango du 08:30etik 21:00etara bitartean sartzeko. Horrekin batera, aukera izango dute bazkideek bertan egongo diren monitoreen bitartez kirol plan pertsonalizatua egiteko eta zailtzak argitzeko", azaldu du Kirol zinegotzi Garazi Larreak.

Kirola sustatzea helburu

Kuotari dagokionez, hilero 12 euro ordaindu beharko dute bazkideek eta ikastaroak erdi prezioan jasotzeko aukera izango dute; bazkide ez direnendako, ordea, jarduera bakoitza hilero 56 eurokoa izango da. "Ikastaroak herritar orori begira antolatutakoak dira: spinninga, pilatesa, hirugarren adinekoentzako gimnasia, zumba eta zumba gaztea. Eta gimnasioko bazkideek deskontua izango dute horietan".

Egunotako ate irekietan herritar asko ibili da, eta harrera ona izan duela aitortu du Larreak: "Hiru egunez eduki genituen ate irekiak, eta herritar ugari animatu da, eta, oraingoz, 80 pertsona inguruk eman du izena.

**ASTELEHENEAN
IREKIKO DITU ATEAK
GIMNASIOAK; BAZKIDE
EGITEKO, UDALETXERA
JO BEHARKO DA**

Herritarrek, gainera, diote oso gustura daudela bertako instalazioarekin. Horregatik, aste honetan ere eskainiko ditugu ate irekiak". Izan ere, ahalik eta herritar gehientsuenengana kirola gerturatzeko helburua dutela azpimarratu du: "Gimnasioa zabaltzea zen gure helburua, eta herritarrek kirola egitera bultzatzea. Horregatik, kuota baxua jarri dugu".

Hala, ate irekiak gaurko eta biharko ere antolatu dituzte. Gaur, goizean nahiz arratsaldean askotariko jarduerak eskainiko dira gimnasioan; bihar, aldiz, goizean, 09:30etik 12:30era bitartean.

COVID-19ari aurre egiteko protokoloari jarraituz, eskuetako gelaz eta maskaraz gain, norberak erabilitako makinak garbitu beharko ditu bertan egongo diren garbigarriekin. Astelehenean irekiko ditu ateak gimnasioak, eta bazkide egin nahi duenak izena eman beharko du udaletxean.

Gazte txoko berria "ilusioz" estreinatu dute asteburuan

Lokal berrira trasteak lekualdatzen eta dekorazio lanak egiten jardun dute gaztetxo antzuolarrek

M.A. ANTZUOLA

Omikron aldaerak eraginda, gazte txoko berriaren irekiera atzeratu egin behar izan dute, baina jada herriko gaztetxoek estreinatu dute lokal berria. "Egungo egoera dela-eta gazte txokoa bi astez itxita edukitzea erabaki genuen. Baina ilusio handiz abiatu dugu ikasturtea", kontatu du Zumaia Elkoro dinamizatzaileak. "Urtarrileko programazioaren baitan, lokalaren lekualdatzea –lokal zaharretik berrira trasteak elkarlanean eramatea–, gazte txokoa dekoratzea zein pelikulak ikustea dugu aurreikusita. Lehen asteburua oso ondo joan da; 45 gazte inguru etorri zen laguntzera eta lokal berria estreintzera. Lokalaren erabilera arauak ere adostu ditugu elkarrekin".

Rokodromoa ere bertan izanik, eskalatzeko aprobeztatu dutela



Gazte txokoko irekiera eguna. Z.E.

gaztetxoek kontatu du dinamizatzaileak –gazte txokoko ordu-tegian, ezingo dute herritarrek rokodromoa erabili–.

Otsailtik aurrera tailer eta ekintza gehiago egingo dituztela dio gazte txokoko dinamizatzaile Elkorok.

Iturriak itxita udaberrira arte

Urtero neguan itxi egiten ditu Antzuolako Udalak herriko iturriak, bestela izotzak puskatu egiten ditu eta. Aurten, ordea, izotzak aurre hartu eta bere lana egin du jada: hiru iturri puskatu ditu. Hori dela-eta, konpondu eta itxi egin ditu Udalak. Udaberriaren berriro irekiko dituzte –Zurrategi plazako iturria da martxan dagoen bakarrenetakoa–.



M.A.

Opilak eta kandelak bedeinkatuko dituzte otsailaren 3an

Tradizioari hutsik egin gabe, otsailaren 3an, San Blas egunean, kandelak eta San Blas opilak bedeinkatuko dituzte Antzuolako Errukizko Amaren parrokiaren. Arratsaldeko zazpitan egingo dute ekitaldia, eta herritar oro animatu nahi dute.

"Leku askotan galdu egin den ohitura polita da, baina Antzuolan ondo eutsi zaio, zorionez.

Ekitaldi oso ederra da, eta gazte, haur zein heldu animatu nahi ditut elizara San Blas egunean parte har dezaten", azaldu du Juanita Zabalok.

Antzuolako Basalde auzoko San Blas ermitaren bueltan aurten ere ez da festa eta ospakizunik egingo. Ezta ere opilen eta kandelaren bedeinkapena, edota haurrendako gozoki banaketa. Egun berezia izan ohi da, batez ere, haurrendako, eta asko dira San Blas egunean bertara joan ohi direnak.

Gerra hasi aurreko urteetan, lehen mailako margolaria Elgetan

Zarauztarra zen Mauricio Flores Kaperotxipi (1901-1997) eta txikitatik garatu zuen marrazketarako zaletasuna. Mundu zabaletan ibili zen, baina 30eko hamarkadan Elgeta aukeratu zuen estudioa jartzeko. Bertan harrapatu zuen 36ko gerrak

Larraitx Zeberio Lekuona ELGETA

Goiz hasi zen margolaritzan *Kaperu*, eta haren margolanetako bat Donostiako erakusleihobatean ikusi ostean hartu zuen babespean bikote dirudun batek. Hala, Madrilen ikasteko aukera izan zuen eta bertan egindako zortzi urteko egonaldian bidaiatzeko eta beste artista asko ezagutzeko aukera izan zuen; hala nola Montes Iturriz, Julio Beobide, Bienabe Artia eta Salvador Dali.

Sariketak irabazi zituen, erakusketak egin zituen eta prentsarako kolaborazioak idazten hasi zen. Oso ospetsu egin ziren 1926tik aurrera *Tipos y figuras del país* izenburupean *El Pueblo Vasco* egunkarian argitaratzen zizkioten erretratuak. Poliki-poliki, ezagunago egiten hasi zen. Argentinara ere gonbidatu zuten. Urte erdi egin zuen han 30eko hamarkada hasieran.

Ez dago argi noiz heldu zen Mauricio Flores Kaperotxipi Elgetara. Dokumentatuta dagoena da bertan harrapatu zuela gerrak. *El cinturón de hierro de Bilbao* iritzi artikuluan kontatzen du: "Gerra izango zenik gutxien sinesten zueneta bat nintzen. Euskal mendietan dagoen herrixka garaiean neukan estudioa. Apaiz erretoreak esaten zidan: 'Erokeria honek ezin du hamabost egun baino gehiago iraun'. Baina hamabost, hogeita hamar, berrogei pasa ziren. Goiz batean, automobil baten hotsak hautsi zuen isiltasuna. Atea ireki eta plaza txikiaren galtzada-harrien gainean utzi zuten hildako soldadu bat maindire batean bildua. (...) Hurrengo egunean armadako bi ofizial iritsi ziren. Bazter guztiak begiratu zituzten, eta esan zu-

ten: 'Etxe hau botako dugu eta atzekoan metrailadoreak jarriko ditugu leihoetan'. Apaiza zurbildu egin zen. Bere etxea zen. Nor ausartuko zen, lehenago, bere mahats-parral berdearen hosto bakar bat ere ukitzera? (...) Hirurogeita hamar egunen buruan kanoikadak entzuten hasi ginen. Gero eta hurbilago entzuten ziren. Domeka batez, iheslariz beterik esnatu zen herria. Gau berean egin genuen alde gure etxetik".

Bilborako bidea hartu zuen margolariak. Burdinazko Hesia eraikitze lanetan ere ikusi zuen bere burua. "Ai, hura lana! Lokatzetan sartuta, harriak eramanen, enborrak herrestan mugitzen. Eta, burutik kentzea ezinezkoa zen pentsamendu bat: Argentina eta haragi samurrez betetako bere harategiak, janariz betetako bere merkatuak, hango bizitza baketsua...!".

Mauricio Flores Kaperotxipik Bilbotik ere ihes egitea lortu zuen. Erbestera bidea hartu zuen. Kronika batek jasotzen du Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean aritu zela euskal artisten artelanean ebakuazioan.

Estudioa, Azkaratenean

San Roke kaleko Azkaratenean izan zuen estudioa Kaperotxipik. Gogoan dute edadeko elgetar askok. Pablo Uranga eta Ignacio Zuloaga margolariak ere Azkaratenean kokatu ziren. Uranga epealdi luzean, eta Zuloaga urtebete inguru, 1899an. "Elgetan igarotako urteetan, Domingo

MARGOLARITZA KOSTUNBRISTA EGITEN ZUEN, ETA ELGETARRAK ERE MARGOTU ZITUEN



Txistulari y señorita margolana. MAURICIO FLORES KAPEROTXIPI



Mauricio Flores Kaperotxipi, 1938an, Montevideon. 'PINTORES VASCOS Y NO VASCOS' LIBURUA

Azkaratek egiten zizkidan koadro-bastidoreak", azaltzen da *Kaperu*-ren idatzietan. "Arotz fina zen, eta edadekoa. Urangari ere berak egin zizkion han bizi izan zen bitartean".

Elgeta inspirazio iturri izan zen Kaperotxipirendako; eta, Elgeta baino gehiago, elgetarrak. Estilo kostunbrista lantzen zuen, eta orduko euskal gizartea erretaratzen duten margolan asko egin zituen. Jose Angel Urkia oñatiarrak 1930ko *Txistulari y señorita* aipatzen du. Bertan agertzen den neskatoa Bittori Irazabal elgetarra da, Urkiaren amama.

Luistxo Fernandez eibartarraren etxean ere gogoan dute Kaperotxipi, baina bestelako kontu batzuegatik. "Auto bakanetakoa zuen Flores Kaperotxipik Elgetan, eta gure aita eta aitita-amamen gerrako ihesaldiaren lehen etapa auto har-

tan hasi zen, 1936an, Elgetatik Elorriora. Gizon on haren laguntzarekin hasi zuten urtebete ihesaldia eta errefuxiatu bizitza".

Amaiketako margolanak ere badu lotura Elgetarekin. Elgetarrak ei dira bai amama bai aitaita.

Erbesteko urteak

Buenos Aires, Mendoza eta Mar de Plata izan zituen bizileku Kaperotxipik Argentinan. Margotzen eta idazten jarraitu zuen. Erbestean egonda, euskal nortasunari eusten lagundu zioten jarduera horiek. *Elgetako bohemioa* izenez ezagutzen den Pablo Urangaren biografia ere idatzi zuen, 1963an, non Elgetarekin lotutako pasarte ugari dauden. 1984an itzuli zen Kaperotxipi Zarautzera bizi izatera. Bertan eman zituen azken hamahiru urteak.



Amaiketako margolana. MAURICIO FLORES KAPEROTXIPI

Etxebizitza partekatua, hiru gazterentzat aukera

Medikuaren etxea izan den etxebizitzan obrak egin ditu Elgetako Udalak. Gazteentzat zuzenduta, alokairuko etxebizitza partekatua egiteko helburuarekin egin dituzte, eta herriko gazteei informazioa helarazi diete, ekarpenak eta proposamenak jasotzeko

Imanol Beloki Unamuno ELGETA

Elgetan bada arazo bat beste hainbat herritako bizilagunek ere sufritzen dutena: etxebizitza. Zenbait etxe hutsik daude, baina alokatu gabe dituzte beraien jabeek kasu askotan, edo horien prezioa handia da askorentzat. Egoera hori zuzenean gazteek sufritzen dute sarritan, eta, emantzipatzeko dituzten arazoak ikusita, gazte bati alokatzea bariarik, etxe partekatu baten ideia proposatu eta hiru gazterentzat lekua egokitzeko lanak egin dituzte Elgetako plazan, udal jabetzako etxebizitzan.

"Plazako etxebizitza azken 30 urteetan, behintzat, Elgetako Udalaren jabetzako izan da, nik dakidala. Herriko medikuaren etxe moduan erabili izan da; alokairua ordaintzen zion Udalari, eta erretiroa hartu zuen arte berak erabili du. Etxebizitza hutsik geratu zenean, behar berezi bat zuen familia bati alokatu zitzaien urtebetez, eta kontratua amaitzean, aztertzen aritu ginen zein erabilpen izan zezakeen, batez ere, herriarentzat ahalik eta aproposena izango litekeen zerbait egiteko asmoz eta erabilpena ahalik eta zabalena izateko. Aurreko parte-hartze prozesuetan, herriko gazteek emantzipatzeko duten beharra



Ane Bilbao Elgetako alkate-ordea etxebizitza erakusten. IMANOL BELOKI

ikusi zen, eta, hori horrela, etxebizitza partekatu bat egitea erabaki dugu", adierazi du Iraitz Lazkanok, Elgetako alkateak.

Eraberritze lanak

2020. urtearen amaieran egin zituzten udal jabetzako etxebizitzako lanak, eta etxea goitik behera berriro dute: lurra aldatu, paretak margotu, argiak eta leiho berriak jarri... Egon-gela, sukaldea, trastelekua, komun bat eta hiru logela ditu etxebizitzak, eta 35.000 euro inguruko aurrekontua bidera-

tu dute eraberritze lanetarako. "Lanei dagokienez, aipatzekoa da Elgetara etorri berri den Servimasa enpresak doanik jarri digula sukaldea, eta Udalaren partetik eskertu beharrean gaude herriko enpresa honek izan duen inplikazioa", adierazi du Lazkanok.

Ekarpenak jaso nahian

Gazteei zuzendutako etxebizitza partekatuen alokairurako arautegiaren zirriborro bat egin zuen Elgetako Udalak, eta errentan joan nahi duenak bete beha-



Hiru logela dituen etxebizitza

Erabiltzaileek sukaldea, egongela, trastelekua eta komun partekatua izango dituzte, eta bakoitzak bere gela izango du. Gela bakoitzak bere giltza du, eta, ezaugarriak zehaztea geratzen den arren, horiek dira plazako eraikineko etxebizitzak dituenak.

rreko ezaugarriak adierazteko eta ekarpen zein proposamenak jasotzeko bilera deitu zuten udal ordezkariak abendurako. Batzarrera jende gutxi agertu arren, ideiak interesa piztu zuela adierazi du Lazkanok: "Bi gazte soilik agertu ziren bilerara, baina beste hainbat interesdunek esan ziguten ezin izan zirela agertu. Hori horrela, urtarrilean, zirriborro hori 18 eta 30 urte bitarteko gazte guztiei bidali diegu, posta elektronikoz, bertan duten estekaren bitartez deskargatu ahal izango dutena, eta bertan proposamenak egin. Possible ikusten badugu, osoko bilkurara eraman beharko genuke, eta onartu. Feedbacka positiboa da, oraingoz, baina, hasiera batean, partekatutako etxea izateko prestatu dugu; ez bada aurrera irteten, bestelako erabilpen bat emango genioke".

Helburu garbia

Interesa duenak zenbait baldintza bete beharko ditu. "Urteko diru sarrera kopuru maximoa egongo da, 26.000 euro ingurukoa, eta ordaindu beharreko alokairua errentaren araberakoa izango da. Gutxienez, 90 euro izango dira hilabetean, gastuak barne". Horrekin batera, Lazkanok nabarmendu du etxebizitza partekatuen helburua ez dela bizi osorako alokairu bat eskaintzea, bi edo hiru urterako alokairua izango litzaiteke, gurasoen etxetik irten berri diren gazte horientzat.

HELBURUA DA EMANTZIPATU NAHI DUTEN GAZTEEI ALOKAIRU MERKEA ESKAINTZEA

Zilarrezko intsignia

25 odol-ematetik gora egin izanagatik zilarrezko intsignia eta diploma jaso ditu Emilio Rubio elgetarrak. Gipuzkoako odol-emaitzen elkarteak urtero egiten du diploma eta intsignia banaketa bazkari batekin, ekitaldi eran, baina, pandemia egoeragatik, Ozkarbi elkarteko zuzendaritza arduratu da Rubiori merezi duen entrega egiteaz.



OZKARBI ELKARTEA

OHARRAK

Koko-batzea: saio irekia

Otsailaren 19an egitekoa den koko-batzea prestatzeko saioa egingo dute gaur, 19:00etan, gimnasioan. Zalantzak argitzeko, moztaroen nolakotasunez berba egiteko, ordutegiak zehazteko...

'Eresia' antzezlan

Otsailaren 6an, 18:30ean, Espaloian izango da. Emanaldirako sarrerak bost eurotan egongo dira aurrez salgai Lola jatetxean eta edukiera bete arte egunean bertan leihatilan.

Baserri inguruko plastiko bilketa

Asteon egin du urteko lehen bilketa Mankomunitateak. Hurrengo hitzordua otsailaren 22an izango da.



Errekalde auzoan dagoen Jose de Azpiazu musika eskolaren sarrera. O.E.

Hasi dira etorkizuneko musika eskola zehazten

Zer-nolako zerbitzua eta eskaintza pedagogikoa eskaini behar dituen definitzen aritu ziren lehen lanketa saioan, eta izan behar duen gobernantza eredua eta espazioa izango dira gaur egingo duten bilera irekiko gaiak. Martxoan izango dute txostena

Oihana Elortza OÑATI

Etorkizuneko musika eskolak zer-nolako zerbitzua eman behar duen, nori eskaini behar dion, zer egin dezakeen egun heltzea kostatzen zaion sektore bat erakartzeko, ze funtzio bete beharko dituen, kulturako beste eragile edo elkarteekin nolako harremana izan behar duen, langilekoa nolakoa izan behar den... Horrelako gaiak izan zituzten hizpide musika eskola berria definitzeko egindako lehen saioan. Zerbitzua eta eskaintza pedagogikoa izan ziren gaiak. Bigarrena dute gaur, egubakoitza, eta ildo beretik joango da: parte-hartzaileek euren iritziak, esperientziak edo kezak argituko dituzte eta guztia txosten batean jasota geldituko da. Gero musika eskolaren oinarri izango den txostenean.

Lau lerro bi saiotan

Gaurko lanketa saioaren gaiak dira gobernantza eredua eta musika eskolaren eraikinak izan

beharko duen espazioa. Egungo gobernantza edo kudeaketa modua aproposa den edo beste eredu bat egon daitekeen, eta egotekotan nolakoa izan ahal den; horiek izango dira galderetako batzuk, eta espazio berriaren ingurukoak besteak. "Musika eskolako eragile zuzenekin aurrez elkarrizketak egin nituen eta lau lerro horiek definitu genituen lanketa saioak egiteko. Iritziak emateaz gain, baieztapen batzuk ere botatzen ditugu, eta horren gainean duten ekarpena jaso", dio musika eskolaren etorkizuna finkatzen laguntzeko Udalak kontratatu duen Hiritik At enpresako dinamizatzaile Maialen Arregik.

GOBERNANTZA ETA ESPAZIO BERRIA DIRA GAURKO LANKETA SAIOKO GAIK:
18:30EAN ELTZIAN

Eraikin berria

Eraikin berria non eta nolakoa izango den. Jakin-mina dago herrian hori jakiteko, baina zer zerbitzu eta eskaintza eman gura den zehaztu eta erabaki barik hori ezin dela jakin dio Udaleko Kultura batzordeburuak, Iñaki Olalde: "Lehenengo, jakin behar da zer eta nola eskaini gura duen bere eskaintza musika eskolak. Hor ikusiko da, adibide bat botatzearen, zenbat gela edo ze tamainatakoak beharko lituzkeen. Oraindik ezin da jakin nolakoa izango den, ezta non egongo den ere, tamaina edo ezaugarriak jakinda proposamen edo aukera bat beste bat baino hobea izan daitekeelako".

Musika eskolako zuzendaritzako kideak, irakasleak, hainbat ikasle eta ikasle ohi, herritar batzuk eta udal ordezkariak izan ziren lehen lanketa saioan; 20 bat laguneko taldea. Gaurko saioan ere hartuko dute parte, baina interesa duen edonor joan daiteke, irekia da.



Xabier Igartua, Garagartzako zentroaren aurrean. L.Z.

Transformadore berria, auto elektrikoek premiei aurreratuz

Garagartzako zentroan jarri dute eta hilabete da martxan dagoela. Hirugarren transformadorea da

O.E. OÑATI

Auto elektrikoek etorrerarekin etorkizunean egon daitezkeen premia berriak aurreikusita, Oñatiko argindar banaketa sareak, Oñargik, hirugarren transformadore bat ipini du martxan Garagartzako auzoko transformazio zentro nagusian. "Transformadore batekin herriko energi beharrak bideratzeko, erreserbakoa da bigarrena eta energia behar berriei erantzuteko jarri dugu hirugarrena", dio Oñatiko Udaleko Zerbitzuak Batzordeko buruak, Xabier Igartuak. Duela

hilabete inguru jarri zuten martxan hirugarrena.

Igartuak emandako datuen arabera, Oñargik, urtean, 320.000 bat euroko inbertsioak egiten ditu banaketa sarearen mantentze-lanetarako eta erronka berriei erantzuteko. Oñargi banaketa sarea da. Energia, berriz, Oñatiko Ur Jauziak-en sortzen da. 2021a urte oparoa izan da energia produkzioan. Orduko ia 12,8 gigawatt energia berriztagarri sortu ditu Ur Jauziak-ek, "Oñatiko herritarren kontsumo osoaren bestekoa".

GORA ETA BEHERA



"Ingurumena zaintzeko" eskaera

Zabor bilketan ari diren Mankomunitateko langileek zintzilikario inguruak zikin uzten dituzten kexa bidali du irakurle batek GOIENARA. "Denbora larregiz ari da gertatzen. Euren ordenantzak bete ez eta herritarrei eskatu ondo egitea. Lotsagarria", gaineratu du.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus
edo 688 69 00 07.



Gizarte arrakalaz, EH Bilduren azken saioan

'Hamar gai. Hamaika berba' hitzaldi zikloko hamargarren eta azken saioan, gizarte arrakalaren gaiaz arituko dira hiru aditu, datorren eguaztenean. Zikloaren balorazio positiboa egin du EH Bilduk, emaitzarekin "pozik" agertuta

Oihana Elortza OÑATI

Gizarte arrakala da EH Bilduk antolatutako *Hamar gai. Hamaika berba* hitzaldi zikloko azken solasaldian hizpide izango duten gaia. Hemengo egoera zein den, COVID-19ak ekarritako eragin sozioekonomikoa eta gizarte zerbitzuen sistema izango dira, besteak beste, berbagai izango dituzten puntuak.

Hiru aditu datoz

Felix Arrieta politologoa da solasaldian parte hartuko duen adituetako bat. Bere esanetan, zaintza eta elikadura gabezia, esaterako, dira pandemiak areagotu baina erakundearen erantzuna baina gehiago gizartearena jaso duten bi egoera. "Sistemak aurretik erantzun diezaioke horrelako egoera bati, pertsonaren duintasunari begira. Ze eredu jarraitzen den, ondorio bat edo beste izan dezake, eta garrantzitsua da horiek ondo lantzea. Orain, adibidez, gizarte zerbitzuetako Espainiako legea ari dira lantzen, eztabaida publikora zabaldu dute oraintsu. Iruditzen zait garrantzitsua dela tokiko egoeraren diagnosi bat egitea eta posizionamendu bat hartzea, zer-nolako ekintzak gura diren definitzen lagunduko du horrek eta".



Pertsona bat hutsik dagoen diru-zorroa erakusten. TOWFIQU BARBHUIYA

Arrietaz gain, Ana Sofi Telletxea Bizkaiko Caritaseko Análisi eta Garapen Saileko arduraduna eta EH Bilduko legebiltzarkide Nerea Kortajarena etorriko dira datorren asteko solasaldira. Pobreziaren edo bazterkeriaren inguruko datuak eskuan dituela egingo du berba lehenak eta hemendik aurrerako aukerei edo proposamenei buruz mintzatuko da bigarrena.

Balorazio emankorra

Hamar gai. Hamaika berba hitzaldi zikloko hamargarren eta

azken solasaldia izango da hau, eta zikloaren balorazio positiboa egin du EH Bilduk. "Emankorra" izan dela dio. "Helburua zen espazio bat sortzea gaiak sakanago landuz adituen eskutik eta herritarren parte-hartzearekin, eta pozik gaude emaitzarekin. Hizlariak ere gustura egon direla esan digute, beste aditu batzuekin batera solasaldian parte hartuz".

Gizarte arrakalari buruzko saioa eguaztenean, otsailak 2, izango da, 18:30ean, kultura etxeko zinema aretoan.

Interneten jarri dute Karitateko Alabei buruzko liburua

Interneten eta doan ikus eta irakur daiteke Iñaxio Irizarrek Karitateko Alabei buruz idatzitako liburua, *Karitateko Alabei esker onez*. Mojek Oñatin egin zituzten urteetan egindako lana laburbiltzen du liburu horrek. 253 argazki ditu; zaharrena 1920koa da eta berriena 2107ko otsailekoa, Oñati utzi zuten urtekoa, hain zuzen ere. Urte har-

tako udaberrian utzi zuten Oñati, bertan 153 urte egin ostean.

Euren historia jasotzen duen liburua idatzi zuen orduan Iñaxio Irizarrek Udalaren laguntzarekin. Ale guztiak agortu egin ziren, eta sarean zintzilikatzea pentsatu du, liburuaz galdezka joan baitzaio bat baino gehiago. Hala, <https://olaitturri.blogspot.com> webgunean dago liburu osoa, *Emanaldiak eta liburuak* atalean, doan, PDF formatuan, bertatik irakurtzeko edo jaisteko moduan.

Geldiune guztiak egingo ditu Oñati-Arrasate-Zumarragak

Oñati-Arrasate-Zumarraga lineako autobusa, DG04, Oñatiko eta Arrasateko geltoki guztietan geratuko da aurrerantzean eta 30 minutuko maiztasuna izango du astelehenetik ostiralera, eta ordukoa asteburuetan.

Aste honetan, eguenean, jarri ziren martxan aldaketa berriak. Hala, Oñatitik Legazpira edo Zumarragara joan gura duenak

ez du autobusez aldatu beharrik izango, baina Elorregitik Bergara aldera joan aurretik, Des-karga pasatzeko, Arrasateraino joango da; 50 bat minutu behar du Zumarragako tren geltokira iristeko. Lehengo ordu-tegiarekin sortzen ziren atzerapenak aurrerantzean ez gertatzeko egin dute aldaketa hau linea horretan.

Aldaketa hauek Udana mendateko obrak bukatu eta GI-2630 errepedearen zati hori zabaldu bitartean iraungo dute.

Nafarroako gazteluez mintzatuko da gaur Iñaki Sagredo

Nabarralderekin batera antolatutako jardunaldien barruan, Nafarroako Erresumaren gazteluez mintzatuko da gaur, egubakoitza, Iñaki Sagredo historialaria. Artxibo lana, hegaldiak eta indusketa lana uztartu ditu Sagredok 258 gazteluren azarnak topatzeko. 19:00etan da hitzaldia, zinema aretoan. Erakusketa astelehenera arte dago zabalik.

OHARRAK

Agiriaren aurka

COVID ziurtagiria-ren aurkako elkarretaratzea egingo dute bihar, zapatua, 13:00etan, plazan. Eskubideen Alde-Oñati taldeak deitu du kale agerraldia.

Nekazarien Elkarte

Urteko ohiko batzarra egingo dute gaur Nekazarien Elkarteak bazkideek Santa Ana antzokian, 19:00etan.



Gualbi
aholkularitza

ZERGA, KONTABILITATE ETA
LAN ARLOKO AHOLKULARITZA

ABOKATUAK
KONTU IKUSKARIAK

Bezero guztien beharrei erantzuteko prest!



Euskadi Etorbidea, 6 (OÑATI) • 943 78 16 48 • onati@gualbiasores.com • www.gualbiasores.com

"Txistua ikastera ilusioz etortzen dira ikasleak"

URKO URTEAGA TXISTU IRAKASLEA MADRILGO EUSKAL ETXEAN

Duela sei urte hasi zen Urko Urteaga txistu eskolak ematen Madrilgo Euskal Etxean. Aurreko asteburuan, gainera, Oñatiko eta Legazpiko txistulari taldeen bisita jaso zuen

Amia Txintxurreta Guridi OÑATI

Urko Urteaga oñatiarrak ematen ditu duela sei urtetik txistu eskolak Madrilgo Euskal Etxean. Joan den asteburuan, gainera, bisita izan zuen, herriko eta Legazpiko txistulari taldeak izan baitziren han.

Nolatan hasi zinen Madrilgo Euskal Etxean txistu eskolak ematen?

Oñatiko txistulari taldeko kide naiz, eta, duela sei urte Madrilerara joan nintzenez, ez nuen nahi nortasun hori galtzea. Madril bizi den Nagore Agirre Markinako txistulariaren bitartez proposatu zidaten Euskal Etxean txistu eskolak emateko, eta halaxe hasi ginen bion artean saio horiek eskaintzen.

Zelako ikasleak dituzue?

Ikasleen profila askotarikoa da. Badago jende asko aspaldi txistua jotzen ikasi zuena eta urte askoan utzita izan duena; Madrilerara ikastera edo lanera etorritakoak ere badaude, euskal nortasun hori galdu nahi ez eta saioak jasotzen dituztenak; eta kanpotarrak eta madrildarrak ere bai: agian, oporretan Euskal Herrira joaten direnak eta gure kultura eta jai-giroa asko gustatu eta txistua jotzen ikastera etortzen direnak; izan ere, esan behar da beti jaiarekin lotuta egoten dela txistua. Denetarik daukagu. Urtez urte, gainera, geroz eta gehiago dira eta momentu honetan hamaika edo hamabi dauzkagu.

Berdina al da eskola horiek Euskal Herrian ala Madril ematea?

Ez; Madril ospakizun gutxi egoten dira, baimen gutxiago eskatzen dira horrelakoak egiteko. Baina nik uste dut ilusioa dela garrantzitsua, eta hona txistua ikastera etortzen den jendeak ilusio hori beti dauka; orduan, oso-oso polita da.

Asteburu berezia izan zenuten Madril; izan ere, Oñatiko eta Legazpiko txistulari taldeak izan dira han. Zer moduz joan zen?



Urko Urteaga txistularia, Madrilgo Euskal Etxearen atarian. URKO URTEAGA

"MADRILGO IKASLEEN PROFILA ASKOTARIKOA DA ETA GAUR EGUN HAMABI IKASLE INGURU DAUZKAGU"

Oso ondo. Oñatiko txistulariekin pandemia hasi aurretik hasi ginen hitz egiten, eta Madrilerara etortzeko asmoa zeukaten, ni hemen nengoela ikusita. Gero, pandemiarekin kontua dezente atzeratu zen, eta, Iñaki Mendinueta bitartez –bera Legazpiko familia daukan Madrilgo beste txistulari bat da– Legazpiko txistulariak ere batu ziren ideia honetara. Eta nola taldeak sortuta genuen, Euskal Etxea ere zabalik dagoenez eta San Sebastian jaiak Madril urtero ospatzen ditugula kontuan hartuta, momentua orain zela erabaki genuen.

Zein ospakizun egin zenuten?

Madrilgo San Inazio elizan izan zen ekitaldia. Joan den zapatuan, txistulariak bakarrik izan ginen kontzertua ematen. Domekan, berriz, mezan bertan orfeoia ere kantuan izan zen, eta danborra-

da meza esaten zebiltzan bitartean etorri zen Euskal Etxetik elizara. Behin meza bukatutakoan, danborrada elizan sartu zen eta *San Sebastian martxa* jo zuten, Oñatiko eta Legazpiko txistulariekin batera, eta behin danborrada irten zenean, Euskal Etxera joan ziren berriro.

Gainera, protagonista berezi bat ere izan zen, ezta?

Euskal Etxeak omendu zuen domekan Iñaki Gabilondo kazetari donostiarra; txapel urdina jaso zuen, hain zuzen ere. Urtero Madrilgo realzaleek Realeko pertsonaia famatu bati txapel urdina ematen diote, eta aurten, hain zuzen ere, San Sebastian egunean Iñaki Gabilondo kazetari donostiarrari eman zioten. Orduan, danborrada elizatik irten zenean eta Euskal Etxera iritsi zenean, han zegoen Gabilondo, eta txapela eman zioten. **Jende asko mugitzen du Euskal Etxeak Madril?**

Bai; ia 2.000 bazkide izango gara. Parlamentuaren atzean dago, eta beti dago jende berria hartzeko prest. Txistu taldeak gain, dantzakoa eta orfeoia ere baditugu, euskaltegia ere bai, eta hainbat ekintza antolatzen dira.

Disko berriko aurrerapen kantua argitaratu du Mila Modu taldeak

Martxoan argitaratuko dute hamar abestiz osatutako lana eta akustikoan eskainiko dituzte lehen kontzertuak

A.T. OÑATI

Lan berria estreinatzekotan da Xabier Yaniz, Andoni Campos, Oskar Arlanzon eta Roberto Ferreiro musikari oñatiarrek osatzen duten Mila Modu taldea. 2020an argitaratu zuten sei abestiz osatutako *Absurdoaren paradisia* lehen lana eta pandemia garaian aurrera eramandako kantuekin osatuko dute bigarrena. Uda partean hasitako grabazioen nahasketak azaroan amaitu zituzten eta martxoan ikusiko du argia diskoak. "Melodikoa, gitarreroa eta ahotsari

indarra ematen dion diskoa izango da", aurreratu du Yaniz taldekideak.

19 *kolpe* izeneko aurrerapen kantua argitaratu dute dagoeneko, Iñaki Olalde bertsolariaren hitzekin osatutakoa. Eta aurrerago ezagutu ahal izango dira diskoaren gainerako xehetasun gehiago, singlea eta baita horren bideoklipa ere.

Modu akustikoan eskainiko duten bira bat ere ari dira prestatzen eta euren lana jendeari erakusteko "gogoz" daudela gaineratu du Yanizek.



OIHANA ELORTZA

Margolanak, erakusleihenetan

Margo Taldeak herriko dendetako erakusleihenetan jarri ditu taldeko kideen margolanak ikusgai. Bi urte pasa dira jaietako margo lehiaketa eta ondorengo erakusketa egin ez dutela, COVID-19agatik, eta euren lanak dendetan jartzea pentsatu dute orain. Kuttun dendan daude, esaterako, Oñatiko Margolariak taldeko Bixente Elgeroren bi koadro.

AUTLAN
EMD

Azken belaunaldiko pila alkalinoetarako
Manganeso Dioxido Elektrolitiko ekoizpena.

DEBAGOIENENKO

OSASUN ZERBITZUAK



DENTISTAK

ADUR HORTZ KLINIKA

Arrasate / Arrasate pasealekua 15, behea / 943 79 95 60

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 32, behea / 943 76 00 23

ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

DURANA HORTZ KLINIKA

Aretxabaleta / Durana kalea 22 / 943 79 93 55

GARAI HORTZ KLINIKA

Aretxabaleta / Iralabari 15 / 943 53 42 63

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4, behea
943 79 20 18 / 620 12 48 43

DIETETIKA

BEATRIZ ZULUETA DIETISTA - NUTRIZIONISTA ZUATZU KLINIKA

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4 / 943 79 20 18

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO AUDITIVO

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68
Bergara / Bidekurutzeta 10 - 943 76 97 03

KIROPRAKTIKA ZENTROA

BIZI KIROPRAKTIKA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

NEUROLOGIA

AGUSTIN SAGASTA

(AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA

Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

OSASUN- DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ ZENTRO MEDIKOA

Arrasate / Euskal Herria plaza 3
943 79 44 22

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk.
943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g
943 76 07 84

PSIKOLOGOAK

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

PSIKIATRIA

IÑAKI MADARIAGA

(AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

Xabier Urzelai ARRASATE

Egunotan Frantziako Tourra da albiste, astean aurkeztu dituzte-eta 2023ko edizioan Euskal Herrian egingo dituzten hiru etapak. Munduko ziklismo lasterketa ezagunena hona etortzea ez da, baina, berritasuna. Frantziako Tourra 1949an izan zen lehenengoz Euskal Herrian; urte hartan, bederatzigarren etapa Bordelen hasi zuten eta Donostian Louis Caput frantziarrak altxa zituen besoak. Fausto Coppiaren eta Gino Bartaliren arteko lehia utzi zuen Tour hark – Coppik irabazi zuen –, baina 1977ra arte *Grande Boucle*-a ez zen Debagoieneko errepideetara iritsi. Gerora, 1992an Tourra Donostiara itzuli zen ostera ere, besteak beste, Indurainek irabazi zuen erlojupekoarekin.

Hala, 1977ko Tourraz berba egiteko ezinbestekoa da, hasteko, Manolo Zubillagarengana jotzea: "Aretxabaletan ikusi genuen guk Tour hura pasatzen, baina bezperan Gasteizen izan nintzen, helmugan, Jesus Nazabalek hirugarren etapa zelan irabazten zuen ikusten. Hura sekulakoa izan zen, zer eta euskaldun bat Gasteizen irabazten. Gainera, Nazabal KAS taldekoa zen, eta helmuga lantegiaren parean jarri zuten". Zaldibiako txirrindulariari meriturik kendu barik, orduko egunkariak diote tropelak baimendutako ihesaldia izan zela hura, Gasteizko babesleak interes handia zeukalako taldeko ziklistak aurrean ibiltzeko. Pentsa, lantegi pareraino eraman zuten Frantziako Tourra.

Orduan bi etapa

Aurreratu moduan, 1977ko Frantziako Tourreko hirugarren etapa Oloronen (Frantzia) hasi eta Gasteizen amaitu zuten (246 km). Lasterketa Baztandik sartu zen Nafarroara, Ispigiko mendateetik, eta mendatearen iparraldean ziklistek 45 minutuz geldirik egon behar izan zuten, Herritarrak taldeak leherkari bat jarri zuelako; talde horrek egindako ekintza bakarra izan zen hura. Hain zuzen, harri ba-

"BEZPERAN GASTEIZEN IKUSI NUEN NAZABALEN GARAIENA"

MANOLO ZUBILLAGA / ARETXABALETA



Jose Nazabal (1977), Gasteizen, KASen lantegiaren parean amaitu zen etapan garaile. 'ELCORREO'

Tourra ibarrean, 46 urte geroago

TXIRRINDULARITZA 2023ko uztailaren 2an, Frantziako Tourra Debagoienetik pasako da. Ez da lehenengo aldia izango, 1977ko uztailaren 4an, bezperan KASEko Jose Nazabalek Gasteizen irabazi eta gero, lasterketa Arlabandik sartu zen-eta bailarara

tzuk errepidera erori zirenez, zaleen eta jendarmeen artean errepidea garbitu behar izan zuten, eta lasterketari berrekin zioten. Pedro Torres, Kuiper eta Van Impe zebiltzan mendiko sariagatik borrokan, eta Ispegin Van Imperendako izan ziren puntuak –baita mendiko mailota ere, Tour amaieran–.

Gero, Erratzutik pasata tropela Arabarantz abiatu zen; Leitzan jo zuen eraso Nazabalek, helmugarako oraindik 115 kilometro falta zirenean. Kontua da Arabako lautadan oraindik kilometro mordoia zituela aurretik, eta Zaldibiakoa lautadan baino gehiago aldapa gora ibiltzen zen ondo. Kilometro haietan dezente sufritu zuen. "Zer-nolako txakalaldia pasa zuen orduan, erabat hustuta iritsi zen helmugara", dio urteetan txirrindularitza lasterketetan motor gidari

lanetan ibili den Jorge Markiegi arrasatearrak. Baina, trope-laren baimenarekin, edo aurreikuspenetan txarto ibili zirelako, Nazabal abantaila politikarekin iritsi zen Gasteizko kaleetara. Eta, Zubillagak aipatu moduan, helmugako ueña gogoangarria izan zen.

Uztailaren 4an, ibarretik

Frantziako Tourra hurrengo egunean iritsi zen Debagoien-era, laugarren etapan. Gasteiztik abiatu ziren ziklistak, eta Tourreko karabana Arlabandik sartu zen bailarara.

"TOURREKO KARABANAREKIN GERATU NINTZEN TXUNDITUTA"

JORGE MARKIEGI / ARRASATE

Ziklistek etapa luzea zuten aurretik, Tour hartako luzeena, Seignosse-le-Penon-era arte (Frantzia) arte 256 kilometro, eta tartean Deskarga, Jaizkibel eta Ibardingo maldak igo behar zituzten. Hala ere, orduko egunkariak diote jardunaldia izugarri aspergarria izan zela eta etapa hartan lasterketako zuzendari Jacques Goddet-ek hainbatetan mehatxatu zituela zuzendariak, Tour irrati bidez, ziklisten jarrera pasibo horrek lehenbailehen amaitu behar zuela esanez. Hala, lasterketa aurreikusi baino ordube geroago iritsi zen helmugara.

Markiegi jarraitu du berbetan: "Aitari entzun izan diot Dorletako Ama parean geratu egin zirela, baina ez dakit zerbateraino izango den hori horrela. Gaztetako oroitzapenak dira; akaso, aurretik zihoan

Tourreko karabanakoak ziren ama birjinari lore eskaintza egiteko geratu zirenak, eta ez txirrindulariak. Baina, lasterketa horren poliki joan bazen hasieratik, batek daki...". Dorletako Amako kide Joserra Agirreurretak ez dauka detale horren berri, baina Gatzagako santutegian ziklismo museoa jartzeko lanean ibili den lagunetako bat da Agirreurretak. "Eta Eddy Merckx ama birjina parean egon bazen, norbaitek erretraturen bat egingo zuen, seguru. Ni orduan ez nintzen Gatzagan bizi, 18 urte inguru izango nituen eta kanpoan izango nintzen ikasten, ez daukat Tourra ikusi izana gogoan. Egunotan sasoi hartako erretratu mordo bidali dizkidate zenbait lagunek, baina bakarra ere ez tropela Debagoienetik pasatzen".

Kontuak kontu, Markiegi gogoan du 1977ko uztailaren 4 hartan non ikusi zuen Tourra pasatzen: "Arrasaten, gaur egun Loramendi Kirolak dagoen tokian ikusi nuen, lehengo semaforoak zeuden tokian. Sasoi hartan, Guardia Zibilaren kuartela zegoen bertan, eta zuzen hartan, Garibai kalean, ikusi nituen txirrindulariak pasatzen. Ziklistek baino atentzio handiagoa eman zidan, dena dela, Tourreko karabanak. Ikusgarria zen hura; gogoan dut motor baten gainean zelan zihoan Michelin-eko panpina erraldoi bat, txundituta geratu ginen".

Bergarara, eta Antzuolara

Arrasateetik Bergararako bidea hartu zuten txirrindulariek, eta, Labegaraieta eta San Antonio auzoak pasata, Antzuolarako bidea hartu zuten. "Matz-Errekan lanean nengoen ni", dio *Kaxeta* antzuolarak. "Eta lantegian ez genuen baimenik eskatu lasterketa ikusi ahal izateko; horrenbestez, ezin lantegitik irten. Tourreko karabana zetorrela ikusita, edozein leiho zen ona lasterkariak pasatzen ikusi ahal izateko. Ni bulegoan nengoen eta gogoan dut txukun samar

"LANTEGIAN EZ GENUEN BAIMENIK ESKATU TOURRA IKUSTEKO"

J. KORTABARRIA 'KAXETA' / ANTZUOLA



Tourreko zuzendari Christian Prudhomme, Gasteizko ekitaldian. ATARIA

Arrasateko eta Oñatiko kaleetatik

Lehendakariak eta Christian Prudhomme Frantziako Tourreko zuzendariak Grand Depart Pays Basque 2023ren hiru ibilbideak ezagutarazi zituzten eguaztenez Gasteizen egin zuten ekitaldian. Jakinekua zen bigarren etapari Kruzeta jaitsita sartuko direla ziklistak Debagoienara. Frantziako Tourrak publiko egin duen ibilbidearen bideoan ikusten da lasterketa Aramaiotik Arrasateraino joango dela, eta Olandixoko tuneletik beharrean erdigunetik zeharkatuko dutela herria. Elorregin, berriz, ziklistek Zubillagarako bidea hartuko dute, eta Oñati pasata Udana (495 m) igoko dute, eta handik joango dira Donostiarantz, Aztiriako gaina (572 m), Alkizako gaina (380 m) eta Jaizkibelgo gaina pasata. 210 kilometro izango ditu etapa horrek.

Lehenengo etapa, atariko, Bilboko udaletxean hasi eta amaituko dute. 185 kilometrotan, ziklistak Bizkaiko lurretan ibiliko dira. Eta hirugarren etapa ere Bizkaian hasiko dute. Zornotzatik abiatuko dira ziklistak eta Lapurdirako bidea hartuko dute, euskal kostaldea zeharkatuz. Aurkezpen ekitaldian, baina, Christian Prudhomme Tourreko zuzendariak ez zuen helmuga non izango den zehaztu, eta etapako profila zehazten duen bideoa lrunen amaitu zuten. Hala, baliteke Baiona izatea hirugarren etaparen amaiera hartuko duen euskal hiriburua, baina ofizialki oraindik ez dute halakorik zehaztu.

ikusitako txirrindulariak pasatzen". Eta apur bat aurrerago zegoen, Deskargako maldetan, urteetara txirrindulari profesional bilakatu zen Mikel Lizarralde oñatiarra. "Ordurako junior mailako ziklista izango nintzen ni, eta gogoan dut bizikletak hartu eta Deskargara joan ginela. Bada, akaso, ez zen etaparik azkarrena izango, baina niri inpresioa egin zidan Deskargako maldak zelako zuten ikusteak. Han ez zegoen ihesaldirik, denak zihoazen batera, baina zelako abiadura! Den-denak eserita, orduko bizi-

"TXUNDITUTA GERATU NINTZEN DESKARGA ZELAN IGO ZUTEN IKUSITA"

MIKEL LIZARRALDE / OÑATI

kletak zituzten garapen gogor haiek mugitzen... Irudi hura geratu zitzaizkan buruan!"

Merckx-en azkena

Hernani parean esnatu zen tropela, tarteko helmuga batengatik saria zegoen jokoan, eta Bianchi taldeko Santambroggio italiarrak jo zuen eraso. Eta aurrerago, Jaizkibelgo eta Ibaringo mendiko sarietan Van Impe, Danguillaume, Torres, Kuiper eta konpainia etxafuegoka ibili ziren. Behin muga pasata, eta telebistako kamerak ondoan zizutela, tropela serio hasi zen lanean. Ihesaldia egon zen, eta Seignosseko esprintean Peugeot Regis Delepine nagusitu zen -Tourra Bernard Thevenetendako izan zen-. Eta hura izan zen 71 dortsala zeraman mitoaren azken Tourra, Eddy Merckx-ena.

SASKIBALOI EBAko MUK kontrario zuzen Getxo hartuko du Iturripen

Azken bi partiduak jarraian irabazita, hirugarren postuan dagoen Mondragon Unibertsitateak laugarren dagoen Getxoren bisita izango du domekan (18:30, Iturripen). Errazago izango dute MUko neskek, azkenarreko postuan dagoen Barakaldoren bisita izango dute eta; horiek ere domekan (16:15).

ARETO FUTBOLA Bihar, Eskoriatzak berriz jokatu du etxean

Joan den asteburuan Mondrateren kontra galdu eta gero, Eskoriatza garaipen bila kantrataratuko da bihar Manuel Muñozeko kantxara. Saillkapenaren erdian dagoen Gora izango dute aurrean (18:30). Mondrater, berriz, Etxeberrin jokatuko du, Kukuyagaren kontra (17:30); bizkaitarrak hamaikagarren lekuan daude.

ERRUGBIA Senior mailako bi taldeak, Mojategin bihar

Senior mailako Arrasate/Ordizia taldeak bihar, zapatua, goizean jokatuko du Mojategin (11:30); eta, Universitario Bilbo taldeko neskek izango dituzte aurrean. Gizonezkoek arratsaldean (16:30) jokatuko dute, Sarakoen kontra. Bestalde, 16 eta 14 urtetik beherako taldeen partiduak atzeratu egin dituzte astebetean.

FUTBOLA Bergara eta Leintz Arizmendi, zaleen aurrean

Hamabigarren postuan dagoen Bergarak kontrario zaila izango du aurrean, Lesakako Beti Gazte hirugarren postuan dago eta (zapatua, 16:15, Ipintza). Leintz Arizmendiko neskek laugarren daude; eurek ez dute horren kontrario gogorra izango, Touring saillkapenaren azken postuan dago eta (zapatua, 13:00, Mojategi).

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

O.ERREGION. GIZ.

Bergara-UDA

Zap. 12:00. Agorrosin.

Amaiak Bat-Mondra

Zap. 16:30. Deba.

Aloña Mendi-Real Union

Dom. 16:30. Azkoagain.

O. ERREGION. EMAK.

Bergara-Beti Gazte

Zap. 16:15. Ipintza.

Leintz Ariz.-Touring

Zap. 13:00. Mojategi.

GORENGO MAILA

Aretxabaleta-Idiazabal

Dom. 17:00. Ibarra.

Antzuola-Soraluze

Zap. 16:00. Ezkala.

GORENGO EMAK. KOPA

Zestoa-Leintz Aloña

Zap. 10:30. Iraeta.

ARETO FUTBOLA

MAILA NAZIONALA

Kukuyaga-Mondrate

Zap. 17:30. Etxeberrin.

Eskoriatza-Gora

Zap. 18:30. M. Muñoz.

EUSKADIKO TXAPELKE.

Aretxabaleta-Leioa

Zap. 17:00. Ibarra.

GIPUZKOAKO TXAP. GIZ.

Mondrate-Euskalduna

Zap. 17:30. Musakola.

ESKUBALOI

EUSK. TXAP. EMAK

Jarrilleras-Cons. Aloña

Dom. 12:30. Portugalete.

GIPUZKOAKO TXAP.

Soraluze-Pulpo

Dom. 11:30. Labegarai.

GIPUZKOAKO BIG. M.

Bergara-Donibane

Zap. 17:15. Labeg.

Egia-Lana Aloña

Zap. 16:00. Labegara.

SASKIBALOI

EBA

MU-Getxo

Dom. 18:30. Iturripen.

MAILA NAZIONALA

MU-Ordizia

Zap. 18:30. Iturripen.

EMAK. BIGARREN M.

MU-Barakaldo

Dom. 16:15. Iturripen.

GIZ. BIG. MAILA

Ulacia-Mekalki Aloña

Dom. 18:00. Zarautz.

GIP. SENIOR. GIZ.

Donosti D.-Bergara Sora

Zap. 16:00. Donostia.

GIP. SENIOR. EMAKUM.

Erroibide-Bergara

Zap. 18:00. Irun.

ERRUGBIA

GIZ. EUSKADIKO T

ART-Sara

Zap. 16:30. Mojategi.

EMAK. EUSKADIKO T.

Arrasate/Ordi-U. Bilbao

Zap. 11:30. Mojategi.

PILOTA

Oñati: Gaur (19:00) eskuz binakako hiru partidu.

Kadete mailakoa lehenengo partidu, eta senior mailako partiduak beste biak.

Aretxabaleta: Gaur (19:00). Eskuz binakako gazte mailako partidu.

Bergara: Gaur (20:00) Senior mailako eskuz binakako partidu. Zapatua (11:00) eskuz binaka nagusien partidu.

Bergara eta Aretxabaleta aurrez aurre, ezohiko ordutegian

FUTBOLA Zapatu eguerdian (12:00) jokatuko dute derbia; Aloña Mendik ere etxean du hitzordua, domekan

X.U. BERGARA

Bergarak eta Aretxabaletak, Agorrosinen, iazko ekainean jokatuko zuten azkenekoz. Orduan, Jose Javier Barkero zegoen mahoneroen aulkian, eta Mikel Larburu zen Aretxabaletako entrenatzailea. Bi taldeek Hirugarren Mailara igotzeko *play-off*-erako sailkatzea zuten jokoan, eta aretxabaletarrendako izan zen garaipena (2-3). Bistan da bietako batek ere ez zuela gero gora egin, baina aretxabaletarrek oroitzapen ona gordeko dute.

Ikusteko dago zapatu eguerdian jokatuko duten partiduan (12:00) hori aldatzen den edo ez. Aretxabaletarrak (30 puntu) ondo daude saillkapenean, baina aste hauetan nahi baino gehiago barkatu dute. Bergara (24), berriz, atzetik aurrera dator nabarmen, azken lau partiduetatik hiru irabazi eta bat berdinduta.



Ekaineko derbia irudian. GOIENA

Aloña Mendiko (19) mutilek, aldiz, saillkapenaren erdian dagoen Real Unionen bisita izango dute Azkoagainen (16:30), eta 2022ko lehen garaipena lortu nahi dute lehenbailehen. Lauugarren dagoen Mondrak (31), berriz, Deban jokatuko du bihar.

Antzerkia, eskualdea "eraikitze" baliagarria

Askotariko antzerki-formakuntza saioak eskaintzea, eskualde mailako antzerki topaketak antolatzea, DAP-Bidelagun ekimena abiaraztea eta Debagoieneko Antzerki Jaialdia dira, besteak beste, Debagoieneko Antzerki Plataformaren (DAP) asmoak

Aitziber Aranburuzabala ELORREGI
Eskualdeko antzerki eragileek osatzen duten sareak, Debagoieneko Antzerki Plataformak, 2022rako dituen proiektuen berri eman du asteon, Elorregin. Komunikabideekin han batzea ez dela kasualitatea diote: "Hiru herriren eta Aldundiaren mende dagoen tokia da Elorregi eta badirudi inor ez dela ausartzen, adibidez, bertan komuna jartzen. Bada, gu ere hala sentitzen gara; hau da, herriz-herriko proiektua baino gehiago, bailara mailakoa da gurea, antzerkia erdigunera eramateko helburua duena, eta hor ere zailtasun batzuk izaten ditugu batzuetan".

Elorregiko aurkezpenaz gain, Debagoieneko herri guztietan aurkeztuko dute DAP; bihar, zapatua, goizean Leintz Gatzagan, Eskoriatzan, Aretxabaletan, Arrasaten eta Aramaion izango dira, eta arratsaldean, Bergaran, Elgetan, Antzuolan eta Oñatin.

Ikastaro gehiago

Ekaina bitartean formakuntza-saioekin jarraitzeko asmoa agertu dute. Hiru herritan daude antzerki eskolak, Arrasaten -Doke Antzerki Eskola, Bergaran -Jardun Euskara Elkarte- eta Oñatin -DAP eta Irazan Antzerki Gunea-, eta talde jarraituak



DAPEko kideak, astelehenean Elorregin egin zuten aurkezpenean. TXOMIN MADINA

ez dituzten herrietan antzerki tailerrak egitea proposatuko dute. Otsailean antzerki inprobisatuko ikastaroa eskainiko dute, eta martxoan hiru saio egingo dituzte, Elgetan, Aramaion eta Eskoriatzan. Apirilera eta maiatzerako, berriz, clown ikastaroa proposatu dute formatu berean.

Elkarlanean sortzeko

Euren ekimenez gainera, antzerkia bultzatu nahi duten egitasmoei babesa eskaini nahi dietela diote, eta horretarako

sortu dutela DAP-Bidelagun ekimena: "Ditugun baliabideak eta ezagutzak elkarbanatzeko prest gaude oinarri sendoak eraikitze eta iraupena eta autonomia bermatzeko".

Helburu horrekin, Debagoieneko hainbat herri eragilerekin topaketak antolatuko dituzte. "DAPen ibilbidea elkarrekin landu ahal izateko eta guztion artean Debagoieneko etorkizun kulturala imajinatu ahal izateko. Ikasturtea bukatzeko, Debagoieneko Antzerki Jaialdia ere ospatu gura genuke; lau egune-

tan zehar bailarako herri guztietan ekintzak antolatzea da asmoa".

Programazioan eragiteko gogoz Udazkenara begira, formakuntza-saioekin jarraitzeko asmoa dute, poliki-poliki, herri guztietan antzerki taldeak sortzeko asmoz. Baina mahai gainean dituzte beste hainbat proposamen ere. "Programaketan eta sormenean ere eragin nahi dugu, eta ohikoak ez diren espazioetan ekintzak antolatu nahi ditugu. Hori guztia gertatzeko, baina, herrietako eragileen babesa eta laguntza ezinbestekoa izango dugu; beraz, dei egiten diegu eskualdeko herritarrei, kulturegileei, udalei, enpresei... ekintzetan parte har dezaten, sare honen parte izan daitezen, eta gurekin batera bestelako bide bat jorratzen lagun diezaguten, bada".

Atari berria, bihar

Antzerkigintza eta kultura, orokorrean, gizartearen eraldaketarako giltza moduan ulertzen dute DAPEkoek. 2017an sortu zuten elkarte, baina, D2030 egitasmoaren baitan, 2021ean ekin zioten "indarrez" bide berri bati. "Urtebetez DAP proiektu kulturala garatzeko eta martxan jartzeko aukera izan dugu. Hori esker DAPEk eskala aldaketa bat izan du eta bailara mailako proiektu bat diseinatu dugu".

Ateak zabalik dituzte, hortaz, eta ongietorriak izango dira ideia eta kide berriak. Ikastaroetan parte hartzeko edo bestelako informazioa eskatzeko, idatzi dantzerkiplat@gmail.com helbidera. Aurrerantzean, baina, bihar estreinatuko duten *Dapeus* atarian kontaktatu dituzte azken berriak.

Piano-jole harrobiaren kontzertua astelehenean

Eskualdeko eta kanpoko musika eskoletako 45 piano ikasle igoko dira Amaia antzokiko oholtzara

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE
Arrasate Musikalek antolatu du astelehenean egingo duten piano ikasleen topaketa hori, eta, herriko musika eskolako piano-joleez gainera, Eskoriatzako, Aretxabaletako, Oñatiko, Bergarako, Elgetako, Sorluzeko eta Legazpiko musika eskoletakoak gonbidatu dituzte.

Harremanak "sendotzeko"

Herrietako musika eskoletako piano-joleen eta piano irakasleen arteko harremanak sendotzea du heburu nagusi Amaia Udaltzokian 18:00etan hasiko den ekitaldiak.

8 urtetik gorako 45 pianista batuko dira antzokian, eta banakako saioak egingo dituztela iragarri du Arrasate Musikaleko komunikazio arduradun Edorta Ayastuik: "Osasun-egoera dela-eta, lau eskutara jotzea ekidingo dugu eta banaka igoko dira taularen gainera. Eskainiko dituzten piezak denetariokoak izango dira: klasikoak, euskal abestiak eta gaur egungoak".

Sarrera, doan

Interesa duten guztientzako atek zabalik izango dira, eta, ohi moduan, antzokira sartzeko COVID ziurtagiria eskatuko dute.

KIRMEN URIBE

IDAZLEA

GOIENA TELEBISTA, 'ELKARRIZKETTAP'

OTSAILAREN 3AN, EGUAZTENEAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN

JUAN KRUIZ LAKASTAK EGINDAKO ELKARRIZKETA



DESKARGATU
GOIENA
APP BERRIA!

goiena
Zu hemen zaude.



"Ikusleak pertsonaiekin maiteminduko dira"

MIREIA GABILONDO AKTOREA

Balkanetako Ivor Martinic antzerkigileak idatzitako 'Semea pixka bat motelago dabil soilik' lana eskainiko du Tanttaka taldeak Santa Ana antzokian domekan, 19:00etan

Aitziber Aranburuzabala OÑATI

Sari asko eskuratu eta herrialde askotako agertokietan sarritan antzeztutako istorioa da Martinicena. Urtarrilaren 14an "arrakastaz" estreinatu zuen Tanttakak Arriaga antzokian.

Buenos Airesen antzezlana ikusi, istorioarekin maitemindu eta lortu duzue zuenganatzea. Pozik?

Bai, horixe! Orain dela bospasei urte *Muxua* lanarekin Buenos Airesen eta Uruguain biran geundela, goiz baten areto batera joan eta ikusi genuen *El hijo solo camina un poco más lento* antzezlaren testua izugarri gustatu zitzaigunez, moldaketa bat egiteko gogo sortu zitzaigun. Hamar aktore behar direlako eta bestelako zailtasunak tarteko, atzeratzen joan gara, baina, halako batean, egun Bartzelonan bizi den Ivorrek elkartu, eta baimena jasota aurrera egitea erabaki genuen. Pozik gaude, antzezlana funtzionatzen duela ikusi genuen eta Arriagako emanaldietan.

Zuk antzezten duzun Mia da protagonista bat. Nor da?

Gaixotasun degeneratibo bat duen Brankoren ama da. Semearengatik kezkatuta dago, oinez ibiltzeko gero eta traba gehiago ditu eta aulki gorpildunean dago; horrek mina eragiten dio ama-



Mireia Gabilondo aktorea. MIKEL MARTINEZ

ri eta ez dio uzten egunerokotasunean aurrera egiten, nahiz eta behin eta berriz saiatu.

Brankoren 25. urtebetetzea da istorioaren abiapuntua.

Hala da; ahalik eta ondoen ospatzeko gogoz, aztoratuta daude denak. Testuinguru horretan, beste pertsonaiekin dituen elkarriketen bidez, Miak bere bizitzaren gainbegiratu egingo du. Orokorrean, emakumeak dira ikuskizunean protagonista, gauzak aldatzen ari diren arren, oraindik ere, etxe gehienetan moduan, emakumeek dute eta

zaintzaren ardura. Maitasunari buruz erpin askotatik hitz egiten du obrak, eta, horren bueltan, gaiak beldurra, bakardadea, gaixotasuna eta bestelako gai gehiago aterako dira.

Ikusleek, barre ala negar?

Tragikomedia bat da, hibrido bat. Tonu aldetik serioa da, baina, egunerokotasunetik kontatzen dugunez, baditu une alaiak ere. Familia baten istorioa da; hortaz, ikusle asko identifikatuta sentituko dira, eta pertsonaiekin maitemindu egingo dira asko. Ordu eta erdiko iraupena du.

Hamar aktore; zeintzuk?

Adin askotarikoak behar genituen, eta aspaldiko lagunei parte hartzeko proposamena egin diegu; hortaz, gurekin daude, batetik, Martxelo Rubio, Jose Ramon Soroz, Klara Badiola, Dorleta Urretabizkaia eta laster Ane Gabarain ere sartuko Badiolarekin txandaka jarduteko. Eta gazteagoak daude, bestetik: Miren Arrieta, Asier Hernandez, Ander Iruretagoiena, Xabi *Jabato* Lopez eta, estreinakoz gurekin lanean, Maria Redondo.

Zer diozu eszenografiatz?

Xumea eta adierazkorra da. Etxe baten plano balitz moduan diseinatu du Fernando Bernues zuzendariak, lurrean itsatsitako zintekin etxeko gelak sortuta.

Abian da hamaikagarren Euspot euskarazko iragarkien lehiaketa

Kooperatibismoari balioa ematea da aurtengoaren asmoa; parte hartzeko oinarriak, 'Euspot.eus' atarian

A. Aranburuzabala ARETXABALETA

Aretxabaletake Udalak MUREkin, Arizmendi ikastolarekin eta Arteman Komunikazio enpresarekin elkarlanean antolatzen du Euskal Herrian "aitzindaria" den spot lehiaketa, eta abiatu

berri duten horretan Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluaren babesa izango du. Horiez gainera, Bai Euskarari Elkarrearen eta Audionetwork enpresaren laguntza jasotzen dute lehiaketako bultzatzaileek.

Maiatzaren 19a, azken eguna

Zergatik lan egin kooperatiba batean? da proposatutako gaia, eta, aurreko aldietan moduan, gehienez 30 segundoko iraupena eta euskarazko lokuzioa izan behar dute iragarkiek.

3.000 euro baino gehiago

Sei sari banatuko dituzte: spotik onenari, publikoaren saria, gazteena, musika sinkronizazio onenarena, eta MUKo eta Arizmendi ikastolako lan onenek ere sari bana jasoko dute.

Goienakideen txokoa

URTARRILEKO SARIAK

'Komunikazio ez bortitza' liburua

Parte hartzeko sariaren izena: **Komunikazio**



Sarrerak

Arrikutz kobak bisitatzeko, sarrerak. Parte hartzeko sariaren izena: **Arrikutz**

ARRIKUTZ
OHAIKO BUK

Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak. Parte hartzeko sariaren izena: **Otarrea**

www.harramandenda.org
Bidezko Merkataritza produktuak

PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: goienakide@goiena.eus Whatsapp: GOIENAKIDE

"sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia

'goiena app'-a / zozketa atalean. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa. Irabazlearen izena 1370 07 9999 laguntza zerbitzuko laguntza dagoen berritzailearen bidez jakinaraziko da. Irabazlearen izena 1370 07 9999 laguntza zerbitzuko laguntza dagoen berritzailearen bidez jakinaraziko da. Irabazlearen izena 1370 07 9999 laguntza zerbitzuko laguntza dagoen berritzailearen bidez jakinaraziko da.

Irabazi bi lagunendako otordua

ERUAN JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkari Otorduan atala eta hartu parte! Parte hartzeko azken eguna: otsailak 1



943 25 05 05



goienakide@goiena.eus



'Goiena app'-a / zozketa atalean.



GOIENAKIDE | Jatetxea

[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailaz gozatzeko...



BAZKIDETZA KUOTA: 60€
Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus



DESKARGATU GOIENA APP BERRIAI

goiena
kide

Okm: batzen gaituen distantzia

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

102. EROSI

Oñati. Oñati etxea erosi nahi du. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 679 62 69 64

103. ERRENTAN EMAN

Oñati. Etxebizitza ematen da errentan Olakua auzunean. Hiru logela, egongela, bainugela eta sukaldaria. Eraberritua. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 615 00 46 92

104. ERRENTAN HARTU

Oñati. Kaixo, oñatiar gazte bat naiz eta etxebizitza bat errentan hartzeko bila nabil. Edozer gauza jakinez gero abisatu zenbaki honetara. Mila esker. 623 24 77 60

2. GARAJEAK

201. SALDU

Arrasate. Garaje irekia salgai motor batendako edo auto txiki batendako modukoa. Takila dauka kasko eta abarrak gordezko. Maiatzaren bata plazan, San Andresen. Prezio onean. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 630 40 55 95

203. ERRENTAN EMAN

Bergara. Garaje itxia ematen da errentan Ibargarai kalean. Auto txiki, bizikleta edo motor batendako egokia. Merke. 679 74 00 61

3. LOKALAK

301. SALDU

ARRASATE

Kortaberri harategia salgai, erretiroagatik. 688 61 32 06

4. LANA

402. ESKAERAK

Arrasate edo Aretxabaleta. Neska arduratsua orduka zaintza eta garbiketaren lanetan aritzeko gertu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 632 91 23 61

Arrasate edo inguruak. Mutil arduratsua lanerako gertu. Esperientzia daukat margotzen, eraikuntzan zein basolanetan. Interesatuok deitu telefono honetara: 611 51 22 30

Arrasate eta inguruak. Orduka zaintza eta garbiketaren lanetan aritzeko gertu nago. Legezko agiriak daukat eta soziosanitario ikasketak egiten ari naiz. 693 66 68 03

Arrasate eta inguruak. Pertsona nagusiak zainzen eta garbiketaren lanetan aritzeko gertu nago. Baita hoteletan gelak txukuntzen jarduteko ere. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 632 48 72 30

Arrasate. 16 urteko esperientzia duen emakumea etxean bertan zaintza lanak egiteko gertu. Geriatria ikasketak, legezko agiriak eta Jaurralitzaren ziurtagiriarekin. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 633 12 85 30

Arrasate. Etxean bertan bizi izaten nagusiak zainduko nituzke. Neska arduratsua, garbi eta zintzoa naiz. Legezko agiriarekin. 632 48 38 91

Bergara. Esperientziadun emakumea pertsona nagusiak zaintzeko prest orduka edo txandakako (bat bai beste bat ez) gauetan. 666 07 42 98

Debagoiena. Asteburuetan edo astean zehar orduka zaintza eta garbiketaren lanak egiteko gertu nago. 612 56 12 39

Debagoiena. Emakume arduratsua orduka edo egunka garbiketaren lanetan jarduteko gertu. Legezko agiriarekin. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 612 51 42 99

Debagoiena. Emakume bat nagusiak zaintzeko gertu, orduka edo etxean bertan bizi izaten. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 643 29 75 77

Debagoiena. Emakumea prest pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 653 59 45 60

Debagoiena. Emakumea zaintza lanak egiteko gertu. Egunean zehar, baita orduka ere. Legezko agiriak eta soziosanitario titulazioa daukat. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 612 41 02 49

Debagoiena. Nagusiak zaintzeko eta garbiketaren lanak egiteko gertu nago. Interesatuok deitu telefono honetara: 617 20 79 97

Debagoiena. Nagusiak zaintzen edo atari eta abarrak garbitzen lan egiteko nuke. Etxean bertan bizi izaten edo beste- la. 682 40 53 38

Debagoiena. Nagusiak zaintzen esperientzia duen emakumea lanerako gertu. Baita orduka ere. Soziosanitario titulu

Debagoiena. Emakumezko prest mota ezberdinetako lanak egiteko: umeak zaindu, pertsona helduak zaindu, zerbitzaria, sukaldaria edota garbiketaren lanak. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 631 84 24 27

Debagoiena. Etxe, atari, lokal eta abarrak garbitzeko gertu nago. Baita hoteletan gelak txukuntzen jarduteko ere. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 612 27 82 34

Debagoiena. Neska arduratsua lan bila. Nagusiak zaintzen esperientzia daukat. Asteburuetan edo astean zehar orduka. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 677 14 64 27

Debagoiena. Garbiketaren eta nagusiak zaintzen lan egiteko nuke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 632 34 22 25

Debagoiena. Gizonezko prest mota ezberdinetako lanak egiteko: umeak eta pertsona helduak zaindu, garbiketaren edota zerbitzari lanak. 641 60 12 04

Debagoiena. Goizetan garbiketaren lanetan edo pertsona nagusiak zaintzen lan egiteko nahi dut. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 618 93 59 29

Debagoiena. Lan bila nabil. Esperientzia daukat jendaurreko arretan, nagusiak zaintzeko eta margotzen. 656 62 61 03 (Agustoa)

Debagoiena. Mutila gertu pertsona nagusiak zaintzeko, garbiketaren lanak egiteko edota baserrian lanak egiteko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 666 07 42 98

Debagoiena. Mutila gertu zaintzan, garbiketaren edota eraikuntza laguntzaile moduan lan egiteko. Telefonoak: 602 87 65 07 edo 612 41 02 49

Debagoiena. Nagusiak zaintzeko eta garbiketaren lan egiteko nuke. 632 19 08 26

Debagoiena. Nagusiak zaintzeko eta garbiketaren lan egiteko gertu nago. Interesatuok deitu telefono honetara: 617 20 79 97

Debagoiena. Nagusiak zaintzen edo atari eta abarrak garbitzen lan egiteko nuke. Etxean bertan bizi izaten edo beste- la. 682 40 53 38

Debagoiena. Nagusiak zaintzen esperientzia duen emakumea lanerako gertu. Baita orduka ere. Soziosanitario titulu

luarekin. Orduetegi arazorik ez. 691 28 53 25

Debagoiena. Nagusiak zaintzen eta garbiketaren lan egiteko nuke. Soziosanitario titulua daukat. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 612 56 12 39

Debagoiena. Nagusiak zaintzen eta garbiketaren lan egiteko nuke. Soziosanitario titulua daukat. Baita asteburuetan ere. 612 27 82 34

Debagoiena. Neska arduratsua lan bila. Nagusiak zaintzen esperientzia daukat. Asteburuetan edo astean zehar orduka. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 677 14 64 27

Debagoiena. Garbiketaren eta nagusiak zaintzeko gertu, orduka edo etxean bertan bizi izaten. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 643 06 85 22

Debagoiena. Neska gertu pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko, etxeko garbiketaren egiteko edo

zerbitzari zein sukaldare laguntzaile lanak egiteko. 747 40 55 91

Debagoiena. Orduka garbiketaren eta zaintza lanak egiteko gertu nago. Baita tabernan aritzeko ere. 631 79 81 56

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaintzen lan egiteko nahi dut. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 631 79 81 56

Debagoiena. Soziosanitario titulua daukat eta pertsona nagusiak zaintzen lan egiteko prest nago. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 659 90 85 13

Debagoiena. Zerbitzari, bodegero, banatzaile, garbiketaren lanetan edota pertsona nagusiak zaintzen lan egiteko prest. 642 36 70 42

Eskaera. Arrasateko emakume euskalduna arratsaldetan etxean, lokalak, bulegoak eta abar garbitzeko prest. 653 71 64 79 edo 943 54 09 95

7. ANIMALIAK

703. EMAN

Artzain txakurrak. Artzain txakur arrazako kumeak oparitzen dira. Oso politak. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 665 71 40 34

Katakumeak. Katakumeak ematen dira opari. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 642 72 69 10

8. DENETARIK

801. SALDU

Motor elektrikoak duguen gurpil-aulkia. Brexi Premium markako gurpil-aulkia eta motor elektrikoak, biak berriak eta erabili gabe. Bergara. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 658 74 91 78 edo 629 43 27 19

808. BESTELAKOAK

Eskularru gorriak. Eskularru eman nahi dizkiot nire eskularru gorriak topatu eta entregatu di-tuenari. Mila esker.

ASTEA GOIENA TELEBISTAN



GOIENA

'EZ DONK AMAITU' ERREPORTAJEA

'Bereziak' Otsailak 1, 21:00 eta 23:00



GOIENA

KIRMEN URIBERI ELKARRIZKETA

'Elkarrizketa' Otsailak 3, 21:30 eta 23:30

EGUBAKOITZA, 28

08:00 Hemen da Miru 80
08:30 Elkarrizketa: Maria Barrena
09:00 Harmailatik
09:30 Bixi ibili!: Antzuola
10:00 Hemen Debagoiena
11:00 Harmailatik
11:30 Bixi ibili!: Antzuola
12:00 Hemen Debagoiena
13:00 Hemen da Miru 79
13:30 Elkarrizketa: Maria Barrena
14:00 Albisteak
14:30 Zubiak
15:00 Albisteak
15:30 Bixi ibili!: Antzuola
16:00 Albisteak
16:30 Urrutiajune: Maidor Mujika eta Beñat Garmendia
17:00 Albisteak
17:30 Zubiak
18:00 Hemen Debagoiena
19:00 Zubiak
19:30 Bixi ibili!: Antzuola
20:00 Hemen Debagoiena
21:00 Bixi ibili!: Antzuola
21:30 Zubiak 3
22:00 Hemen Debagoiena

ZAPATUA, 29

08:00 Elkarrizketa: Marisa Barrena
08:30 Hemen da Miru 80
09:00 Ahoz: Ainhoa Larrañaga
09:45 Kooltur: Lukiek
10:45 Bixi ibili!: Antzuola
11:15 Hemen Debagoiena
12:00 Asteko errepasoa
13:00 Zubiak 3
13:30 Bixi ibili!: Antzuola
14:00 Hemen Debagoiena
15:00 Elkarrizketa: Marisa Barrena
15:30 Kooltur: Lukiek
16:30 Asteko errepasoa
17:30 Zubiak 3
18:00 Ahoz: Ainhoa Larrañaga
18:45 Hemen Debagoiena
20:00 Kontzertua: Kup taldea
21:00 Hemen Debagoiena
21:30 Ahoz: Ainhoa Larrañaga
22:15 Kontzertua: Kup taldea
23:15 Hemen Debagoiena

DOMEKA, 30

08:00 Hemen da Miru 82
08:30 Hemen da Miru 81
09:00 Hemen da Miru 79
09:30 Bixi ibili!: Antzuola
10:00 Asteko errepasoa
11:00 Kooltur: Lukiek
12:00 Hemen Debagoiena
13:00 Elkarrizketa: Marisa Barrena
13:30 Bixi ibili!: Antzuola
14:00 Ahoz: Ainhoa Larrañaga
14:45 Zubiak 3
15:15 Elkarrizketa: Marisa Barrena
15:45 Asteko errepasoa
16:45 Hemen Debagoiena
17:30 Kontzertua: Kup taldea
18:30 Zubiak 3
19:00 Hemen Debagoiena
20:00 Ahoz: Ainhoa Larrañaga
20:45 Bixi ibili!: Antzuola
21:15 Hemen Debagoiena
22:00 Elkarrizketa: Marisa Barrena
22:30 Asteko errepasoa
23:30 Zubiak 3

EGUBAKOITZA, 28

ARIANE MARTIN, 'LUZAPENA' TARTEAN

'Hemen Debagoiena' 18:00/20:00/22:00

ASTELEHENA, 31

ASTE BURUKO KIROL EMAITZAK

'Harmailatik' 21:30/23:30



GOIENA TELEBISTAKO PROGRAMAZIO OSOA: goiena.eus/telebista Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

MARTITZENA, 1



HEGAZKIN

HEGAZKIN TALDEAREN MUSIKA

'Akordeak' 18:00/20:00/22:00

EGUAZTENA, 2

MAITE BASASOROREN TESIA EZAGUTZEN

'Hemen Debagoiena' 18:00/20:00/22:00

IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

- Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera utzerik ere.
- GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE EGUNEZ
Egubakoitza, 28 IRIZAR: Erquin 11 / 943 79 12 39
Zapata, 29 SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74
Domeka, 30 ESPAÑOL: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65
Astelehena, 31 RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09
Martitzena, 1 ETXEBERRIA: Zarugalde 38 / 943 77 16 30
Eguaztena, 2 AZKOAGA: Ferrerías 1 / 943 79 15 15
Eguena, 3 JUNCAY: Iturriotz 17 / 943 79 79 99
BERGARA EGUNEZ
Egubakoitza, 28 URRITIKOETXEA: Oxirondo plaza 4 / 943 76 11 74
Zapata, 29 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
Domeka, 30 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
Astelehena, 31 OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05
Martitzena, 1 ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63
Eguaztena, 2 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
Eguena, 3 URRITIKOETXEA: Oxirondo plaza 4 / 943 76 11 74
OÑATI EGUNEZ BAKARRIK
Egubakoitza, 28 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Zapata, 29 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Domeka, 30 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Astelehena, 31 GARATE: Kale Zaharra 42 / 943 78 05 58
Martitzena, 1 GARATE: Kale Zaharra 42 / 943 78 05 58
Eguaztena, 2 JULDAN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Eguena, 3 JULDAN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28

EGUNERO
(22:00etatik 09:00etara)
2022ko abuztuaren 35era arte:
AZKOAGA: Ferrerías kalea 1 / 943 79 15 15
EGUNERO
(22:00etatik 09:00etara)
2022 osoan:
URRITIKOETXEA: Oxirondo plaza 4 / 943 76 11 74

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko: COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

HILDAKOAK

- Jesus Murgiondo Guridi.**
Arrasaten, urtarrilaren 20an. 90 urte.
- Juan Garai Larrañaga.**
Bergaran, urtarrilaren 20an. 86 urte.
- Cirilo Gonzalez Herrero.**
Arrasaten, urtarrilaren 20an. 81 urte.
- Constancio Bellido Vaquero.**
Oñatin, urtarrilaren 21ean. 93 urte.
- Victor Mateo Minguez.**
Aretxabaletan, urtarrilaren 21ean. 90 urte.
- Maria Iturbe Txintxurreta.**
Bergaran, urtarrilaren 21ean. 97 urte.
- Lola Herman Herzog.**
Bergaran, urtarrilaren 21ean. 88 urte.
- Gregorio Lopez Ortiz.**
Arrasaten, urtarrilaren 22an. 86 urte.
- Antonia Mengual Aguayo.**
Bergaran, urtarrilaren 23an. 79 urte.
- Marisol Arrizabalaga Ruiz de Azua.**
Arrasaten, urtarrilaren 24an. 75 urte.
- Francisca Gallego Lozano.**
Arrasaten, urtarrilaren 25ean. 94 urte.
- Jose Maria Unzurrunzaga Arrese.**
Donostian, urtarrilaren 25ean. 93 urte.
- Jose Mari Madina Arana.**
Oñatin, urtarrilaren 25ean. 82 urte.
- Pilar Arana Lopez.**
Arrasaten, urtarrilaren 26an. 86 urte.

OROIGARRIA



Jesus Murgiondo Guridi

2022ko urtarrilaren 20an hil zen, 90 urte zituela.

Txantxiku Txoko elkartekook ez ditugu ahaztuko zurekin bizitako momentu onak.



Oñatin, 2022ko urtarrilaren 28an.

OROIGARRIA




Marisol Arrizabalaga Ruiz de Azua

2022ko urtarrilaren 24an hil zen, 75 urte zituela.

Gure kuadrillako alaittasuna izen haz eta bihotzian erungo hau beti.

Aixola eta Arexolako lagunek.
Aramaion, 2022ko urtarrilaren 28an.

OROIGARRIA




Marisol Arrizabalaga Ruiz de Azua

2022ko urtarrilaren 24an hil zen.

Erakutsi diguzunagatik eta gure arrea izateagatik ez zaitugu inoiz ahaztuko.

Joaquin (†), Emilio eta Puri, Ana eta Agustin, Elena eta Patxi, Agustin eta Edurne, Marina eta Luis.

Arrasaten, 2022ko urtarrilaren 28an.

ESKER ONA



Marisol Arrizabalaga Ruiz de Azua

2022ko urtarrilaren 24an hil zen, 75 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2022ko urtarrilaren 28an.



Oroilore

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

Gure artean agurtutako guztiei euren bidea aurkitzen lagundu diegu, orain arte bezala, eta guztiek izango dute agur berezia Oroiloren.

Gure eskerrik beroenak gudan izan duzuen konfiantzagatik eta maitasunagatik.

Ion, Mario, Iban eta Maribi

Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA | Moyua OÑATI • Tel.: 943 71 66 37

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05
edo eskela@goiena.eus

- Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 186 € / Goiena Klubeko bazkideendako 166 €
 - Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 165 € / Goiena Klubeko bazkideendako 145 €
- Goiena: irakurriena Debagoiengan.**



TXUTXU-MUTXUAK



Kontatu, kontatu!

Badaukazu ezkontzaren baten berririk? Edo eztei-ospakizunen batenik? Kintada egin duzue eta argazkia erakutsi nahi zenukete? Ibilaldi politen bat erakusteko baduzu? Bestelako ospakizunen bat? Kontaiguzu eta bidalguzu argazkia!

Posta elektronikoa

Mezua bidali berriak@goiena.eus helbidera, eta idatzi nortzuek, non, noiz, zergatik eta zer ospatu edo egin duzuen.

Ordezkaritzak

Zatoz Goienaren ordezkarietara (Otalora 31, Arrasate) edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Eguazteneko 12:00ak arte jasotakoak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

1. Erraldoien topaketan

Bergarako Erraldoi Taldeko kideak Kataluniako Castellbisbal herriko topaketan egon ziren. Bergarako 30 bat lagun eta Arrasateko bi gaitari joan ziren.

2. Bulegorekin gozaten

Gustura egon ziren zaleak Azkoitiko taldeak Aretxabaletan egin zuen kontzertuan. Taldearen kantu entzutetsuenak gogoz abestu zituzten: *Bueltan da* eta *Kantu bat*.

3. Jaioberrien omenez

laz, 21 ume jaio ziren Eskoriatzan, eta horien omenez zazpi astigar landatu zituzten Santa Marina plazako berdegunean. Umeek eta helduek gogor egin zuten lan.

4. Hidrogeno berdea ezagutzen

Erika Liqueetek antzetzten duen Sorgina Txirulina ipuin kontalariak eman zizkien azalpenak 4 eta 8 urte arteko umei, Bergarako Laboratorium museoan.

5. Gabonetako zozketaren irabazleak

Juan Angel Torre, Esther Madariaga, Ainhoa Gallastegi, Gema Meruelo, Cristina Fernandez eta Maider Lazkano dira Bergara Kirol Elkartearen zozketaren irabazleak.

ZORION AGURRAK



OÑATI
Ekhi Retolaza Agirre
Otsailaren 3an, 4 urte.
Zorionak, Ekhi! Etxeko
eta familixako danon
partetik, patxo
handi-handi bat! Asko
maite zaitugu!



BERGARA
Maren Fernandez Lopez
Otsailaren 2an, 8 urte.
Aupa, Maren!
Konturatu orduko
zortzi 8 urte! Primeran
ospatu eta muxu pilo
bat familixa danaren
partetik. Aio!



ARETXABALETA
Nahia Berridi Errasti
Otsailaren 1ean, 7
urte. Zorionak, Nahia!
Egun ederra pasatu!
Segi mendian gora
indartsu! Besarkada
eta muxu handi bat
etxeko danon partetik!



ARRASATE
Ibai Alonso Tena
Urtarrilaren 31n, 2
urte. Zorionak, maitia!
Ondo pasatu zure 2.
urtebetetzean. Asko
maite zaitugu. Patxo
handi bat etxeko
guztien partetik.



ARETXABALETA
Unax Zuazo Oianguren
Urtarrilaren 31n, 10
urte. Zorionak, Unax!
Ederto pasatu zure
urtebetetze egunian
eta jarraitu gure
bihotzak alaitzen!
Besarkada handi bat
familia osoaren
partetik!




BERGARA
Irati Larrea Perez
Urtarrilaren 31n, 7
urte. Zorionak, Irati!
Ondo-ondo pasatu
urtebetetze egunian
eta patxo potolo bat
familia osoaren
partetik.




OÑATI
Eki Palacin Aldea
Urtarrilaren 31n, 10
urte. Zorionak, Eki!
Oso ondo pasatu zure
eguna! Patxo handi bat
danon partez! Mua!



ARRASATE
Eneko Izeta Herranz
Urtarrilaren 30ean,
10 urte. Zorionak
maitasun handiz
famiariaren, eta
bereziki, Luken
anaiaren partetik.




OÑATI
Miren Lizarralde Guridi
Urtarrilaren 29an, 2
urte. Zorionak eta urte
askotarako, politt hori!
Patxo handi bat etxeko
danon partetik!



OÑATI
Maddi Bikuña Barbero
Urtarrilaren 29an, 7
urte. Zorionak, maitte!
Zeinen harro gauden
zutaz. Ikaragarri maite
zaitugu!




BERGARA
Eneko Gantxegi Gallastegi
Urtarrilaren 27an, 11
urte. Zorionak, Eneko.
11 urte jada! Zelan
pasatzen dan denbora.
Muxu pila etxekoan,
eta bereziki, Oierren
eta Markelen partetik.
Zorionak, txapeldun.



OÑATI
Jakes Aramendi Perez
Urtarrilaren 27an, 6 urte. Zorionak, Jakes!
Dagoeneko 6 urte! Jarraitu zaren modukoa izaten
eta gure bizitzak alaitzen! Ederto ospatuko degu!



BERGARA
Endika Urigoitia Jimenez
Urtarrilaren 27an, 10
urte. Zorionak, Endika,
zure 10. urtebetetzean.
Egun polita eta alai
izan. Zure aita Lander,
ama Ana, arreba Irati,
lehengusu-lehengusina
Luzia eta Eder, Karlos
eta Luis aitteittek,
amama Enkarna eta
beste senideak.



OÑATI
Oier Gavilan Iturbe
Urtarrilaren 27an, 7
urte. Zorionak, Oier!
Zazpi urte jada!
Jarraitu orain arte
bezala mutil alai
izaten. Patxo handi bat
danon partetik.



BERGARA
Alaine Da Silva Moreno
Urtarrilaren 26an, 8
urte. Zorionak,
printzesa!
Egun ahaztezina
pasatzea opa dizugu.
Segi orain arte bezain
maitakor.
Etxeko danok pila bat
maite zaitugu.
Besarkada potolo bat,
bereziki Kenarren
partetik.



ANTZUOLA
Maren Cenitagoya
Urtarrilaren 26an, 10 urte. Zorionak, Maren!
Eguna ondo pasatu, etxekoan partetik.



OÑATI
Arane Lizarralde Suarez
Urtarrilaren 25ean, 6 urte. Zorionak, maitia!
Ondo pasatu zure urtebetetze egunian eta segi beti
bezain alai! Asko maite zaitugu. Muxu handi bat
famiario guztien partetik!




OÑATI
Beñat Urkia Goenaga
Urtarrilaren 25ean,
Zorionak, bihotza!
Bost urte! Egun polita
pasa dezazula.
Familia osoaren
partetik. Muxu eta
besarkada handi bat.



BERGARA
Iker Murillo Pose
Urtarrilaren 25ean,
10 urte. Zorionak,
txapeldun! Oso ondo
pasatu zure eguna!



OÑATI
Hugo eta Chloe Elorza
Urtarrilaren 23an, 8 urte. Zorionak, bikote!
Patxo erraldoia famiariaren partetik!
Ondo-ondo pasatu zuen eguna!



OÑATI
Ander Iciar Garcia
Urtarrilaren 22an, 11
urte. Zorionak, Ander!
Ondo pasatu zure
urtebetetze egunian
eta musu handi bat
etxekoan partetik!

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu:

Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <https://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra.
Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurrak@goiena.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna
eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak


Etor zaitetz Goienaren ordezkariaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak
arte jasotako zorion
agurrik bakarrik
argitaratuko ditugu.

Hortik aurrera
jasotakoak hurrengo
asteen argitaratuko
ditugu.



ARRASATE
Hodei Ramos
Urtarrilaren 22an, 9
urte. Zorionak, bihotza!
Bederatzi urte! Asko
disfrutatu zure eguna!
Jarraitu holako mutiko
jatorra izaten!
Ilargiraino maite
zaitugu! Muxu handi
bat famiariaren partetik.



ARRASATE
Nile Hernandez Lopez
Urtarrilaren 18an, 3
urte. Zorionak, Nile!
Ondo-ondo ospatu
zure hirugarren
urtebetetze eguna!
Besarkada handi bat
etxekoan partetik.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENeko EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 28

ARETXABALETA Intxaurren kimuak landatzeko ekitaldia

Porrotek eta Marimotsek emandako kimuak landatuko dituzte, Leizarra musika eskolako eta Lekaixoka bertso eskolako kideek lagunduta.

Trenbide zaharreko berdegunean, 17:30ean.

ESKORIATZA 'Zorionak Marimotots' ikuskizuna

Pailazo taldearen azken lanaren emanaldi bikoitza: 17:30ean bata eta 19:00etan bestea.

Kiroldegian, 17:30ean.

BERGARA Vicente Irigoienek erakusketa

Gaur zabalduko dute pintura bilduma. Ikusgai egongo da otsailaren 13ra arte.

Aroztegin, 18:00etan.

OÑATI Musika eskola: lanketa saioa

Musika eskolaren etorkizuna marrazteko lanketa saioa.

Etorkizuneko gobernanta eredu eta Espazioa dira gaurko gaiak. Eltzian, 18:30ean.

OÑATI Nekazarien Elkartea: urteko batzarra

18:30ean lehen deialdia eta 19:00etan bigarrena.

Santa Ana antzokian, 19:00etan.

ELGETA Koko-batzea: saio irekia

Otsailaren 19an egitekoa den koko-batzea prestatzeko saioa.

Gimnasioan, 19:00etan.

OÑATI 'Navarra: castillos que defendieron el Reino' hitzaldia

Iñaki Sagredok egingo du berba.

Zinema aretoan, 19:00etan.

ZAPATUA 29

BERGARA 'Musika eta ahalduntzea' ikastaroa

Olatz Salvadorrekin, Jabekuntza Eskolaren baitan. Izena, aurrez: *berdintasuna@bergara.eus* edo 943-77 91 06.

Agorrosinen, 10:00etan.



TANTTAKA TEATRO

OÑATI 'Semea pixka bat motelago dabil soilik' antzezlan

Ivor Martinic-en jatorrizko lan baten egokitzea egin du Tanttaka Teatrot, punta-puntako aktoreek antzeztuta: Miren Arrieta, Klara Badiola, Mireia Gabilondo eta Martxelo Rubio, besteak beste. Sarrerak, hamar euro.

Etzi, domeka, Santa Ana, 19:00etan.

BERGARA 'Hidrogeno Berdearen ipuinak' umeendako

Sorgina Txirulinaren eskutik ezagutuko dute hidrogeno berdea 4-8 urte arteko umeek.

Laboratoriumen, 11:00etan.

ARAMAIO Ginkana, gaztetxoendako

12-16 urte artekoendako.

Kultura etxean, 12:00etan.

OÑATI 'COVID ziurtagiria'-ren aurkako kale agerraldia

Eskubideen Alde-Oñati taldeak deituta.

Foruen plazan, 13:00etan.

BERGARA 'Dantza familian' tailerra

Amaia Aranzabal biolin-jotzailearekin eta Oihane Vicente dantzariarekin. Sarrerak aurrez hartu behar ziren. Edukiera mugatua.

Seminarixoan, 18:00etan.

DOMEKA 30

BERGARA Bergarako txistulari bandaren kalejira

Ubera auzoan egingo dute.

Uberan, 10:00etan.

ARETXABALETA 'Naturaren leihoak' erakusketa

Itziar Azpirozen bilduman, landare prentsatuak, lehorrak eta naturako hainbat osagarriaren konposaketak ikus daitezke.

Uberan, 10:00etan.

ARRASATE Familia-meza, umeekin

Katekesian dihardutenendako eukaristia izango da.

Parrokian, 11:00etan.

BERGARA Musika banda

Kontzertua.

Udal pilotalekuan, 12:30ean.

ARRASATE 'Familia jolasean'

0-8 urte arteko haurrendako eta euren familiendako txokoa, aisialdiaz eta jolasaz gozatzeko.

Okendoko ludotekan, 17:30ean.

ARRASATE 'Silvana' pelikula

2017an Suedian egindako filma, Zinema-ziklo Transmaribolloaren baitan.

Gaztetxean, 18:00etan.

ARRASATE Pelikula emanaldia

Gaztetxoendako emanaldia.

Erguingo gazte txokoa, 18:00etan.

ESKORIATZA 'Korrotik pikutara': dantzaren historia dantzan

Erromerietako dantzen historia-dantzatua egingo du Kezka dantza taldeak, Oier Araolazak gidatutako emanaldian, eta zuzeneko musikarekin.

Zaldibar antzokian, 19:00etan.

OÑATI 'Semea pixka bat motelago dabil soilik' antzezlan

Ivor Martinic-en jatorrizko lanaren egokitzea egin du Tanttaka Teatrot. Punta-puntako aktoreak



KATXIPORRETA

ESKORIATZA 'Zorionak Marimotots' ikuskizuna

Porrotek eta Marimototsek ume eskoriatzarrei egingo diete bisita, eta elkarrekin ospatuko dute Marimototsen urtebetetzea. Bi emanaldi egingo dituzte: 17:30ean eta 19:00etan.

Gaur, egubakoitza, kiroldegian, 17:30ean.

oholtzan: Miren Arrieta, Klara Badiola, Mireia Gabilondo eta Martxelo Rubio, besteak beste. Sarrerak, hamar euro.

Santa Ana, 19:00etan.

ASTELEHENA 31

OÑATI Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko batuko dira.

Foruen plazan, 12:00etan.

ARRASATE Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko batuko dira.

Herriko Plazan, 12:00etan.

BERGARA Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko.

San Martin plazan, 12:00etan.

ANTZUOLA Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko.

Herriko Plazan, 12:00etan.

OÑATI Ciceronen 'Sobre la vejez' liburuaren gaineko hitzaldia

Tere Txopiteak egingo du berba.

Pake Lekun, 17:30ean.

OÑATI 'Noka, emakumeen ahalduntzerako tresna'

Beatriz Irizarrekin Jabekuntza Eskolaren baitan.

Euskaldun berria gelan, 18:00etan.

OÑATI Idazketa lantegia

Joxemari Iturraldearekin, ikasturteko bosgarren saioa.

Euskaldun berria gelan, 18:00etan.

OÑATI 'Habitat. Ezkutatu diguten historia' bisita gidatua

Habitat kontzeptua eta gizakiak sortutako hizkuntzak, kulturak eta erakundeak ezagutzeko aukera, Beñi Agirrek gidatutako saioan. Bestalde, gaur da azken eguna erakusketa ikusteko.

Kultura etxean, 18:30ean.

MARTITZENA 1

OÑATI 'Asertibitatea' tailerra

Generozko komunikazio-estiloak buruz hausnartuko dute eta asertibitatez komunikatzeko tresna berriak erabiltzen ikasiko, Pepa Bojoren eskutik.

Euskaldun berria gelan, 18:00etan.

ARRASATE 'Neandertal lurraldea' erakusketa

Garagartzako koban eta inguruko zein mundu zabaleko txokoetan bizi izandako espeziea hobeto ezagutzeko aukera.

Kulturaten, 18:00etan.

EGUAZTENA 2

OÑATI 'Arrakala soziala' hitzaldia

Ana Sofi Telletxeak, Felix Arrietak eta Nerea Kortajarenak egingo dute berba *Hamar gai. Hamaika berba*



LA CASA FANTOM

ARRASATE La Casa Fantom taldea

Norvegiako taldearen kontzertuarekin hasiko dute otsaileko Kooltur Ostegunetako egitaraua. Azken diskoko kantuak joko ditu hirukoteak. Sarrera zazpi euro da.

Otsailaren 3an, gaztetxean, 22:00etan.

zikloaren baitan, EH Bilduk gonbidatuta.

Santa Ana antzokian, 18:30ean.

BERGARA Eguaztenetako azoka

Herriko baserritarren garaiko produktuak erosteko aukera.

Oxirondon, 18:30ean.

BERGARA 'En un muelle de Normandia' pelikula

Jatorrizko bertsoan eta azpittituluekin. Sarrerak, hiru euro.

Seminarixoa, 20:00etan.

EGUENA 3**ARETXABALETA Odol ateratzea**

Otsaileko lehen deialdia.

Herriko Plazan, 16:45ean.

ARRASATE Migrainari buruzko tailerra

Arturo Goikoetxea neurologoak gidatuta. Izena emateko -20 euro pertsonako-: goienagusi@gmail.com.

Kulturaten, 17:30ean.

ARAMAIO Santa Ageda entsegua

Otsailaren 5ean egingo duten Santa Ageda eskerako entsegua.

Udaletxeko arkupeetan, 19:00etan.

ARRASATE La Casa Fantom taldea

Norvegiako taldearen kontzertua, otsaileko egitaraua hasteko.

Sarrerak, zazpi euro.

Gaztetxean, 22:00etan.

EGUBAKOITZA 4**OÑATI Aloña abesbatza, kopia kantari**

Santa Ageda eguneko kalejira egingo du Pake Lekuko abesbatzak.

Oñatin, 10:30ean.

ZAPATUA 5**ARAMAIO Santa Ageda eskea**

Herriko kaleak eta baserriak alaituko dituzte, eta aurten ez dute bazkaririk egingo.

Bizente Goikoetxea plazan, 09:30ean.

ARRASATE 'Ipuin jolas' txokoa

4-6 urte arteko haurrendako eta euren gurasoendako irakurketa saioa, Mari Garciak gidatuta.

Bigarrena izango da.

Bibliotekan, 11:00etan.

ESKORIATZA Kinttaden Eguna

Urte berean jaiotakoak elkartzeko eguna izaten da, eta herriko elkarteetan eta tabernetan bazkaria izaten dute ospakizunera animatzen direnek.

Eskoriatzan, 12:00etan.

BERGARA 'Altsasu' antzezlana

La Dramatic Errante taldearen lana, Altsasuko gertaerak oinarri hartuta. Nagore Gonzalez, Egoitz Sanchez, Aitor Borobia eta Ane Pikaza oholtza gainean. Sarrerak, zortzi euro.

Seminarixoa, 20:00etan.

ZINEMA**ARRASATE****AMAIA ANTZOKIA****Mama o papa**

Zapatua eta domeka: 19:30.

Canta 2

Zapatua eta domeka: 17:00.

BERGARA**SEMINARIXOA****Cerca de tí**

Domeka eta astelehena: 19:30.

Clifford, el gran perro rojo

Domeka: 17:00.

OÑATI**KULTURA ETXEA****En un muelle de Normandia**

Egubakoitza eta zapatua: 22:00. Domeka: 19:30, 22:00. Astelehena: 19:30.

Klara y la Navidad en la granja

Zapatua eta domeka: 17:00.

GASTEIZ**GORBEIA****El buen patron**

Egubakoitzetik domekara: 19:10. Astelehenetik eguenera: 20:00.

Spiderman

Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 22:00.

Domeka: 11:30, 17:00. Astelehenetik eguenera: 17:20.

Canta 2

Egubakoitza eta zapatua: 17:00. Domeka: 12:00, 17:00.

Astelehenetik eguenera: 17:30.

Lunaticos

Egubakoitza eta zapatua: 17:20. Domeka: 12:00, 17:20.

Scream

Egubakoitza eta zapatua: 21:40. Domeka: 12:00.

El metodo Williams

Egubakoitza eta zapatua: 19:05, 21:50. Domeka: 19:05. Astelehenetik eguenera: 19:40.

El callejon de las almas perdidas

Egubakoitza eta zapatua: 19:05, 21:50. Domeka: 17:15, 19:10. Astelehenetik eguenera: 17:20, 19:40.

Agentes 355

Egubakoitza eta zapatua: 21:30. Domeka: 12:00, 19:50. Astelehenetik eguenera: 20:05.

Prisioneros de Ghostland

Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:50. Domeka: 17:00. Astelehenetik eguenera: 17:20.

La abuela

Egubakoitza eta zapatua: 17:40, 19:45, 22:00. Domeka: 12:00, 17:30, 19:45. Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00.

No somos nada

Egubakoitza eta zapatua: 17:20, 19:25. Domeka: 12:00, 17:20, 19:25. Astelehenetik eguenera: 17:30.

Mira por mí

Egubakoitza eta zapatua: 17:40, 19:45, 22:00. Domeka: 12:00, 17:10, 20:05. Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:10.

En el muelle de Normandia

Egubakoitza eta zapatua: 19:05, 21:15. Domeka: 19:05. Astelehenetik eguenera: 20:00.

FLORIDA**Clifford, el gran perro rojo**

Zapatua eta domeka: 12:00.

Canta 2

Egubakoitza: 17:00. Domeka: 12:00, 17:00.

Spiderman

Egubakoitza: 17:15. Zapatua eta domeka: 11:30, 17:15.

Astelehenetik eguenera: 17:30.

Delicioso

Egubakoitza eta zapatua: 22:20. Domeka: 17:00. Astelehenetik eguenera: 17:30.

Lunaticos

Zapatua eta domeka: 12:00.

El metodo Williams

Egubakoitza eta zapatua: 19:15, 22:15. Domeka: 19:15. Astelehenetik eguenera: 19:40.

El callejon de las almas perdidas

Egubakoitza eta zapatua: 17:15, 19:10, 22:00. Domeka: 17:15, 19:10.

Agentes 355

Egubakoitza: 21:10. Zapatua: 12:00, 21:10. Domeka: 12:00, 20:10.

El pacto

Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 20:05. Domeka: 20:05. Astelehenetik eguenera: 20:20.

El caso Villa Caprice

Egubakoitza eta zapatua: 20:10, 22:00. Domeka: 20:10. Astelehenetik eguenera: 20:20.

Belfast

Egubakoitza: 17:10, 19:10, 21:10. Zapatua: 12:00, 17:10, 19:10, 21:20.

Domeka: 12:00, 17:10, 19:10.

Astelehenetik eguaztena: 17:30, 19:55. Eguena: 17:00, 19:55.

No somos nada

Egubakoitza: 17:20, 19:20, 21:30. Zapatua: 12:00, 17:20, 19:20, 21:30. Domeka: 12:00, 17:20, 19:20.

Mira por mí

Egubakoitza: 17:10, 19:10, 22:00. Zapatua: 12:00, 17:10, 19:10.

Domeka: 12:00, 17:10.

Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00.

El pacto

Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 20:05. Domeka: 20:05. Astelehenetik eguenera: 20:20.

En un muelle de Normandia

Egubakoitza eta zapatua: 17:50, 20:00, 22:10. Domeka: 17:50, 20:00. Astelehena eta eguaztena: 17:30, 20:00. Martitzena eta eguena: 17:30.

EIBAR**COLISEO****El metodo Williams**

Zapatua: 16:00, 19:00, 22:00. Domeka: 17:00.

Delicioso

Zapatua: 19:45, 22:30. Domeka: 20:00. Astelehena: 20:30.

No somos nada

Domeka: 17:00, 20:00. Astelehena: 20:30.

ANTZOKIA**El valle de las linternas**

Zapatua eta domeka: 17:00.

No somos nada

Zapatua: 19:45, 22:30.

El metodo Williams

Domeka: 20:00. Astelehena: 20:30.

KRITIKA**La abuela**

Zuz.: Paco Plaza. **Herr.:** Espainia (2022). **Aktoreak:** Almudena Amor, Vera Valdez. **Iraupena:** 100 minutu. ★★★★★

Zaintza xurgatzailea**ANTONIO ZABALA**

La abuela pelikula gure pantailetara heldu da ikuslea kezkatzeko eta izutzeko. Gaur egun, gizakiak gero eta urte gehiago bizitzen gara. Urteak hartzen ditugu, eta, azkenerako, zainketa ugari behar izaten dugu. Kasu askotan, familiakoek euren bizitzak murriztu edo moldatu behar izaten dituzte, buru-belarri horien zainketa arduratzeko. Paco Plazak gai horretara hurbiltzen gaitu lan honekin, baina zinema fantastikoaren eta beldurrezkoaren generoan

kokatuta. Susana Parisen bizi da, modelo munduan toki bat lortu nahian. Ematen du poliki-poliki bidea egiten hasi dela, baina Madrilen bizi den amona gaixotu egiten da, eta, familiako kide bakarra denez, bera izango da amonaren zaintza arduratuko dena. Amona bilobaren bizitza xurgatzen joango da. Filmaren hasierarekin ikusleak sumatzen du istorioaren kutsu kezagarria. Plazak etekin handia ateratzen dio bikotea bizi den etxeari: etxe zaharra da, iluna, pasillo

luzeekin... Ondo laguntzen du neska gaztea murgiltzen ari den atmosfera kutsatu eta klaustrofobikoa islatzeko. Ikuslea kezkatu egiten da Susana sufritzen ari den egoerarengatik. Beldurrezko film baten aurrean gaudenez, zuzendariak eta gidoilariak, filmaren azkeneko partean, egoerak gehiegi kargatzen eta luzatzen dituzte. Misteriora baino gehiago, zaratar eta piroteknia jotzen dute azkeneko emaitza konbentzionalago bihurtzeko.



AZKEN BERBA

MARIA AGIRRE

Geltokiko amak

Azaroan Arrasaten egindako Ez Donk Amaitu ziklo interesgarriaren berri izan nuenean, geltokiko amen irudiaz akordatu nintzen lehendabizi. Geltokiko amak ziren 80ko hamarkadan heroinaren atzaparretan harrapatutako semeari Gizakia Helburu-ra laguntzen ziotenak. Goizean goiz ikusten genituen, eskolarako bidean, Gasteizera eramango zituzten autobusaren zain, geltokian. Haien azalean jarrita, une horrek ez zuen batere gozoa izan behar. Irudia latza bezain tristeza izaten zen.

Ez Donk Amaituren programaren berri emateko GOIENAn egindako adierazpenetan, Iker Barandiaranek aipatzen zuen "punkun amei omenalditxo bat egiteko asmoa". Eta baieztatu dit hala egin zutela, ama haiek jasandako sufrimendua aitortzeko tartea izan zela. Antolakuntza lanetan ibilitako Andoni Iñurritegik aldizkari honetan ere zentzu horretan zioen familiengan erori zela drogekin eragindako kalte guztia. Etxeetan ahal moduan pasa zutela haien zat beltza izan zen garaia.

Alde askotatik emankorra izan zen 80ko hamarkada, errebeldia eta alaia. Baina tragedia bat ere izan zen familia askorentzat. Bihoakie, beraz, garai hartako amei "omenalditzarra".

GOIENA OKM GIDA

"Orain, tendentziak askoz ausartagoak dira"

NAIARA ALONSO ETA TRINI OLABARRIA MUJIKA JANTZI-DENDA

Denda historikoa da Mujika jantzi-denda Bergaran. 1896a ezker dago martxan, eta, Alonso eta Olabariaren gidaritzapean, ezkontzetarako jantzietan dira adituak

Jone Olabarría BERGARA

Mujika familiak XIX. mende amaieran jarri zuen martxan jantzien negozioa Bergaran. Ordutik lan egiteko modua asko aldatu den arren, betiko esentziari eusten diote gaur egungo jabeak diren Trini Olabarría eta Naiara Alonso ama-alabek.

Mujika familiarena tradizioz, baina zuek ere bide beretik zoazte...

Amak laster hartuko du erretiroa, eta nik jarraituko dut dendarekin. Bizitza osoa eman du amak hemen, 20 bat urte zituenetik, eta, mujikatarren hainbat belaunaldiren ostean, 2000. urtean erosi zuen denda.

Zuk jarraituko duzu negozioarekin, baina betidanik aritu zara honetan?

Txiki-txikitatik ezagutu dut dendako lana, amari esker. Hala ere, nik Enpresagintza ikasi eta arlo horretan egiten dut lan. Haurrak izan nituenetik, jardun erdiz aritzen naiz, eta horrek ere dendaz arduratzeko aukera ematen dit. Ama erretiratzean, bi lanak konbinatuz jarraitzea da asmoa.

Zer da negozioaren onena?

Onena jendearekin duzun harremana da, etengabe egin behar duzu horrekin lan. Hala ere, gustatu egin behar zaizu, beste-



Ama-alabak, Bergarako Barrenkalea kalean duten denda. MARKEL ARRAYAGO

Mujikatarrak ala etxebestetarrak?

"Aupa Etxebeste" filma Bergaran grabatu zutenean, protagonistak Mujika jantzi-denda dagoen eraikinean bizi ziren, eta semeak musikaria izan nahi zuen... Pelikula kaleratu eta urte batzuk geroago, Bergaran jaioa zen baina kanpoan bizi zen gizon nagusi bat dendara etorri, eta mujikatarren seme musikariarengatik galdetu zigun. Mujika familiako seme-alabetatik inor ez da musikaria. Gizonak filma eta errealitatea nahastu zituen!"

la ez da-eta erraza jendearekin tratatzea.

Eta kontrara, zer da okerreana?

Dendako ordutegia. Ohituta gauden bostak arte lan egitera eta asteburuak libre izatera, baina dendak berandura arte lan egitea eta zapatuetan ere zabalik mantentzera behartzen zaitu.

Ezkontzekin egiten duzue lan, bereziki, azkenaldian...

Bai; egia da pandemiak erritimoa moteldu duela, baina esperantza dugu berriz ere martxa harteko. Gizonezko ezkongaien jantziak egiteak denbora luzea eskatzen du, eta prozesu berezia da. Baina gonbidatuendako eta aitabixiendako ere asko eskatzen dizkigute. Ezkontzetatik harago, lanerako jantzi bila ere asko etortzen zaizkigu.

Neurrira egiten dituzue; ez zarete asko izango horretan zabilzatenak oraindik gaur egun...

Hemen inguruan, bailaran, barrenetakoak garela esango nuke. Azken urteetan, baina, katalogoz egiten da gehiago lan.

COVIDak geratu egin du sektorea?

Pandemia honekin, 2019an egindako jantzi batzuk, neurriak hartu eta diseinua aukeratuta, oraindik ezin izan dituzte estreinatuta ezkongaei, pentsa...

Asko aldatu da moda hemen ere?

Bai. Orain, tendentziak askoz ausartagoak dira. Praka estuagoak eramaten dira eta, era berean, kolore eta estanpatu biziagoak ikusten ditugu. Izan ere, egurrezko tximeleta-begiztak (pajarita) eta guzti eramaten dituzte senargaiek.

Goiena OKm
Gidaren
eskaintza
osoa



goiena
Okm
gida

EZ DONK AMAITU

GOIENA TELEBISTA, ERREPORTAJE BEREZIA
OTSAILAREN 1EAN, MARTITZENEAN, 21:00 ETA 23:00
80KO ARRASATERA BIDAIA, PUNKA OINARRI HARTUTA



DESKARGATU
GOIENA
APP BERRIA!

goiena
Zu hemen zaude.

